

Transnazionalak,



zein garapenaren eragile?



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
HEGOKOITZA LANBIDEA EN GARAPEN BURELDO BARRERA INSTITUTUA




GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



Transnazionalak,



zein garapenaren
eragile?

Edita:



www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU
Zubiria Etxea eraikina
Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao
Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU
Villa Soroa
Ategorrieta, 22
20013 Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU
Arabako Campus-eko Liburutegia, 138 kutxatila
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. • Faxa: 945 01 42 87
hegoagasteiz@ehu.es

Abendua 2010
Euskarazko itzulpena: Labayru Institutoa
Inprimaketa: Lankopi, S.A.
Diseinua eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios, S.L.
Lege zenbakia: BI-1323/2011
ISBN: 978-84-89916-55-5



Aitortu-Ez komertziala-Lan Eratorririk Gabe 2.5 Generikoa Espainia
Creative Commons-en lizentziarekin dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko
eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar
ituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau
bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Transnazionalak eta garapena Amerika Latinoan Aldaketarako prozesuak, birbanaketaren eta "bizimodu onaren" artean Juan Hernández Zubizarreta, Erika González et Pedro Ramiro	9
Bolivia: Nazio Anitzeko Estatu berria eta bertako baliabide estrategikoen berreskurapena Ramiro Lizondo Díaz	21
Erauzketaren pragmatismoa, boluntarismo patxamamista eta Boliviako aldaketa-prozesuko beste dilema batzuk Marco A. Gandarillas Gonzáles	43
Emakumeak eta feministak: guztientzako bizimodu onaren eraketarako subjektu politikoak Martha Godínez	65

Aurkezpena

Azken hamarkadan, aldaketa politiko handiak gertatu dira Latinoamerikan eskualde moduan.

Alde horretatik, Washingtongo adostasunaren ondorioz sortutako logika eta politika neoliberalak gero eta gehiago gaitzesten direnez –desregulazioa, pribatizazioa, ireki-era komertzial asimetrikoa, merkantilizazioa, txirotzeko prozesua...–, oinarri eta ezaugarri desberdineko zenbait gobernu ekimen politiko berriak jarri nahi dituzte abian: gaur egungo sistemaren ondorio larrienei aurre egitea eta eredu hori gainditzeko formulak sortzea, besteak beste.

Horrez gain, garai berri hori ez da neoliberalismoaren aurkako estatu-proposamenetara mugatzen, inplikazioak ere izan baititu kontinentea bera bere osotasunean oinarri alternatiboetatik ulertzeko moduan, AEBekiko menpetasuna eta periferia gainditu nahian. Joera horrekin dute zerikusia Ameriketako Aliantza Bolivariarrak (ALBA), UNASURek...

Aldi berean, ezinbestekoa da epealdi horren ezaugarri bereizgarri moduan nabarmentzea proiektu nazionalak eta kontinente azpiko berregituraketa berria gizarte-mugimenduen antolaketa-gaitasunean, erresistentzian, eraginean eta egituraketan daudela oinarrituta –indigenak, erkidegoak, nekazariak, feministak...–, eta prozesu horien benetako oinarria direla. Izan ere, eurei esker eman ahal izan da mende honen hasieran sendotu den bira.

Hartara, garai honetako *indarren elkarlotura* berriaren ondorioz, zenbait herrialdetan indarrez eutsi diote berriro eredu sozio-ekonomiko alternatibo barik subiranotasun nazionala berreskuratzeko zenbait politika abian jartzeko ideiarri. Alde horretatik, aurreko gobernuak zilegitasunik gabe metatutako zorrak jarri dira kolokan, baita alderdi anitzeko zenbait finantza-organismoren partaidetza aktiboa eta nazioz haraindiko enpresek Amerikako herrialde txirotuetako herrialdeen garapenerako estrategia nazionaletan duten zeresana ere.

Azken puntu horri dagokionez, herrialde batzuetan Estaturen eta nazioz haraindiko enpresen arteko negoziaketa-prozesu berriak gertatu dira, eta harreman horizontala-goan daude oinarrituta, aurrez aurrekoak dira-eta. Hori dela eta, batzuetan,

gubernuen diru-sarreraren sorreraren inguruko ehunekoak alderantzikatu egin dira –eta ondasun naturalen gaineko subiranotasuna berreskuratu dute–, eta, nolabait esateko, enpresak inplikazio handiagoa dauka barne-agendan.

Alde horretatik, nazioz haraindiko enpresek kontinenteko sektore estrategikoetan oso partaidetza handia dutela kontuan hartuta –energia, gasa, petrolioa, meatzaritza, azpiegiturak...–, gaur egungo indarren elkarlotura horren ondorioz, diru-sarrera publikoen sorrera handiagotu egin da. Horri esker, askotan, lehen ez zeuden politika sozial aktiboak eutsi ahal izan diete, eta eskatuenak ziren gehiengodun sozialen artean.

Errealitate hori abiapuntutzat hartuz gero, neurri horiek nahikoak direla pentsa liteke, eta ez da horrela. Era berean, baliteke transnazionalak honako arlo hauetan duten benetako eragina hain kontuan ez hartzea: ekologia, enplegua, giza eskubideak, bertako egitura ekonomikoaren eraketa, eskualde-integrazio alternatiboa... Batez ere, baliteke oso kontuan ez hartzea zer eredu ekonomikotan jarduten duten –globalizazio neoliberalaren esparruan menpekota den lehen mailako esportatzailea–.

Argitalpen hau eztabaida horien emaitza da, hain zuzen ere, eta 2010eko irailaren 30ean eta urriaren 1ean Guatemalarekiko Lankidetzarako Euskal Estrategiaren esparruan Bilbon egindako *“Transnazionalak, eragileak... zer garapenetakoak?”* mintegian garatu ziren.

Horrela, bada, *indarren elkarlotura berri* horrek eraldaketa ekonomikoaren eta bere eragile nagusien inguruan sortu dituen erroak aztertu nahi izan genituen. Hartara, egoera desberdinetan dauden bi herrialde aukeratu genituenz –Guatemala eta Bolivia–, oso lagungarria izan zen, arlo zehatzenetik enpresa transnazionalen zeregina zein den eta zein izan behar den eztabaidatzeko orduan. Horretarako, premia eta apustu politiko desberdin-desberdinak hartu genituen kontuan: batetik, Guatemala, hau da, globalizazio neoliberalerako logiketan zeharo murgildutako herrialdea. Bertan, hain zuzen ere, meatzaritzako, elektrizitate-arloko eta azpiegituren eraikuntzarako enpresek zeresan handia dute, eta euren eraginak erabat kaltegarriak dira ekologian, gizartean, erkidegoetan eta giza eskubideetan. Bestetik, Bolivia dugu. Herrialde horretan, Estatuak enpresa multinazionalekin negoziatu duenez, diru-sarrera publikoak gehitu egin dira epe laburrean. Dena dela, emantzipazio-eredu berrirantz egin nahi du aurrera, eta, bertan, lehen mailako erauzketa-eredua ez dator bat *sumak kaamañaren* aginduekin.

Mintegian, Guatemala, Bolivia eta Estatu espainoleko pertsonak parte hartu zuten, eta Latinoamerikako herrialdeetako aldaketa-prozesuen barruan transnazionalekin jarraitu beharreko strategiari, taktikari, egokitasunari edo beharrianari buruzko eztabaida aberastu zuten zenbait ikuspegitatik. Hona hemen eztabaida irekietan sortutako eta argitalpen honek erantzun edo, gutxienez, zenbait jarreretatik azaldu nahi dituen zenbait galdera: nahikoa da Estatuak eta enpresa multinazionalak euren indarren elkarlotura aldatzea, enpresa horiek garapen ekonomikorako ustezko eragiletzat hartzeko? Gaur egun, badago politika sozialetarako diru-sarrerak sortu eta epe ertainean transnazionalen –berez lotuta daramaten ereduaren– premia ez duen politika

ekonomiko alternatiborik sortzerik? Proposamen alternatiboarekin batera, ez da politika ekonomiko alternatiboa ere aurkeztu behar? Proposamen alternatibo horren barruan bete-betean erazuziko dira baliabideak? Amerikako herrien azterketa historikoa kontuan hartuta, badago hori epe laburrean lortzerik?

Argitalpen honen bitartez, transnazionalak Latinoamerikan duten zeresanari buruzko eztabaida sakona sustatzen jarraitu nahi dugu, baina ez ikuspegi maximalista edo teoriko hutsetik, errealitatearen azterketatik eta benetako aukeren mundutik baizik –gure ustez ere, utopiak egia bihurtu daitezkeelako eta bihurtu egin behar direlako–.

Transnazionalak eta garapena Amerika Latinoan: Aldaketarako prozesuak, birbanaketaren eta “bizimodu onaren” artean

Juan Hernández Zubizarreta, Erika González eta Pedro Ramiro¹

Antoni Brufau: *“Oso eroso gaude, eta, beti-beti, harreman ona dugu gobernuarekin, PDVSArekin eta ministroarekin”.*

Hugo Chávez: *“Ikusten duzu? Ez gara hain deabruak, ezta?”* [...]

Hugo Chávez: *“Brufau, zer egingo dugu hainbat gasekin?”*

Antoni Brufau: *“Zerbaitetarako erabiliko dugu?”*

Elkarrizketa hori duela urtebete gertatu zen, 2009ko irailean, hain zuzen ere, Venezuelako presidentea eta Repsol YPF konpainiako zuzendari gorena Madrilen elkartu zirenean, herrialde horretan aurkitu berri zuten gas-putzu handiena Espainiako petrolio-konpainiak eta Venezuelako PDVSA estatu-enpresak elkarrekin kudeatuko zutela iragartzeko. Zenbait egun geroago, Boliviako presidentea hiri berean elkartu zen Espainiako enpresarien ordezkariarekin, eta honako hauxe azaldu zien: *“bazki-deak nahi ditugu, ez gure baliabide naturalen jabeak”*³. Bi egitate horiek gain-gainetik aztertu zituzten komunikabide alternatiboetan, eta, euren ondorioz, konpainia horrek eta beste konpainia multinazional batzuek Amerika Latinoan edukitako eraginak salatu zituzten talde eta mugimenduek eztabaida zailari ekin beharko zioten: Amerika Latinoko gobernu progresistek aliatutzat hartzen badituzte, zentzuzkoa ote da enpresa transnazional handiok herrialde horietan duten agerpenaren aurka egiten

¹ Juan Hernández Zubizarreta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHUko) irakaslea eta Hegoako kidea da. Pedro Ramiro eta Erika González Amerika Latinoan dauden Multinazionalen Behatokiko ikertzaileak dira (OMAL) – Bakea eta Duintasuna. Testua honako artikulua honetan dago oinarrituta: “Empresas transnacionales en América Latina: ¿Hacia un nuevo modelo de desarrollo?”, *VIENTO SUR* aldizkaria, 112. zk., 2010eko urria.

² “Repsol hace en Venezuela el mayor descubrimiento de gas de su historia”, *El País*, 2009/09/12; “Repsol halla en Venezuela el mayor pozo de gas de su historia”, *Público*, 2009/09/12.

³ “Morales pide ‘socios, no dueños’ para que inviertan en su país”, *El País*, 2009/09/15.

jarraitzea? Bestela, zerga gehiago ordaintzeko eta benetako lanpostuak sortzeko eskatu behar ote zaie? Beste era batera esanda, nahikoa da Estatuak eta enpresa multinazionalak euren indar-harremana aldatzea, enpresa horiek garapen-eragileak direla esateko?

Pasadizo hutsean geratu beharrean, eztabaida hori nabarmen indartu da azken urtean. Izan ere, Ekuadorko eta Boliviako gobernuek eta hauteskundeetako garaipenean eurentzat erabakigarriak izan ziren herri-mugimenduen arteko hasierako adostasuna Estatuak baliabide naturalen eta zerbitzu publikoen gainean duen subiranotasuna berreskuratzeko ideia inguruan egituratu da, baina gaur egun, ordea, oso desadostasun sakona bihurtu da, "garapen-eredua" zehazteko orduan. Gobernuen eta mugimenduen arteko tentsioa gero eta handiagoa da, bi herrialde horietan konstituzio berriak onartu ondoren. Ekuadorren, hain zuzen ere, indigenen erakundeek Correaren gobernuari egin diote aurka, urei buruzko legeagatik eta meatzaritzakonpainiei egindako emakidengatik. Bolivian, ostera, "hondamenezko berdinketaren" epealdian –izen hori jarri zion Álvaro García Linera presidenteordeak–, eskuindarrek ezegonkortasunerako etengabeko ekintza sustatu dute, herrialdeko ekialdeko prefektu eta enpresarien jokabidearen adierazgarri. Dena dela, epealdi hori gaitzitu egin zen, 2008ko irailean prefektuen estatu-kolperako saialdiak porrot egin ondoren. Harrezkero, eremu politikoa aske geratu zen, ekonomiaren arloko "aldaketa-prozesua" gauzatzeko moduko erabakiak bultzatzeko. Hori dela eta, ezkerreko sektoreen arteko eztabaida azaldu zen berriro.

Hartara, tentsio handiak sortu dira lehen mailako esportazio-ereduan sortutako soberakinaren birbanaketa sozialaren alde daudenen, eredu horretako mozkinak industrializaziorako politika estrategikoen garapenerako erabili nahi dituztenen eta erazketapeko garapenaren ostean "bizimodu onean" oinarritutako garapenean aurrera egin nahi dutenen artean. Hori dela eta, premiazkoa bide da etorkizunari begira funtsezkoa den eztabaida berriro diseinatzea: gaur egungo testuinguruan, nolako zeregina edukiko dute enpresa transnazionalak garapen-ereduan? Bestela esanda, ezkerreko gobernuek nolako proposamen alternatiboak garatuko dituzte hemen eta orain, konpainia multinazionalen botereari aurre egiteko?

Azkenean, galdera horien azpi-azpian kontraesana sortzen da garapena subiranotasun nazionalerako ezinbesteko faktoretzat hartzen dutenen eta txirotasuna, desberdintasunak eta ingurumeneko zein gizarteko ondorioak garapenik ezaren hainbateko ondorioa ez direla eta kolonizazio-eskemarekin lotutako ereduaren finkapenaren ondorioa direla uste dutenen artean.

Transnazionalei aurre egitea: nazionalizaziotik aldaketa-prozesura

Duela zenbait hamarkadatatik aztertu dute nolako zeresan handia duten korporazio transnazionalak globalizazio kapitalistako prozesuetan: *"Korporazio transnazional handien eta Estatuaren arteko aurrez aurreko gatazka da"*, zioen Salvador Allendek

orain dela berrogei urte⁴. Denok dakigunez, gehiengodun sozialen giza eskubideen defentsari barik⁵ testuinguru juridiko, politiko eta ekonomikoak enpresen interesei lehentasuna ematen dienez, kapital transnazionalaren hedapen global bezain azkarren ondorioz sortutako gatazkak gero eta biziagoak dira, eta planeta osoan zehar hedatu dira. Horrela, bada, multinazionalak bete-betean kritikatu dituzte euren jardueren ondorioengatik, eta kritika hori elkartasun-sareek eta globalizazioaren aurkako mugimenduek garatutako lanaren oinarritzko ardatza da⁶. Adibide bat jartze-arren, nahikoa da ikustea zeinen lan handia egin den azken lau urteotan Herrien Auzitegi Iraunkorraren bileretan, konpainia multinazionalak Amerika Latinoan giza eskubideen arloan egindako urraketen jarraipena eta salaketa egitean⁷. Nolanahi ere, neoliberalismoaren teoria eta praktika ahulak badira ere, kapitalismoa ez da besterik gabe desagertuko. Are gehiago, “adostasunaren” balio hegemonikoetan ez ezik (gizarte-maila menderatzaileentzat ona dena ona da gehiengodun sozialentzat), “etsipenaren” balioetan (sistemaren krisiaren aurrean, ez dago alternatibarik) ere badago oinarrituta bere zilegitasuna. Europako gobernuen eraldaketak eta merkatuaren diktadura dira horren adierazgarri argiak.

Horrez gain, botere korporatiboari aurre egiteko dinamikak sendotu diren neurrian, hainbat ekimen garatu dira, elikaduraren, garraioaren, energiaren eta gizarte-eskubideen gaineko subiranotasunaz birjabetzeko. Dena dela, behetik eraturako esperientzia horiek guztiak kontuan hartuta, Daniel Bensaïdek adierazitakoa pentsa liteke: *“gaur egungo une utopikoa ilusio ekonomikopean dago, eta, horren arabera, nahikoa izango litzateke merkatuaren logikapeko zenbait esperientzia garatzea, ekintzapeko logika geldiarazteko eta botere politikoaren gai arriskutsua saihesteko⁸”*. Izan ere, ezker sozial eta politikoak ez ditu sakon aztertu enpresa transnazionalak alde batera uzteko moduko garapen-eredu alternatiboa eratzeko asmoz gobernuak hartu behar dituzten neurriak.

Hala ere, adostasun zabala egon da gobernu progresistek hartutako lehen neurrien inguruan, erregulazio nazionala bultzatzeko eta enpresa transnationalek herrialde horietan lortutako mozkin handi-handiak murrizteko. “Nazionalizatze” prozesu horietan, honako neurri hauek hartu dituzte, besteak beste: Estatuak enpresak suspertzea, Estatuak zenbait konpainiatako akzioetan duen partaidetza handitzea, sektore publiko indartsua eratzea eta konpainia transnationalei zergak igotzea. Euren benetako irismenari buruzko eztabaida egon arren, agerikoa dirudi eraldaketa horiek ezinbesteko lehen urratsa izan direla, kapital transnazionalak eskualdean daukan boterearen aurrean Estatuak duen zeresana berreskuratzeko orduan.

⁴ 1972ko abenduaren 4an Salvador Allendek Nazio Batuetako Batzar Nagusian emandako diskurtsoa.

⁵ Hernández Zubizarreta, J. eta Ramiro, P. (2010): “Seguridad jurídica, ¿para quién?”, *Pueblos*, 43. zk.

⁶ Ramiro, P. eta González, E. (2008): “Las iniciativas de resistencia frente a las empresas multinacionales”, *Viento Sur*, 95. zk.

⁷ 2006tik 2010era, Herrien Auzitegi Iraunkorrek (TPP) zenbait entzunaldi egin ditu, enpresa transnationalek eta, batez ere, europarek Amerika Latinoan izan dituzten ondorioak ikertzeko eta sistematizatzeko. Europa, Amerika Latino eta Karibeko Bi Eskualdetako Sarearekin batera antolatutako eta Vienan (2006), Liman (2008) zein Madrilen (2010) garatutako *Alternatibak lotzen* hiru saiok nabarmendu behar dira.

⁸ Bensaïd, D. (2009): *Elogio de la política profana*.artzelona: Penintsula.

Inolako zalantzarik gabe, Boliviakoa izan da kasu ezagunena: 2006ko maiatzaren 1ean hidrokarburoen nazionalizazioari buruz emandako dekretuaren ondorioz, azkenean, Repsol ez zen herrialdetik joan, baina Estatuak petrolio eta gasa ustiatzeagatik jasotzen dituen zergak igo ziren⁹. Urte horretan bertan, antzeko neurriak hartu ziren Venezuelan, hidrokarburoen ustiapenerako sozietate misto publiko-pribatuak eratzeko legea aldarrikatu zenean. Era berean, Ekuadorren bertan ere, %50 inguru igo ziren Estatuko zerga-bilketaren ehunekoak¹⁰. Harrezkero, horrelako eraldaketa gehiago jarri dira abian: *“Berriro ere, maiatzaren 1ean, betiko moduan, geure enpresa pribatizatuak berreskuratu ditugu”*, zioen joan den maiatzean Evo Morales presidentek, Bolivian lau konpainia elektriko nazionalizatuko zirela iragartzean.

“Diru-sarreraren sorrera hobetu nahi du, eta diru-sarrera gehiagori eutsi nahi diegu, ekoizpenean inbertitzeko eta lanpostuak sortzeko”, dio Pedro Páezek, Ekuadorko Politika Ekonomikoetako ministro ohiak¹¹. Hau da, lehenengo eta behin gizarte-birbanaketarako eta enpresa transnazionalen kontrolerako mekanismo eraginkorrak ezarriko lirateke, epe luzean paradigma sozio-ekonomikoaren aldaketarantz joateko. Horrela, baieztatu egin liteke “nazionalizatzeko” prozesu horiek beharrezko baldintza direla, baina ez nahikoa, herrien subiranotasun handiagoa lortzen jarraitzeko. Hala ere, aldaketa ez da esparru nazionalean bakarrik gertatu behar. Izan ere, Bolivia, Ekuador eta Venezuelako gobernuak hartutako erabakiek gaur egun kapitalismo globalean hegoaldeko herrialdeei esleitzen zaien eredia jarri dute kolokan. Alde horretatik, ulergarriak izan litezke ALBA, Hegoaldeko Bankua eta antzeko eskualde-aliantzak, hasiera batean kontrabotererako bloke ekonomikoak sortu behar dituztelako, eskualdean oso errepresiboak diren gobernu neoliberalak sendotzen ari direnean: Kolonbia, Peru, Panama, Honduras, estatu-kolpearen ostean...

Azken aspaldion, ordea, “aldaketa-prozesuen” eraginkortasunari buruzko kritika asko sortu dira: enpresa transnazionalen menpe ez dagoen ekonomia ezartzeko orduan beharrezkoak diren industrializazioaren sorrera eta ekoizpen-sarearen hobekuntza kolokan jartzen dituzten ahotsak eta oraindik ere eredia munduko merkaturako baliabide naturalen esportazioan oinarrituta dagoela dioten ahotsak. *“Petrolioaren kontratuak berrikusi behar dira, petrolioaren arloan erauzitako kupel bakoitzeko Estatuak lortzen duen diru-sarrera handitzeko”*. Hala ere, *“petrolioagatiko diru-sarrera fiskalaz handitzeko, ez da petrolioaren muga zabaldu behar”*, esan du Alberto Acostak, Ekuadorko Batzar Konstituziogileko presidente ohiak¹². Horrez gain, ardatz ekonomiko esportatzaileari jarraipena emateko, nazioarteko merkataritzaren menpe jarraitu beharra dago, aberastasuna birbanatzeko politikak egia bihurtu ahal izateko. Herrialde horietan desberdintasuna murriztu dela nabarmendu beharra dago, baina,

⁹ Gandarillas, M.; Tahbub, M. eta Rodríguez, G. (2008): *Nacionalización de los hidrocarburos en Bolivia. La lucha de un pueblo por sus recursos naturales*, Bartzelona: Icaria.

¹⁰ Elkarrizketa: Pedro Páez Pérez, Ekuadorko Politika Ekonomikoaren Koordinazioko ministroa 2007tik 2008ra, *ALAI-América Latina en movimiento* (www.alainet.org), 2010/07/01.

¹¹ *Ibidem*.

¹² Gaudichaud, F. (2010): “Pensando alternativas, entre la crisis europea y el Yasuni”. Alberto Acostari egindako elkarrizketa, *Rebelión / ContreTemps* (www.rebelion.org), 2010/08/6.

horretarako, lehengaiak oso prezio garestietan esportatu behar izan dira, besteak beste. Beraz, hona hemen beste kezka bat: badago politika horiei eusterik, nazioarteko merkatuaren egoera hain ona izan ezean eta *commodities* prezioak jaitsiz gero?

Garapena berriro diseinatzea: birbanaketaren eta "bizimodu onaren" artean

Hori dela eta, epe laburrean Estatuak erauzketa-enpresetan partaidetza handiagoa izan behar duela eta transnazionalen fiskalitatea handitu egin behar dela kontuan hartuta, eman beharreko hurrengo urrats hauei buruzko galdera berriak sortzen dira: negoziaketa horietan, badute Estatuak diru-sarreraren ehunekoak aldatzea baino zerbait gehiago egiterik?, nazionalizazioak epe laburrerako neurri taktikoak al dira, ondoren lehen mailako esportazio-eredua gainditzeko beste fase batera igaro ahal izateko¹³? Bestetik, Wallersteinek honelaxe laburtzen du "XXI. mendeko eztabaida handia": *"Sortu daitekeen beste mundu" hori, Munduko Gizarte Foroaren leloa erabiltzearen, etengabeko hazkuntza ekonomikoan oinarritutako mundua izango litzateke, nahiz eta 'sozialista' izan, eta hegoalde globalean pertsonen benetako diru-sarrerara handitzea izango luke helburu? edo zibilizazio-balioen aldaketa hutsa, "bizimodu onaren" mundua izango litzateke, zenbaitek dioten bezala¹⁴?*

Alde horretatik, badirudi Amerika Latinoko gobernu ezkertiarrek, hemen eta orain, ez diotela zuzenean aurka egin kapital transnazionalari eta elkarketa taktikoa ezarri dutela konpainia multinazionalekin, baina meatzaritzaren zein hidrokarburoen sektoreetan, batez ere. Dena dela, enpresa transnazionalen partaidetza handia duen meatzaritza eta hidrokarburo arloko ustiapenerako politikaren ondorioz, tentsio handiak sortu dira Boliviako zein Ekuadorko gobernuen eta gobernari horiek boterera eramane zituzten herri-sektoreen zein indigenen artean. Bi kasutan, honako hauxe dio Raúl Zibechi: *"gobernuek mea eta petrolioa erauzteak erabaki zuten, diru-sarrerak fiskalak bermatzeko, bere garaian esan bezala "bizimodu onerantz" egin beharrean. [...] Beraz, badirudi Ekuadorren bizitako prozesuaren ondorioz mugimenduen eta gobernuaren arteko haustura sakona gertatu dela. Bolivian, ordea, egoera hori ez da hain urrun iritsi. Amildegia dago euren artean, eta herrialdeko proiektua eta "garapena" dira banalerroa¹⁵.*

"Bazkideak nahi ditugu eta ez gure baliabide naturalen jabeak" ideiaurrean, Boliviako zenbait gizarte-erakundeek euren buruari galdetzen diote korporazio transnazionalak "bazkidetzat" hartu daitezkeen. Izan ere, MASEko gobernuaren aurretiko hamarkadan Boliviara iritsitako atzerriko inbertsioaren emaitzak ebaluatuz gero,

¹³ Galdera hauek eta antzeko beste batzuk eztabaidaren oinarria izan ziren "Transnazionalak, eragileak... zer garapenetakoak?" mintegian. Izan ere, Bilbon egin zen irailaren 30ean eta urriaren 1ean, eta Hegoa zein OMAL izan ziren antolatzaileak.

¹⁴ Wallerstein, I. (2010): "Contradicciones en la izquierda latinoamericana", *Rebelión*, 2010/08/28.

¹⁵ Zibechi, R. (2010): "Bolivia-Ecuador: El Estado contra los pueblos indios", CIP Américas (www.cipamericas.org), 2010/07/13.

horren inguruko eszeptizismoa edukitzeko moduko datuak azaltzen dira: Estatuak sektore estrategikoetan zituen enpresa handienak saltzen ari zirenean baino ez ziren herrialdera hurbildu multinazionalak: hidrokarburoak, telefonia edo elektrizitatea¹⁶. Hau da, euren inbertsioen segurtasun juridikoa bermatu behar dute, baina, horrez gain, korporazio handiek epe laburrean mozkin handiaren bermerik ez badute, ez dute Estatuarekin elkartu nahi izango. Bestela esanda, biztanleentzako hornikuntza energetiko egokiaren gabezia kronikoa konpontzeko asmoz, MASEko gobernuak esportazioari barik hidrokarburoen barne-hornikuntzari lehentasuna emango balio, multinazionalak herrialdean geratuko lirateke eta “bazkideak” direla esan liteke?

Horrela, bada, beste eredu ekonomiko baterantz joateko, ezinbestekoa izango litzateke politika ekonomiko alternatiboen diseinuan aurrera egitea, politika sozialetarako diru-sarrerak sortzeko eta, epe ertainean, enpresa transnazionalak jarduera ekonomiko eragile nagusia ez izateko. *“Bizimodu onaren’ edo sumak kawsayaren bidetik, erauzketaren osteko ekonomia eratu nahi badugu, errakuntza eta izugarrikeria historikoa da erauzketa-eskema gogorari atea irekitzea”*, adierazi du Acostak¹⁷. Hala ere, badirudi gobernari adierazpen publikoak beste bide batetik doazela: Moralesek kritikatu egiten du zenbait erakundek “petroliorik gabeko Bolivia” defendatzen dutela. *“Beraz, nondik biziko da Bolivia?”*, galdetzen zion bere buruari Boliviako presidenteari¹⁸. Correa, ordea, *“petrolioari, meategiei ezetz esaten dietenen”* aurka dago, hau da, *“gure baliabide ez-berriztagarriak erabili nahi ez dutenen”* aurka. *“Izan ere, urrez betetako zakuaren gainean eserita dagoen eskalearen antzera jokatuko genuke”*¹⁹.

Beraz, zenbait trantsizio-fasetan dauden eraldaketa-prozesuak agertzen dira Amerika Latinoan. Batetik, egiaztatu egin daiteke garapenaren kontzepzio teorikoa neoliberalismotik aldentzen dela, baina, aldi berean, hazkuntza ekonomikoaren ideiak eta kapitalismoa neurtzeko eta bilakatzeko eredu klasikoek bere horretan dira nagusi den pentsaeran: Héctor Mondragónek dioenez, *“munduko merkatuak agintea badu eta herrialdeak euren egiturak aldatzeko eta arautzeko gai ez badira, kolonialismoak egindako ‘merkatuaren legeek’ ekonomizismo koloniala inposatzen jarraituko dute”*²⁰. Bestetik, aldi berean, aldaketa-prozesuetako proposamen nagusiak dira Estatuaren berreraketa –izan ere, herrien eta erkidegoen nortasun desberdinak errespetatuta eratu behar da ezinbestean– eta birbanaketarako politika sozialak.

Laburbilduta, argi eta garbi dago ideia kontrajarri horiek eztabaidaren osagai nagusiak direla –gizartean berrinbertitzen duen produktibismoa *versus* “bizimodu ona”–. Bolivian, gainera, barne-kontraesan handia da, gero eta baliabide natural gehiago ustiatzen

¹⁶ Rodríguez Cáceres, G. (2010): “La Inversión Extranjera Directa en el ‘proceso de cambio’” in González, E. eta Gandarillas, M. (koord.), *Las multinacionales en Bolivia. De la desnacionalización al proceso de cambio*,artzelona: Icaria.

¹⁷ Gaudichaud, F. (2010), *aipatutako artikulua*.

¹⁸ “Evo Morales: ‘Las ONGs usan a los pobres para vivir bien’”, *Público.es/Efe*, 2009/10/01.

¹⁹ Zibechi, R. (2010): *aipatutako artikulua*.

²⁰ Croniconek, Amerika Latinoko Behatoki Sozio-politikoak (www.cronicon.net), Héctor Mondragóni, Kolonbiako ekintzaile sozialari, egindako elkarrizketa, 2010eko uztaila.

dituen neurrian, "bizimodu ona" lortzea bere aldaketa-proiektuaren funtsezko osagaia delako, Konstituzio berrian adierazten den bezala. Hartara, Bautistak esandakoa kontuan hartuta, baieztatu egin liteke Andeetako herrialdeko *"Estatuak ezarritako ereduaren eta agindutako etorkizunaren arteko eztabaida duela"*²¹. Alde horretatik, tentsio asko sortzen dira gobernuen eta mugimendu sozialen artean, kolokan jartzen dutelako aberastasunaren birbanaketa sozialaren aldeko hazkuntza ekonomikoak ingurumenen eta herri indigenen eskubideetan eragina eduki dezakeen ala ez eta "bizimodu onaren" logikak herritar guztientzako aurrerakuntza mugatu dezakeen ala ez. Gure aldetik, bat gatoz Houtartekin, honako hauxe esaten duenean: *"pentsaera dialektikoa eduki behar da, irtenbideak orientatzeko: ez modernotasun kapitalistaren garapen lineala, ez iraganari begira dagoen fundamentalismo indigena, planeta eta herriak salbatzeko eskakizunak kontuan hartzen dituen orientazio berria baizik"*²².

Errealitatea eraldatzea: proposamenak eta erronkak

Nazioartean, ezkerren gaur egungo erronka handietakoa da proiektu ekonomiko alternatiboak eta errealistak aurkitzea. Horretarako, honako premisa hauek dituzte aukeran: tradizioaren arabera defendatutako balioak –herrialdeen eta gizarte-mailen arteko desberdintasuna murriztea eta desagerraraztea, demokrazia sozial eta ekonomikoa sustatzea eta ingurumenaren iraunkortasuna lortzea– eta proposamen erradikalak; esate baterako, jabetza pribatua mugatzea, erauzketa-eredua indarrrik gabe uztea, elikaduraren subiranotasunaren alde egitea, herrialde nagusietako behe-rapena bultzatzea, truke-balioa barik erabilera-balioa lehenestea, menderakuntzaren kode patriarkalak indarrrik gabe uztea, ekonomia feministaren eskemak sakon aztertzea, kanpo-zorra kitatzea eta zor ekologikoaren konpentsazioa eskatzea.

Guzti-guztiak indar-ideiak dira, eta, neurri handi edo txikiagoan, eraldaketa-proiektuak zeharkatzen dituzte gizarte-mugimenduen hausnarketaren esparruan. Edonola ere, zentzuzkoak badira ere eta "indar zein botere etikoa" badute ere, ez dira nahikoak: haustura-prozesu zehatzak ezarri behar dira interes antagonikoen arteko gatazkaren esparruan. Hori dela eta, badirudi ezinbestekoa dela Trotskyren "jabetza pribatuaren jabariko sarraldi despotikoak" sakon aztertzea. Izan ere, azkenean, badago kontsumo-ereduaren erabateko murrizketa eraginkortasunez orokortzerik, ekoizpen-bideen jabetzaren gune nagusiak aldatu gabe eta botere-harreman inperialistak hautsi gabe?

Horrela, bada, proposamen alternatiboak ezin dira botere-harremanetatik eta gobernu-eremuak lortzeko premiatik baztertu. Beherapenaren ideia, esaterako, bi dinamiketara egokitu behar da, eta ibilbide labur, ertain eta luzeko erritmoak zein helburuak ere ezarri behar dira. Horretarako, ezinbestekoa da iparraldeko eta hegoaldeko gizarte-mugimenduek indarra eta presioa egitea. Era berean, garrantzitsua bide da sistema

²¹ Bautista, R. (2010): "Las venas abiertas del Estado", *Rebelión.org*, abuztuaren 19a.

²² Houtart, F. (2010): "Pueblos y 'sumak kawsay': Los indígenas y los nuevos paradigmas del desarrollo humano".

kapitalistako arkitektura politiko, ekonomiko eta juridikoaren aurrean gobernu progresistekin aliantza kritikoa eratzen jarraitzea: Inbertsio Aldeak Konpontzeko Nazioarteko Zentrotik (CIADI) irtetea –Munduko Bankuko Arbitraje Auzitegia da, eta Estatuen zein enpresa transnazionalen arteko auziak ebazten ditu–. Boliviako gobernuak orain dela hiru urte iragarri zuen neurri hori, eta badirudi Amerika Latinoko beste gobernu batzuek ere gauza bera egingo dutela, Ekuadorrek, esaterako²³. Bertan, hain zuzen ere, agerian jartzen da nola aurre egin behar zaion kapitalismoko armaduraren indarrari²⁴. Modu berean, elkartasun-sare global guztiek ITT-Yasuniren proposamena sustatu beharko lukete –hau da, petrolioia lurpean uztea eta ez eraztea, ustiatzean lortuko lirakeen mozkinen erdiaren baliokidea den fideikomisoaren truke–. Prozesuaren zailtasunak zailtasun, Ekuadorko gobernu aurrera eramaten ari dela esan beharra dago²⁵.

Zentzu berean, ezinbestekoa da nazioarteko eta nazio indarrak eta tokian tokiko, eskualdeko eta nazioarteko aliantzak ados jartzea, enpresa transnazionalak desegiteko eta irismen luzeko ekonomia solidario eraginkorrak eratzeko moduko eredu alternatiboak ezarri ahal izateko. Azken finean, politika sozialetarako diru-sarrerak sortu eta korporazio handiak baztertzen dituzten politika ekonomiko alternatiboetan sakontzeko aukera egia bihurtu dadin, ezinbestekoa da gizarte-maila menderatzailearekiko borrokak irabaztea. Horretarako, behar-beharrezkoa da hegemoniaren aurkako sareak eratztea: esparru globalak, nazionalak eta tokian tokikoak eduki behar dira kontuan, zuzenbide ofiziala menderakuntza-egitura hegemonikoaren osagaia dela eta, hegemoniaren aurkako tresna izateko, ekintza politikoari men egin beharko diola jakinda. Gure ustez, arlo juridikoa aldatzeko eta korporazio handien kontrolerako sistemak ezartzeko edozein prozesu ezin izango da arrakastatsua izan, mobilizazio sozial eta sindikalaren babesik ez badu²⁶.

Ikuspegi internazionalistatik, Espainiako Estatuko ezker sozial eta politikoko erakundeek zeresan handia izango dute Amerika Latinoan garatzen ari diren prozesu horiek sustatzeko orduan. Eskualdeko gobernu progresisten erabakiak *lex mercatoria*-ren babes osoa edukitzen jarraitzeko asmoz korporazio transnazionalek egindako presio-indarren korrelazioaren emaitza badira, ekintza-lerro politikoetako izan beharko litzateke Espainiako multinazionalen boterea murrizteko eta Espainiako diplomaziak zein gobernuak konpainia horiei ematen dieten baldintzarik gabeko laguntza desagerrarazteko eskatzea. Alde horretatik, oso kontuan hartu beharreko bi arlo daude: lankidetzak-politikak eta alde biko itunen negoziazioa. Biak, hain zuzen ere, indar handiz bultzatzen ditu Espainiako Estatuko gobernuak.

²³ "Ecuador pone fin a tratados bilaterales de inversiones", *BBC Mundo*, 2010/09/16.

²⁴ Teitelbaum, A. (2010): *La armadura del capitalismo. El poder de las sociedades transnacionales en el mundo contemporáneo*, Bartzelona: Icaria.

²⁵ Aguirre, M. (2010): "¡Salvemos el Yasuni de las petroleras! ¿Golpe de timón en Ecuador?", *El Viejo Topo*, 270-271.

²⁶ Hernández Zubizarreta, J.; González, E. eta Ramiro, P. (2009): "Los movimientos sociales y sindicales ante la RSC: propuestas de intervención frente al poder corporativo" in Hernández Zubizarreta, J. eta Ramiro, P. (ed.): *El negocio de la responsabilidad. Crítica de la Responsabilidad Social Corporativa de las empresas transnacionales*, Bartzelona: Icaria.

Lehenengo eta behin, badirudi beharrezkoa dela seriotzat hartzea garapenerako lankidetzak hegoaldeko herrialdeetako politika ekonomikoetan daukan zeresanari buruz eztabaidatzea. Bolivian, esate baterako, lankidetzak kanpokoek herrialdeko ekonomian esku hartzeko tresna moduan erabilitako tresna izan da neurri handi batean²⁷. Lankidetzak zentralizatua hainbat arlotara iritsi da: garapen instituzionala, hezkuntza, mikrokredituak... Horren guztiorren ondorioz, Boliviako Estatuak harrapatu zuen menpetasun-sarea eratu zen, eta eragin handia sortu zen bere lankidetzak-programak abian jarri zituzten herrialdeetako politika publikoetan. Izan ere, duela zenbait urte José Manuel García de la Cruzek, Espainiako Kanpo Politikaren Behatokiko kidea, baieztatu zuenez, enpresa transnationalei laguntzea izan da Espainiako aldeko lankidetzaren osagai handietakoa²⁸. Espainiako Lankidetzarako gaur egungo Plan Zuzentzailean azaltzen denez, *“garapen-bidean dauden herrialdeetako sektore pribatuaren hedapena sustatu beharra dago, enplegua sortzeko moduko hazkuntza-prozesu egonkorrari eusteko. Horretarako, inbertsioaren aldeko giroa sortu behar da herrialdeetan, finantza-baliabide nazionalak mugitzeko eta kanpoko inbertsio pribatua erakartzeko”*. Alde horretatik, korporazioen gizarte-erantzukizunerako estrategiak erreferentziatzen hartuta, konpainia multinazionalak itun publiko eta pribatuak bultzatzen dituzte instituzio publikoekin eta GKE-ekin, are merkatu-aukera handiagoak eduki ahal izateko²⁹.

Bigarren, lankidetzak alde batera utzita, konpainia horien aldeko nazioarteko arkitektura diplomatikoaren eraketa nabarmendu beharra dago, Bolivian, esaterako, Bolivia eta Espainia arteko Inbertsioen Aldeko Ituna delako horren adierazgarri. Izen hori badu ere, ez da aldeko hitzarmena inondik inora, Hego Amerikako herrialdeak ez duelako inolako inbertsiorik Espainiako lurraldean. Hori dela eta, itun horren eta antzeko beste batzuen ezaugarriak nolakoak diren erakutsiz gero eta itunok hausteko presioa eginez gero –aipatutako ituna 2012ko uztailean amaituko da–, Boliviako gobernuak lotura bat gutxiago izango luke sistema neoliberalarekin.

Edonola ere, nazioarteko gaur egungo testuinguru kontuan hartuta –ez da batere egokia eraldaketa-prozesuei begira–, neoliberalismoari aurre egiteko dinamikez gain, ezinbestekoa da kontsultarako eta partaidetzazko demokraziarako prozesuen printzipioen arabera sortzea, zehaztea eta garatzea, zenbait proposamen eta itun instituzionalak laguntzean sortu daitezkeen zailtasun eta arriskuetatik haratago. Garapen-eredua eta demokrazia-eredua banaezinak direnez, erabakiak eztabaida-prozesuetan egon behar dira oinarrituta eta ez inposaketa-prozesuetan, eta, bertan, kargu publikoek zein instituzionalek partaidetzazko demokrazia erradikalari men egin behar diote. Badirudi agerikoa dela ezkerren erronka nagusia kapitalismoaren

²⁷ Rodríguez Carmona, A. (2008): *El proyectorado*,artzelona: Intermón Oxfam.

²⁸ Villegas P. (2010): “La desnacionalización del Estado boliviano y sus recursos naturales” in González, E. eta Gandarillas, M. (koord.), *Las multinacionales en Bolivia. De la nacionalización al proceso de cambio*,artzelona: Icaria.

²⁹ Ramiro, P. (2010): “Multinacionales españolas en América Latina: nuevas estrategias para extenderse a nuevos mercados”, *Pueblos*, 43. zk.

aurkako herri-hegemonia demokratiko berria eratzeko gai den subjektu politikoa sortzea dela. Dena dela, horretarako, funtsezkoa da oso-oso demokratikoa izatea eta gizarte-mugimenduen aldarrikapen zein funtzionamenduaren aberastasun guztia kontuan hartzeko ahalmena edukitzea³⁰.

Alde horretatik, ezkerreko erakundeek oso-oso kontuan hartu behar dituzte gizarte zibil antolatua res publikoari buruz duen kontzepzioa eta funtzionamendua. Hona hemen ekintza politikorako jarduera egokiak: gizarte-mugimenduen funtzionamenduaren horizontaltasuna eta autonomia, sareko lana, teknologia berrien erabilera alternatiboa, desobediencia zibila, lotura instituzionaletatik aske aurkezten dituzten alternatibak –ez daude adostasun, hitzarmen eta transakzioen baldintzapean, beste esparru horietan ohikoak diren arren–, politika publikoei buruz dituzten proposamenen erradikalizazioa (esate baterako, mugimendu antimilitaristak industria militarra desagerrarazi nahi du), erabakiak hartzeko metodo moduan ezarritako eztabaidazko demokrazia...

Azken batean, proiektu politiko eta sozial alternatiboak abian jartzeko, ezinbestekoa da, besteak beste, gobernu progresisten eta gizarte-mugimenduen arteko nazioko, eskualdeko eta nazioarteko itunen eta indarren korrelazioa kontuan hartzea. Horrez gain, proposamen politikoetan, etengabeko kontraste soziala egin behar da, gaur egun erabaki politikoaren edukia bezain garrantzitsua delako erabaki hori hartzeko modua. Beraz, zeregin politikoa aliantza sozialen menpe egon beharko litzateke, besteak beste. Era berean, hitzarmen zein erabaki instituzionaletan, kontraste soziala egin beharko litzateke, edo, gutxienez, gizarte-mugimenduak suspertu eta pentsamendu kritikoa sortu beharko litzateke, aldeko hautesle-taldea bakarrik eratu beharrean. Izan ere, azken finean, kapitalismoa eraldatzeko eta suntsitzeko, interes kontrajarrien arteko erabateko gatazka gertatu behar da, eta, horretarako, oso-oso kontuan hartu behar da pertsonen ongizate zehatza, baita egiturazko botere-harremanak aldatzeko sortutako gaitasuna ere. "Besterik gabeko" eraldaketak egoeraren araberakoak baino ez dira, eta, horrez gain, ezarritako ordena indartu eta gizarte-mugimenduen desmobilizazioa sortu dezakete.

Bolivia, Ekuador eta Venezuelako gobernuak hartutako erauzketa-orientazioa kritikatzeko duten erakunde indigena eta ekologista boliviarrak, ekuadortar eta venezuelarrek zilegitasunik ez badute, prozesuaren kalterako izan daiteke, nolabait esateko, batzuek aldaketa-prozesuak sustatu dituztelako eta, euren aldarrikapenen bidez, subiranotasun handiagoko legeak nahiz politikak lortu nahi dituztelako. Hain zuzen ere, 52ko Iraultzaren ostean Bolivian egindako errakuntzak hartu ditzakegu adibide moduan, gaur egun ikasbidea atera nahi izanez gero³¹: Raúl Pradak, Boliviako Plangintza

³⁰ Ordezkariek herri-galdeketa bidez hautatzea, zerrenda irekiak egotea, hautagaien agintaldiak mugatzea, zuzendaritza-postuetan txandaketa egitea, emakumeek ordezkartza-postuetan agerpen instituzionalizatua izatea, hauteskunde-programen prestaketa demokratikoa izatea eta, bertan, gizarte-mugimenduen parte hartzea, erabakiak hartzean barne-demokrazia kontuan hartzea, gutxiengodunak errespetatzea... Horiek guztiak ordezkartza-demokrazia zuzentzeko funtsezko mekanismoak dira, eta oinarrikoak dira, ahalik eta zilegitasun sozial handiena lortzeko orduan.

³¹ 52ko Iraultzak Mugimendu Nazionalista Iraultzailearen (MNR) gobernu-epeldia zehaztu zuen, 1952ko apirillean meataritzako eliteak garaitu zituen matxinada zuzendu ondoren. Epealdi horretan, nekazaritza eraldatu zen, meataritza nazionalizatu zen eta boto unibertsala lortu zen, besteak beste.

Estrategikoko ministroordeak, baieztatzen duenez, garai hartan gobernu progresistak *"atzera egin zuen apurka-apurka, arlo batzuetan borrokatu zen, beste batzuetan amore eman zuen, non aurre egin zezakeen eta non etsi zezakeen zehatz-mehatz aztertu ondoren. Funtzionarioak egoeran bertan eta eguneroko bizimoduan zeuden harrapatuta, zeregin errepikagarrietan, negoziatio-mahaletan eta politika publikoen eta nagusi ziren nazioarteko harreman gorabeheratsuen izapide molekularrean*³²". Gainera, bere buruari galdetzen dio gobernariak konturatu ziren itzulerarik gabeko puntu hartara iritsi zirela.

Hain zuzen ere, uste sendo handiak gogoraraztea, itzulerarik gabeko puntua zein den zehaztea da gobernu progresistei laguntzen dien gizarte-mugimenduen lehentasunezko eginkizunetakoa. Gizarte-mugimenduen funtsezko zeregin hori argi eta garbi laburtzen du Ari Albertik, Baztertuen Oihuko kideak: *"Gobernuak [brasildarrak] ia-ia bi urte hauetan erakutsi du ezin izango duela erreallitatea aldatu, borondate ona eduki arren. Goiko presioa handi-handia da, barrukoa nahiz kanpukoa. Gauzak aldatu daitezten, herri antolatuen behetik gorako presiorik egiten ez badu, ez da ezer gertatuko. Itxaropena desagertu eta frustrazio bihurtuko da*³³".

Azkenean, iparraldeko eta hegoaldeko eraldaketa-subjektuen arteko aliantzetan, berdintasunezko harremanak egon behar dira, "txeke zuriak" baztertu behar dira eta harreman politikoak joan-etorrikoak izan behar dira. Horrez gain, iparraldeko erakundeen laguntza prozesu iraultzaileetan egon behar da oinarrituta eta ez sigla zehatzetan. Dena dela, hemendik egia bihurtu ahal izateko, ezinbestekoa da gure gobernuari aurre egitea eta enpresa transnazionalekin zein eredu kapitalistarekin duten konplizitatea salatzea. Nolanahi ere, Bensaïdekin bat gatoz honako hauxe dionean: *"milurteko berriaren atarian, inoiz baino beharrezkoagoa da hondamendirantz doan mundua aldatzea, baina inoiz baino zailagoa da etorkizuneko iraultzak nolakoak izango diren iragartzea*³⁴".

³² Prada Alcoreza, R. (2010): "Tiempo político y decadencia", *Cambio*, 2010eko irailaren 15a.

³³ Zibechi, R. (2004): "El gobierno de Lula entre dos aguas", *Viento Sur*, 76. zk.

³⁴ Bensaïd, D. (2009): *aip. lana*.

Bolivia: Nazio Anitzeko Estatu berria eta bertako baliabide estrategikoen berreskurapena

Ramiro Lizondo Díaz¹

1. Herrialdearen oinarri materiala, bere garapenerako baldintza

Gaur egun Boliviako Nazio Anitzeko Estatuaren kokagunea den lurraldean, inken aurreko kulturak bizi ziren, eta Altiplanoko goi-lurretan, lautadetan zein Andeen arteko bailaretan garatu ziren. Kolonurreko kultura andetarrek metalezko teknologia, zeramika zein abeltzaintza garatu zituzten, eta, biztanle ugari zituztenez, aldaketa ekonomikoak egin zituzten. Era berean, egitura sozial eta gizarte-maila konplexuen bidez antolatu zuten lurraldea. Inkek truke-ekonomiarekin lotutako ekoizpen-sistema ezarri zuten, eta, egitura sozial, politiko eta erlijiosoak garatu zituztenez, ondasunak zein zerbitzuak banatzen zituzten merkataritzakoa ez zen sistemaren bitartez. Horrela, bada, ongizatea nahiz aberastasuna sortzen zituzten. Euren antolakuntza larderiazkoa bezain hierarkikoa zen, eta berdintasunaren zein justiziaren printzipio arrazionaletan zegoen oinarrituta. Euren hizkuntzaren, kitxuaren, nagusitasuna hedatu zuten, eta, lautadak konkistatu nahi zituztenez, lurralde horietako biztanleekin borrokatu ziren. Lautadetako jatorrizko nazioak ez ziren harremanetan jarri ez erregimen kolonialarekin ez Errepublikarekin, harik eta XX. mendea hasi-hasita egon arte².

1532an espainiarrak iritsi zirenean, mendeen joan-etorrian eskualdean ondo ezarritako antolakuntza desegituratu zen, eta egitura politiko zein instituzional berria ezarri zen, berriztagarriak ez ziren baliabide naturalen ustiapenean oinarrituta. Euren helburuak betetzeko asmoz, konkistatzaileek lurraldea antolatu eta hiriak sortu zituzten gune estrategikoetan. Aldi berean, lana eta zergak kontrolatzeko mekanismoak ere jarri zituzten abian (Klein; 1987: 50). Espainiako erregimen kolonialeko ekoizpen-antolara meatzaritzaren inguruan garatu zen. Urrea eta zilarra bilatuenak

¹ Ramiro Lizondo Díaz ekonomialaria eta Boliviako Nazio Anitzeko Estatuaren Presidentetzako Ministerioko Plangintzako zuzendaria da.

² Klein, Herbert. Historia General de Bolivia. 2. edizioa. Librería Editorial "Juventud", La Paz, 1987. 19-39. or.

izan ziren. Zehatz-mehatz ustiatu nahi zituztenez, zenbait erauzketa-metodo garatu zituzten, ekoizpena eraginkorragoa izan zedin.

Horrela, bada, Boliviako egitura ekonomiko eta sozial konplexua XVI. mendeko konkista espainolean bertan hasi zen eratzen. Potosiko Cerro Ricoko zilarraren ustiapenak Goi Peru zenaren eta Bolivia izena hartu zuenaren bilbadura sozial eta ekonomikoaren itxuraldaketak baldintzatu eta zehaztu zituen³. Garai hartan mendebaldeko hemisferioko handiena zen zilar-meategi horren ustiapenak geopolitika koloniala zehaztu zuen, eta erregimenari eutsi zion. Zilarraren inguruan ehundutako sarearen ondorioz, baliabide horien merkataritza Itsaso Bareaan zein Atlantikoan zehar sustatu zuten sateliteak izan ziren Lima eta Buenos Aires.

Zilarraren ustiapenak nekazaritzako zein abeltzaintzako ekoizpena, kokaren ekoizpena, merkataritza eta zerbitzu orokorrak egituratu eta zehaztu zituen "Andeetako eremuan". Lanindar behartua bertara joan zen, Mitaren instituziopean. Horren arabera, urtero 13.000 indigenak euren erkidegoak utzi behar zituzten, Potosiko meategietan lan egiteko, erregimen kolonialari ordaindu behar zizkioten zergen truke (Muñoz; 2004: 63).

Hainbat eta hainbat ondasun eta zerbitzu behar zituzten, meataritzako makineria abian jartzeko. Horren ondorioz, XVI. eta XVII. mendeetan, Boliviako errepublika izango zenaren meataritza-gizarte feudalaren ezaugarriak zehaztu ziren. Zenbait mendetan, meataritzak gizarte-maila menderatzaileen buru-egitura marraztu eta sendotu zuen. Dirutza azkarrak zainen eta euren agorpenaren menpe zeuden. Meataritzaren bitartez, baliabide naturalak ustiatzeko lurralde zabalen ekoizpen-bokazioa egituratu zen.

Errepublika Liberala sortu ondoren, Boliviako egitura ekonomikoak lurraldeko oinarri material ugaria zuen bizibide. Mita eta zergen ordainketa desagertu ziren. Dena dela, handik gutxira, antzinako kolonizatzaileen seme-alabak konturatu egin ziren ez zegoela errepublika abian jartzetik, indigenek zergarik ordaintzen ez bazuten. Zerga-sistemaren izena aldatu eta modernizatzen ahalegindu ziren. Mende batetik gora iraun zuen lehen epealdian, indigenen zergak izan ziren errepublikaren euskarria.

Plattek honako galdera hau egin zuen: nolako Estatua ote zen, ehun urteko errepublikaren euskarri nagusia indioek indioak izateagatik ordaintzen zuten zerga bazen? Xehetasunez azaltzen digu nola biltzen ziren zerga horiek. Potosiri dagokionez, gainera, departamentuko diru-sarreraren %95 ziren. XVIII. mendearen amaieran, kurakek (agintari indigenek) kobratzen zituzten. 1874ko, 1879ko eta 1880ko leheen ondorioz, faktore horiek are erradikalagoak izan ziren, eta inosatutako betebeharrak %20-%30 igo ziren. 1900. urteaz geroztik, zerga-bilketa erremate publikoaren bidez egiten zen, eskaintzaren eta eskariaren arabera. Izan ere, larregikeriak eta irainak legezko egitea zen helburua. Horretarako, indioen agintari naturalak gutxietsi eta euren jatorrizko lurretatik bota zituzten. Erregimen liberalak iraun zuen 20 urteetan, mila bat erkidego

³ Muñoz Elsner, Diego. Políticas públicas y agricultura campesina. Encuentros y desencuentros. International Institute for environment and development-IIED. Plural editores. La Paz, Bolivia. 2004. 62. or.

etxaguntza bihurtu ziren⁴. Oso goiz, lurraren auzo-jabetza pribatizatzen hasi ziren, eta 1952ko Iraultzak berrezarri egin zuen.

Errepublikaren hasieran, meatzaritzako sektorea deskapitalizatuta zegoen. Ekonomia berrantolatzeko eta garatzeko, bertan behera utzitako meategi guztiak nazionalizatu ziren, eta atzerriko kapitalistei egin zieten meategiok ustiatzeko gonbita. Hala ere, ekoizpen-kostuak handiak zirenez eta azpiegiturarik ez zegoenez, ez ziren batere erakargarriak inbertsioaren aldetik. Kostu handiena esku-lanarena zen, Mita indarrik gabe uztean. Hori dela eta, soldata handiak ordaindu behar ziren, landa-inguruneko langileak erakartzeko⁵.

Zilarraren ekoizpena bat-batean gelditu zenez, 10.000tik gora meategi txiki eta ertain itxi behar izan zituzten XIX. mendearen amaieran⁶, eta zilar-meatzaritzatik eztainu-meatzaritzara emandako iragaitza XX. mendearekin batera etorri zen. Boliviako eztainu-industriaren hazkuntzak zilarraren meatzaritza modernoko teknikak eta aurrerakuntza teknologikoak heredatu zituenez, Boliviako gizartearentzat nahikoa erraza izan zen zilarretik eztaunura igarotzea. Latorriaren industria, industria arinerako beharrezkoa zen soldadura eta elikagaien kontserbaziorako teknologia berriak hedatzean, eztainuaren nazioarteko merkatua handitu egin zen.

Epealdi kolonialean zilarraren ustiapena eta Errepublikaren epealdian zilarraren zein eztainuaren ustiapena bultzatzean, batez ere meatzaritzakoa zen ekonomia garatu zen. Lanindarraren okupazioa intentsiboa zen, eta egituraketa gutxi zeuden meatzaritzarekin lotura zuzenik ez zuten beste ekoizpen-sektore batzuekin. Dena dela, XX. mendearen hasieran, eztainuaren meatzaritzak sendotu egin zituen herrialdeko berezko ekoizpen-harreman kapitalistak⁷.

1929ko krisiak Amerika Latinoko herrialde guztietan eduki zuen eragina, eta, arazoak konpondu nahian, industrializazioa eta kapital nazionalentzako pizgarriak ezarri zituzten. Eztainu-ekoizpenagatik sortutako irekieren ondorioz, Bolivia ekoizpen bakarreko herrialdea zen. Izan ere, horrelaxe sartu zen munduko sare kapitalistan. Antzinako isolamendua erabateko menpetasun bihurtu zen.

XX. mendeko 30eko hamarkadaren hasieran, petrolio beste faktore erabakigarri bat izan zen herrialdeko ekonomian eta historian. Bi transnazional ustiapena lortzeko lehiatu ziren: New Jerseyko Standard Oil, Boliviako lurraldean; eta Royal Dutch Shell britainiar-holandarra, Paraguain. Lehia horien ondorioz, bi herrialdeek Hego Amerikako gerra txarrenari eman zieten hasiera: Chacoko Gerra (1932-1935).

⁴ Platt, Tristan. Estado Boliviano y Ayllu Andino: tierra y tributo en el Norte de Potosí. Peruko Ikaskuntzen Institutua, Peru. 1982.

⁵ Arce Aguirre, René. Breve Historia de Bolivia. Ed. Universidad Andina Simón Bolívar. Sucre-Bolivia. 1996. 40. or.

⁶ García Linera, Álvaro. "El número de trabajadores mineros se incrementará. De 3.000 trabajadores en 1900 se pasará a 13.147 en 1910; a 21.813 en 1920, 26.353 en 1935 y 50.000 en 1940". La Condición Obrera. Estructuras materiales y simbólicas del proletariado de la Minería Mediana (1950-1999). IDIS-UMSA. Comuna. La Paz, 2001. 83. or.

⁷ Prada A., Raúl. Las Armas de la Utopía. Marxismo: Provocaciones heréticas. Las Armas de la Crítica en la Ontología de la Praxis. CIDES-UMSA. Ed. Punto Cero. La Paz. 1996. 177. or.

Gerrako galeren ondorioz, suaz markatu zen herrialdean egiturazko aldaketak egin behar zirela. 65 milatik gora hildako egon ziren bi milioiko biztanleen artean. Beraz, Europako potentziek Lehen Mundu Gerran izandako beste giza galera gertatu ziren (Klein; 1987). Gerraren ondorioz, sekulako bira eman zuen Boliviako historia ekonomikoak, sinesmenen ohiko sistemak suntsitzean eta Boliviako gizartearen izaeran zein Estatu nazionalen pentsatzean. Gerraren ostean, zilegizko asmo "nazional-popularra" eta erkidego indigenena bide zen meategiak (Almaraz; 1980) eta meatzaritzako oligarkia feudalen kontrolpeko lurak nazionalizatzea. Hori guztiori irmo-irmo finkatu zen intelektual zuri eta mestizoen kontzientzia politikoan, are gehiago Chacoko Gerran biztanle indigenek euren odol-kuota jarri zutenean.

Gizartean benetan uste zuen gerraren helburua Standard Oil konpainiaren interesak defendatzea izan zela eta ez zegoela garapen nazionala lortzerik Estatuak baliabide zein aberastasun nazionalak ustiatzen ez bazituen. Beraz, ezin ziren Standard Oil eta beste transnazional batzuen esku egon, ezta eztainuko baroien esku ere, meatzaritzako ustiapenaren ondorioz sortutako irabazi guztiak atzerrira eramaten zituztelako.

Chacoko Gerraren ondoren, 1952ko Iraultzak bazterketaren zein espoliazioaren oinarrian eratutako Estatuak zimendu ahulak hautsi zituen.

2. Estatu populista eta 1952ko Iraultza Nazionala

Iraultza Nazionalaren ondorioz, Boliviako erregimen errepublikarraren prozesu historikoa hautsi zen, eta gizartea, ekonomia, instituzioak eta lurraldea berrantolatu egin ziren⁸. Gerra Zibileko haustura historikoan, langileek, nekazariek eta gizarte-maila ertainek garaipen militarra lortu zuten 1952. urtean. Hori dela eta, botere ekonomikoa eta politikoa mugiarazi zen toki, eskualde eta nazio mailako arloetan, eta, gehiengoa izan arren, ordura arte baztertutako eragile sozial berriak sartu ziren modu formalean: biztanle indigenak.

Zenbait urtez, Bolivia munduko bigarren eztainu-ekoizle handiena izan zen, eta, iraultza nazionalaren aurretik eta ostean, eztainu-meatzaritzako soberakinek Bohan Plana eta "Ekialderako Martxa" finantzatu zituzten. Kontraesana badirudi ere, 1952ko Iraultza Nazionalaren ondorioz, AEBek sustatutako politika ekonomikoa ezarri zen: Bohan Plana.

Plan horren arabera, garapen agroindustrialia sustatu behar zen herrialdeko ekialdeko eskualde edo lurraldean, bere ezaugarrien arabera oso leku egokia zelako, esportaziorako laborantzak garatzeko: azukre-kanabera edo kotoia, esaterako. Horrez gain, abeltzaintza industrialia ere garatu behar zen. Horretarako, 1952an nazionalizatutako meatzaritzaren ondorioz sortutako soberakinen zati handi bat erabili behar zen, bide zein trenbide arloko azpiegiturak garatzeko eta eskualde zabal hori herrialdeko

⁸ Vargas, John. Problema agrario y desarrollo nacional. Umbrales. Garapen Zientzietako Graduatu Ondoko Aldizkaria. 13. zk. CIDES-UMSA. La Paz. 2005eko abendua. 83. or.

mendebaldearekin bat egiteko. Politika ekonomiko horren izena “Eki alderako Martxa” izan zen. Hona hemen bere helburu nagusiak: batetik, ekonomia nazionala dibertsifikatzea eta herrialdeko gaitz guztien erruduna omen zen lehen mailako esportazio-matrizea aldatzea, eta, bestetik, herrialdea modu fisikoan integratzea, Errepublikaren sorreratik ez zelako halakorik lortu.

Tresna agroindustrialaren garapenean, lurraren jabetza pribatua oinarritzko baldintza zen, garapen-baldintzak eta herrialdearen egituraketa fisikoa lortzeko. Garapen hori, gainera, Estatu nazional-populista sustatu zuen, eta nazionalizatutako lehen mailako meatzaritza-ekoizpeneko soberakinak erabiltzen zituen, herrialdeko ekialdeko ekoizpen-azpiegitura garatzeko eta ekonomia nazionala dibertsifikatzeko.

Estatuak bete-betean parte hartzen duen ekonomian, oinarritzko industrietako eta industria estrategikoetako enpresa askoren kudeaketa estatalaren bitartez. Horretarako, zenbait erakunde estatal sortu zituen; esate baterako, Boliviako Sustapen Korporazioa, Boliviako Meatzaritza Korporazioa eta Boliviako Petrolio Hobi Fiskalak, handienak aipatzearren.

1957. urtean, Nazioarteko Diru Fondoak egindako “Egonkortasun Plana” ezarri zen, soldata-masa murrizteko eta 1952ko Iraultza Nazionalaren ondorioak gutxitzeko, XX. mendeko bigarren zatian Boliviako Langileen Zentraleko (COB) ardatza zen Boliviako Meatzarien Federazio Sindikala (FSTMB) desagitean eta 6.000 meatzari iraitzean. 1964. urtean, militarrek estatu-kolpea eman zuten, eta 18 urte iraun zuen. Epealdi horretan, ordea, Iraultza Nazionaleko aurrerapenak ezeztatu zituzten (Klein; 1987: 239).

Estatuak ekonomian parte hartzeko eredia agortu egin zen, honako faktore hauen ondorioz: Estatuaren gairantsionamendua, ustelkeria, berrinbertsiorik eza eta meua ustiatzeko prezioen 1983ko beherakada.

3. Boliviako Estatu neoliberala

Hori horrela izanik ere, gure historia ekonomikoko etapa desarrollista herrialdeko jardun eta ongizate sozial onena izan zen. Antzinako Estatu eragile handia zen epealdi horretako ekonomian. Edonola ere, eredia agortu egin zen, Estatu desarrollista eta nazional-populista Estatu prebendala zelako eta Estatu enpresak txarto kudeatzen zituelako. Soberakinak sortzen zituzten enpresetan ez inbertitzean, esportaziorako lehengai nagusiak arbitrariotasunez eta babeskeriaz erabiltzean eta euren prezioak jaistean, behar den moduko baldintzak sortu ziren, 80ko hamarkadatik Egiturak egokitzeko Programak bete-betean ezartzeko.

Eredu hori porrotera eraman zuten eragileek modari eta Washingtongo analisten aginduei eutsi zieten berehala. Neoliberalismoa iristean, gobernu horietako buruzagi askoren eta zenbait enpresatako enpresarien zein akziodunen onurarako izan zen Estatu enpresen pribatizazioa. Estatu enpresa gehienek likidazioa sustatu zuten Munduko Bankuak finantzatutako pribatizazio-estrategiaren bitartez, esku ikusezinak merkatua arautzen duelakoan eta Estatu ekonomiaren “berezko” dinamika

itxuraldatzen zuen eragilea zelakoan. Logika horren arabera, pribatizaziorako politikak eta programak ezartzen hasi ziren.

Estatua txikiagotu beharra zegoen, eta ez dugu ongizate-estatuaz hitz egiten. Izan ere, 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetako politika desarrrollista eta nazionalisten asmoa izan zen Amerika Latinoan, eta euren hedapena garai hartako politika publikoen barruan zegoen sartuta. Eredu hori, ostera, 80ko hamarkadan amaitu zen, eta askotan Bolivian shock-neurrien bidez ezarritako neoliberalismoak joera berria zehaztu zuen, Estatuak eta epealdi desarrrollistan lortutako aurrerakuntzak desagitea zeukalako helburu. Horrela, bada, Estatuak bere subiranotasuna galdu zuen, edo subiranotasun partziala erdietsi zuen apurka-apurka, enpresa pribatuen eta kapital transnazionalaren mesedetan. Estatu berriek ezin zituzten arauketa-eginkizunak bete, aro neoliberalerako ahulezia instituzionala handia izan zelako.

Bolivian, esaterako, eredu neoliberala ezarri zenean, herrialdea eta bertako ekonomia tertziarioak izan ziren, inbertsiogile espekulatzailen irabazien tasak bermatzeko eta, enpresa pribatuen mesedetan, enplegua ezegonkortzeko eta lan-eskubideak galtzeko.

Epealdi horretan, ekonomiako jarduera tertziarioekin lotutako eragile sozial handiak agertu ziren, gremioetako merkatariak, garraiolariak eta meatzaritzako kooperatibistak, alegia. Era berean, kolonizatzaileek eta euren ordezkariak ziren erakundeek zeresan handiagoa izan zuten, giza talde handiak mugitu ziren eskualde batzuetatik beste batzuetara eta jarduera ekonomiko batzuetatik beste batzuetara. Ekonomia tertziarioa egin zen. Amerika Latinoan, ongizate-estatu ez zen behar bezala sendotu, eta, neoliberalismoa agertzean, langileen eskubide sozialen kalterako politikak egin ziren.

Inbertsiogileek eta enpresari pribatuek irabaziak lortzeko zilegizko premia zeukatenez, hori egiten zekitenak edo horretarako bokazioa zeukatenak hasi ziren aberastasuna eta enplegua modu automatikoan sortzen. Are gehiago, Estatuak aurreko Konstituzio Politikoak eta arauzko esparruak ekonomia pribatua ziurtatu edo lehenetsi egiten zutenean, enpresariak eta kapital transnazionala babesteko, Estatuak enpresez iruzurrez eta eragin-sare zabal bezain sofistikatuz jabetu zirenak kontuan hartuta.

Betiko moduan, orduan ere lanindarra izan zen egokitzapenerako aldaera. Hori dela eta, milaka langile boliviarrak enplegu-iturririk gabe geratu ziren, eta, 80ko hamarkadatik aurrera, talde sozial handiak ekonomiako sektore tertziarioa igaro ziren, merkatari txikizkari, garraiolari, meatzaritzako kooperatibista edo koka-hostoak ekoizten hasi ziren nekazaritzako kolonizatzaile moduan. Sektore horiek pribatizatzeke, desregulatzeko eta Estatuak desagiteke neurrien ondorio nagusia izan ziren.

Printzipioz, aberastasuna sortzeko erantzukizuna euren gain hartzean, bazirudien kapital transnazionalaren arabera egituraturako enpresari pribatua, Estatuak izandako enpresetako arduradunak, enplegua sortzeko gai izango zirela eta lehiakorrek izango zirela euren ustez enpresen intereserako esparru naturalak ziren merkatuetan.

Agerikoa zenez, ordainetan, lana malgutu eta ezegonkortu egin zuten, lekualdaketa sustatu zuten, eragiketa-baldintza monopolikoak garatu zituzten, errentagarriak ez ziren zerbitzuak kendu zituzten eta jendearentzako zerbitzuen zein prestazioen kalitatea murriztu zuten. Oro har, ez zituzten azpikokopean egindako kontratuetako inbertsioak gauzatu. Pribatizazioaren onuradunak izan ziren enpresari boliviarrak eta atzerriko inbertsiogile askok ez zuten inolaz ere erakutsi ideal edo printzipio neoliberalaren arabera kapitalistek eduki behar omen zuten etika eta espiritua. Gehienak lapur hutsak ziren, eta erabateko zigorgabetasunaz jokatu zuten antzinako Estatuaren babespean.

Jabetza estatala likidatutakoan, bazirudien neoliberalismoak hazkuntza sustatuko zuela Estatu txikiaren laguntzaz eta Estatu horrek inbertsioak arautu edo bermatuko zituela, eta, horren ondorioz, "enpresariak" nahiz inbertsiogileek itxarondako irabazien tasak eta mozkinak ere bai. Prozesu hori arrakastatsua izango zen jario-mekanismoaren bidez, eta mozkinak gizartearen gaineratikoari helduko zitzaizkion, bizi eta lan baldintza hobeen bitartez. Aro neoliberallean 20 urtez bizi ondoren, froga materialak daude esateko enpresari horiek eta euren aliatu transnazionalak ezin izan zutela inolako ongizate-baldintzarik sortu. Gainera, egia esan, adierazle makroekonomiko guztiak kontuan hartuta, egokitzapen-politikak ezarri baino lehenago zeuden baino baldintza txarragoetan jarri gintuzten herrialde moduan.

Zenbait enpresari pribatuk "enpresari gortesauen" zeregina kritikatzeko zuten, Estatuaren prebendetatik bizitzen ohituta zeudelako. Dena dela, aldi berean, enpresari "berri" horiek laguntza handiagoa eskatzen zioten Estatu berriari, merkatuak aurkitzeko, kreditu-lerroak garatzeko, diru-laguntzak handitzeko (erregaien horniduran egindakoak, esaterako), enpleguaren eta aberastasunaren sorkuntzarako zerga-onurak eskatzeko edo euren inbertsioetarako "segurtasun juridikoa" eskatzeko. Eurentzat, Estatuaren euren mesederako agentzia zen artean, euren irabazien iturria eta berme-emailea, munduko finantza-fluxuetan eta ekonomian sartzeko bitartekoa edo mekanismoa, alegia.

Gure historian zehar, jabetzak, aberastasunak, balioak eta eskubide publikoak desjabetu dituzte euren mesederako, Estatuarekin berarekin harremanetan jartzeko. Gizarte osoarentzako ongizate-baldintzak sortuko zituztelakoan, antzinako Estatuaren desegin zuten berberak Estatu berriari eta gobernu berriari eskatzen zizkieten ekoizteko, eragiketarako egiteko eta lehiakorragoak izateko baldintza, mekanismo, baliabide eta "giro" hobekak.

Neoliberalismoaren eta Estatuaren enpresen pribatizazioaren ondorioz, ekonomia tertziarioa eta parasitarioa heredatu genuen, eta, enplegua malgutu ez ezik, ezegonkortu ere egin zuten. Lan-eskubideak, pentsio-sistemak, osasun zein hezkuntza sistemak ezeztatzean, lana malgutzean..., Estatuaren ondarea besterendu zuten herrialdeko enpresariaren eta transnazionalen mesedetan. Estatuaren instituzionalitateak ekonomiaren sektore pribatuari transferitu behar zion aberastasuna.

4. Hazkuntza-paradigmaren eta arrazoi antropozentrikoaren kritika

Klasikoek XVIII. mendearen amaierako eta XIX. mendearen hasierako garapenari buruz duten ikuspegia modernotasunaren printzipioetan eta iraultza industrialaren ondorioz sortutako ekoizpen-sistemako aldaketetan dago oinarrituta. Errealitatera hurbiltzeko beste prozesu batzuen aldean, arrazoia eta jakintza zientifikoa garaitu zirenez, gizartea eta naturarekin zeuzkan harremanak ulertzeko modu berezia sendotu zen. Industrializazioaren ondorioz sortutako eraldaketa-gaitasun handi-handiek egiaztatu egin zuten bazegoela aurrerapen unibertsalaren terminoetan pentsatzerik eta bazegoela aurreko epealdietako ezkortasuna zein konformismoa baztertzetik, intuizioan edo erlijioan oinarritutako munduaren azalpenak urriak eta nagusi zirenean⁹.

Alde horretatik, Ilustrazioa izan zen lehendik zeunden pentsamenduaren mugak apurtu zituen. Izan ere, arrazoi zientifikoaren emantzipazioa eta iraultza Industrialia bultzatu zituen, giza ongizatearen lorpenerako beharrezkoa zen guztia sortzeko aukera moduan. Gizakien zerbitzura zegoen naturaz ari ziren.

Gizakien eta naturaren arteko harremanen ardatza antropozentrikoa zen, eta, bertan, natura bera zientziaren zein teknikaren bidez menderatuz gero, aurrerapena eta garapena lortuko lirateke. Tokian tokiko jakitateak eta sinismenak, ekoizpen-sistemak eta naturarekiko harremana modernoak ez zirenez, gainditu egin behar ziren. Oro har, garapen-kontzeptuaren murrizketa eta garapen-nozio alternatiboa sortzeko premia zeuden kolokan; ondo bizitzea, esaterako.

Boliviako gaur egungo aldaketa-prozesuan, badirudi bi ideia kontrajarri daudela Nazio Anitzeko Estatu berriaren etorkizuneko garapenaren inguruan. Batetik, desarrollismo industrialista, lehen mailako ekoizpenaren kontrola eta soberakinak berreskuratu direlako; eta, bestetik, ondo bizitzea, lehenengoaren industrializazio-helburuaren aurkakoa bide den kategoria moduan. Izan ere, baliabide naturalen kopuru handi-handian dago oinarrituta, eta, etika liberalaren arrazionaltasunean, diru bihurtu daitezkeen baliabideak baino ez dira.

Dena dela, badugu arazo handiagorik, ezin dugulako gure zulo-pentsaera gainditu eta gure oinarri materialaren konfiskazio-logikatik irten, espoliazioaz betetako gure historian zehar beti gertatu zaigun bezala. Hala ere, kontraesanean erori gabe, munduko ekonomiaren bilakaera hartu behar dugu kontuan, eta geure zeregina bete behar dugu lanaren nazioarteko banaketan. Bolada batez, behintzat, ez dakigulako zenbat irau dezakeen, lehengaiak hornitzea dugu zeregin nagusi (oraingo).

Luzaroan, esportatzeko lehen mailako ekoizpenari eutsiko diogu. Beraz, nazioarteko prezioen eta lehengaien munduko merkatua kontrolatzen duten transnazionalen menpean egongo gara. Oraingo, gure erauzketa-eredua munduko merkatuarekin daukagun lotura da aldi berean. Termino krematistikoetan, gure ereduak soberakinak

⁹ Unceta, Koldo. Desarrollo, subdesarrollo, maldesarrollo y postdesarrollo. Una mirada transdisciplinar sobre el debate y sus implicaciones in *Carta Latinoamericana*. Uruguaiako Amerika Latinoko Ekologia Sozialeko Zentroaren (CLAES) argitalpena, D3E Programaren esparruan (Garapena, Ekonomia, Berdintasuna eta Ekologia). 2010.

sortzen ditu, eta, ondoren, gizartean nahiz eskualdeetan birbanatzen dira, diru-sarrerak banatzean sortutako hausturak murrizten dituzten politika sozialen bitartez.

Hori ez dator bat ondo bizitzeko ideiarekin. Hazkuntzaren paradigmak arrazionaltasun kuantitatiboa daukanez, badago garapena neurtzerik, kuantifikatzerik. Kontabilitate nazionala hazkuntza ekonomikoaren kuantifikazioaren arabera antolatzen zen, eta, Bolivian bertan, lehen mailako esportazioan eta ekoizpenean oinarrituta zegoen hazkuntza hori.

Herri indigenen aldarrikapenak eta beste zibilizazio eta kultura baten ikuspegia, "ondo bizitzea", esaterako, ez zetorren bat merkataritza-logikarekin eta kapital-metaketa-rekin. Horrez gain, ohiko hazkuntza eta ekonomia neoklasikoak eta, horren ondorioz, sinismen-egitura osoa kolokan jartzen zituen zibilizazio-paradigma berria zen.

Bizimodu onak gure "erauzketa-bokazioa" eta naturarekin ezarritako harreman krematistikoak jartzen ditu kolokan. Hori guztiori gutxi izango balitz bezala, Boliviako biztanleen bizi-baldintza materialen murrizketan islatutako desberdintasun-hausturak jartzen ditu kolokan. Hazkuntza-tasa handiak ez ziren nahikoak izan, txirotasuna gainditzeko edo berdintasun handiagoa sortzeko, lehen mailako ekoizpe-neko soberakinen banaketa zelako arazoa. Hazkuntza-paradigmaren muga handietan eta kontabilitate nazionalaren sistemako adierazle makroekonomikoetan, ez zen islatzen lortutako errenten birbanaketaren errealtatea.

Arrazionaltasun pragmatikoak hasierako ekoizpen-baldintzen eraldaketaren bidea erakusten digu, eta lehen mailako ekoizpenean dago oinarrituta. Dena dela, agerikoa denez, onartu egin behar da gobernuak berreskuraturako soberakinak erabili behar dituela, ekoizpen-tresna nazional osoan balioa eransteko prozesuak garatzeko. Izan ere, horixe bera egiten ari dira Estatuak enpresa estrategikoko asko sortzean, Konstituzioko eta Garapen Plan Nazionalako agindua betetzeko, Estatuak ekonomian agerpe-na izango duela ziurtatzeko eta herritarrei ondasunak zein zerbitzuak eskuratzeko aukera izango dutela bermatzeko, euretako asko giza eskubideak dira-eta.

Testuinguru berrian, enpresa estrategikokoak nazionalizatzean eta Estatuak soberakin ekonomikoa kontrolatzean, Nazio Anitzeko Estatuaren subiranotasun erlatiboak oinarri tekniko-materiala dauka. Horrez gain, benetako ekarpen kritikoa egiten du ohiko ekonomia neoklasikoan "ondo bizitzeko" kontzepzioaren bidez. Izan ere, hazkuntzaren paradigma liberala ukatzeko aukera eskaintzen du, mendebaldekoa ez bezalako garapen-eredu berri bezain modernoa ezartzeko eta arrazionaltasun antropozentriko lineala eta metaketa-logika kapitalista gainditzeko, eremu jakin batean bizi diren izaki bizidun guztien arteko oreka bilatuta.

Larrialdi indigena ekonomiaren eta gizartearen egitura aldatzeko alternatiba da, eta etnikotasun hutsetik baino haratago doa¹⁰. "Estatu" modernoa Europako tradizioan agertzen da, baita Estatu liberaleko demokrazia adierazgarrien oinarri teorikoen

¹⁰ De Castro Sánchez, Sergio. Socialismo e indigenismo en Bolivia: Aculturación, Estado y Modernidad frente a la propuesta del Buen Vivir. ALAI, Amerika Latinoa Mugimenduan. 2010-07-12.

tradizioan ere. "Kontratu sozial" hori Estatuaren eta modernotasun horrekin lotutako ordezkartza-sistema demokratikoaren oinarria izango da. Bertan, gainera, banan-banako borondatea "guztien borondatearen zuzendaritza gorenpean" jartzen da: subiranoa; eta Estatu bera da zentzuzko bizikidetzaren eremu bakarra. Mundu indigenan, Estatuaren aurkako botereen adibide argia dago nazio aimararen berezko "bateratasunaren" jardunean. Bateratasuna eta Ayllurako itzulera mundu materialarekin lotzeko eta ulertzeko moduaren unibertsalizatorako proposamena da, eta berezko landa edo bateratasun esperientziatik haratago doa (De Castro; 2010).

Nazio aniztasuna eta ilustraziotik nahiz Iraultza Frantsesetik hereditutako balioen zein eskubideen esparruan Amerika Latinoko Estatuetakoko konstituzio politikoak homogeneizatzen dituen Estatu-nazio moderno eta jakobinoaren kontzeptuaren zehaztapen positiboa modu kontzeptualean gainditzen dira, gure herrialdeetako gizarteetako gehiengodun handiek jasandako txirotasun-baldintzak aldarrikatzean eta mekanismo zein egitura sozial kolonialetatik eta ekoizpen-sistema kapitalistatik emantzipatzean, giza espeziearen desagerpena dakar-eta.

Hartara, ekoizpen-eredu kapitalista eta hazkuntza kuantitatiboaren arrazionaltasun cartesiarra jartzen dira kolokan garapen-baldintza moduan. Esparru horretan, ondo bizitzea agertzen da, metaketa-sistema kapitalistatzat hartutako modernotasunarekin hausten du, eta ekonomia, garapen zein gizarte-antolamendurako paradigma berri moduan eratzen da.

Natura gizarte eta giza ugalketarako eremua da, zaindu ezean ez dago prozesu hau aurrera eramaterik eta izaki bizidunaren jatorrizko izaera berreskuratzen du, beste izaki bizidun batzuei bizitzeko aukera ematen die-eta.

Erreforma konstituzionaletan, "bizimodu onaren" kategoria hartu dute kontuan, natura eskubidedun subjektua da eta merkataritza-logikarik gabeko ekonomia bateratua epe luzean helmuga sozialista lortzeko mekanismoa edo giltza da. Modu fisikoan iraunkorra ez den metaketa-eredu kapitalistaren aldean, Boliviako aldaketa-prozesuak "bizimodu ona" erkidegoak berak eratutako paradigma berri moduan proposatzeko aukera eskaintzen du, mendebaldeko antropozentrismoa zibilizazio-etika alternatibotik gainditzeko.

5. Nazio Anitzeko Estatu eta ekonomia anitza

Aldaketa-prozesu hori gizarte-mugimenduen agenda sozial, politiko eta ekonomikoan dago oinarrituta. Herri-gobernu indigenaren ekintza nagusiak zentzu horretan bideratu ziren. Hidrokarburoen nazionalizazioa aldarrikapen historikoa zen, 1952ko Iraultzaren osteko meategien nazionalizazioaren parekoa, hain zuzen ere.

Oinarrizko mugimendu indigenen eta sozialen larrialdiak aldaketa-prozesua sendotu zuen irudi kolektiboan, eragile berriak agertzen. Dena dela, eragile horiek hortxe egon ziren beti, baina mendeko baztertuak ziren. Orain, ostera, euren gobernuak kudeatzen dute.

Egoera bakunetik egoera konplexura igarotzeko berezko epeak, lidergoak eta zailtasunak daude. Konstituzio berriak ekonomia antolatzeko beste modu batzuk onesten ditu, baita lurraldea antolatzeko modu berria ere. Bertan, gainera, Estatuaren partaidetza erabakigarria da benetan.

Bolivian, Konstituzio berria onartzean, nazio aniztasuna eta bizimodu ona Estatu berriaren eraketaren osagai nagusiak dira. Gainera, Estatuak garapeneko eragile nagusia izateko herri-agintea dauka orain, eta herrialdeko ekoizpena eta ekonomia erauzketa-eredutik ateratzea du helburu, nahiz eta bolada batean baliabide naturalak ustiatzen dituen herrialde moduan bizitzen jarraitu. Gaur egun Estatu berriak kontrolatzen dituen sektore estrategiko horretako soberakinak enplegua zein balio erantsia sortzen dituzten bigarren mailako jardueretarantz birbideratuko dira.

Nolanahi ere, ez dira ekonomia antolatzeko ereduaren eta erkidegoaren beraren ekoizpenaren arteko tentsioak desagertu. Konstituzio berriak ekoizpen hori lehenesten du, baina, aldi berean, politika publikoetan modernoaurrekotzat edo hazkuntzaren arrazionaltasun cartesiar eta kuantitatiboaren aurreko jardun ekonomikotzat hartzen da oraindik. Estatu liberal modernoak jabetza pribatuaren eta merkatuaren berme-emaitza denez, bizimodu onean oinarritutako paradigma berrien eraketari buruzko eztabaidan esku hartzen du oraindik, eta tentsioak sorrarazten ditu.

Gobernu nazionalak 2010-2015erako egindako Plan Estrategikoak baliabide naturalen ustiapenean sakontzea, garraio-azpiegiturak eraikitzea eta baliabide naturalak industrializatzea du helburu. Hala ere, ez da edonolako Estatu, Estatuaren egitura berria nazio aniztasunaren nozioan oinarrituta badago ere, baldintza historiko batekin gurutzatzen da, herrialdeak zenbait mendez bereganatutako lehen mailako esportazio-bokazioari esker diraelako bizirik, eta, oraindik ere, luzaroan iraungo duelako jarduera horrek. Dena dela, herrialderako eta kontzientzia nazionalaren garapenerako aukeratzat hartutako soberakinaren inguruko liskarra konpondu da, lehen mailako ekoizpenean sortutako errentak berreskuratzean.

Mendebaldeko hazkuntza-paradigma liberalaren esparruan, Boliviaren hazkuntzatas handia da, eta, hori lortzeko, ezinbestekoa izan da Estatuak ekonomian parte hartzea. Estatu merkatuarako eta ekonomiarako faktore kaltegarria zela zioen dogma neoliberalaren argudioaren aurka, gure kasuan, Estatuak arlo ekonomikoan agerpen handiagoa izan duenez, barruko merkatua indartu egin da, eta gure oinarri materiala ustiatzeagatiko errenta berreskuratutako erabiltzen dira, epe ertain eta luzean oinarritutako industrializazio-prozesua abian jartzeko.

306.I. artikuluan, eredu ekonomiko anitza eratzen da, lau ekonomia-modu ditu osagai eta iraun, egituratu, konbinatu, gainjari edo elkar jotzen dute. Estatuko Konstituzio Politiko Berriko artikulua horren arabera, Boliviako eredu ekonomikoa anitza da, eta honako osagai hauek ditu Boliviako eredu ekonomikoaren aniztasunak: ekonomia bateratua, ekonomia estatala, ekonomia pribatua eta ekonomia sozial kooperatiboa.

Hartara, Konstituzioan xedatutakoaren arabera, Boliviako ekonomiaren aniztasuna ekonomia antolatzeko lau modu horien onespentetik dator, herrialdeko errealitatean egon direlako eta gaur egun ere egon badaudelako.

Konstituzio Berrian adierazten denez, Nazio Anitzeko Estatuak pizgarriak sortu behar ditu, ekonomia bateratua sustatzeko. Aurreko Konstituzioaren arabera, ordea, merkatu-ekonomia liberala bultzatzen zen, eta ekonomia pribatuan zegoen oinarrituta. Izan ere, Estatuak berak suspertzen zuen, mozkinak handituta eta kostuak gutxituta gizakiek irabaziak, mozkinak edo onurak lortzeko zeukaten interes partikularrak eta berezko gogoak ekonomia abian jarriko zuelakoan.

Konstituzio berrian onartu egiten da merkataritza-eredu kapitalista ez beste ekonomia-antolara batzuk daudela, balioa eta aberastasuna sortzeko beste aukera batzuk aldarrikatzeko. Euren logikaren arabera, biziraupenaren premia materialak estaltzea da helburua, jabetza pribatuarekin dauzkaten loturak alde batera utzi gabe eta bizi-esparruarekin lotzeko beste errealitate kultural, sozial eta emankor batzuk kontuan hartuta. Errealitate heterogeneoa eta konplexua onartzea printzipio gidaria da, eta homogeneizazio liberal modernoaren aurretik dago.

Edonola ere, laugarrena zailena da arautzeko eta instrumentalizatzeko orduan, bere interpretazioan ados egon arren. Ekonomia-antolaren funtzionamendu eta egituraketarako mekanismoen ulermena arina da, eta euren interpretazioaren zein kontzeptualizazioaren inguruko tentsioak ere sortu ditzake eragile sozial eta ekonomikoen artean. Hori dela eta, honako hauexek egongo dira lehiapean ezartzeko orduan: hegemonia edo Estatuko abantaila finantzarioak edo fiskalak lortzeko aukera. Garatu beharreko arazuko esparruak adostasun orokorrak hartu beharko ditu kontuan, baita ekonomia anitza arautzeko alderdien itunpeko eraketa kolektiboa ere¹¹.

Batzar Konstituziogilean, jabe eta ekoizle txikiak izan ziren jabetza pribatua bermatu behar zela adierazi zuten lehen sektoreak, hau da, guztiek lan-baldintza objektiboak edukitzeko eskubidea zeukaten. Beraz, gaitzetsi egiten zuten jabetza pribatuaren bermearen izenean herrialdeko lur ereingarria lurjabe eta jabe handiei ematea eta transnationalek herrialdeko baliabide naturalak besterentzea (Gosálvez; 2010).

Konstituzio berriak laburtutako gerra sozialak ekonomia pribatua onesten du, ekonomia nazionalean nagusi den ekonomia-antolara delako eta ekoizpen-bideak barik jabetza pribatua onartzea emakida politikoa delako eta indar sozial, politiko zein ekonomikoen arteko elkarloturaren adierazgarri delako prozesu konstituziogilean. Hau da, ez zegoen jabetza pribatua inolaz ere indarririk gabe uzterik.

Modu sozialean sortutako balioak trukatzeko gunetzat hartutako merkatua desagertzen ez denez, ez da inolako jabetza pribaturik desagertzen, baina Estatu berriak arautu egin dezake ekonomiako ekoizpen orokorraren etekina herrialdeko bizilagunen bizi-baldintza materialak hobetzeko erabiltzea.

¹¹ Gosálvez, Gonzalo. Estructura y organización económica del Estado, Análisis y crítica en la NCPE in "Miradas: Nuevo texto constitucional", Ed. IDEA. La Paz, 2010. 180. or.

6. Ekonomia bateratua eta sozialismo bateratua

Ekonomia bateratua herrialdeko landa-ingurunearekin dago lotuta, baina ekonomia-antolaera bateratua ere aurkitu dezakegu hirigunean. Beraz, ekonomia bateratua zenbait esparrutan garatu daiteke, eta loturak ezarri ditzake merkatuarekin eta merkataritzako beste ekonomia-antolaera batzuekin.

Egitura Egokitzeko Programek landa-ingurunetik hirietarako migrazio handi-handia bultzatu dutenez, hiriguneetako txirotasun-gerrikoak handitu egin dira. Urbanizazio-prozesu horretan, barne-etorkinek jatorrizko erkidegoetan garatu zituzten mundu-ikuskerak, erabilerak, ohiturak, jardunak eta gizarte-harremanen ereduak eraman zituzten eurekin, eta modernotasunarekin lehian dauden eremuetan ezarri zituzten. Horren ondorioz, aro neoliberalari aurre egiteko moduko eraketa sinkretikoa sortu zen.

Ordena neoliberalak sustatutako lan-ezgonkortasunaren ondorioz, ekoizle edo merkataritxi txikien elkarteak edo erakundeak sortu ziren ekoizpen eta gizarte sare erraldoi, nahasi eta informalean. Abantailaren bat lortzeko edo merkatuari eta Estatu neoliberalari aurre egiteko, gremio eta korporazioetako erakundeekin egituratu behar ziren: elkarteak, kooperatibak, sindikatuak... Erakunde horiei esker, merkatu formalera iritsi zitezkeen, lortzen zuten ekoizpen-eskalaren arabera, eta euren produktuak merkaturatu zitzaizketen.

Lehen mailako esportazio-ereduaren eta ekonomia tertziario informalaren artean, erakunde ekonomiko zabala hedatzen da, eta ezaugarriak desberdinak eta kontra-jarriak dira askotan. Kapitalarekin eta merkatuarekin lotutako ekonomia formalek enplegu gutxi sortzen dute, baina kapitala eskuratzeko aukera hobekak eskaintzen dituzte, eta sektore informal tertziarioek baino zeresan handiagoa dute BPGn. Izan ere, tertziarioak intentsiboak dira lanean, baina modu alderantziz proportzionalen dute ekarpena BPGn, eta, informalak direnez, ez dute kapitala eskuratzetik eta metaketa-prozesurik garatzerik. Fenomeno hori Boliviako hiri-munduaren ezaugarri bereizgarria da. Nolanahi ere, bilbe konplexu horretan, landa-inguruneko mundu indigena eta nekazaria da hiriguneko elikagaien hornitzailea. Ekonomia-antolaera hori ez da ez formala ez informala, baina modu zehatzean dago.

Bizimodu ona eta ekonomia bateratua txanpon beraren bi aurkiak dira. Gizarte eta ekoizpen arloko tradizio eta jardun sozialak eta emankorrak eratu eta berreskuratu egin behar dira, ekoizpen-eredu kapitalistari aurre egiteko alternatiba izan daitezke-eta.

Arautegi zehatza garatu beharra dago, behar besteko betekizunak zehazteko eta unitate ekonomiko bateratuak onesteko, eratzeko edo ezartzeko. Era berean, ekonomia bateratuaren oinarritzko esperientziak ere hartu behar dira kontuan, goiko aldeko lurretakoak zein lautadetakoa, pisu ekologikoak zehazteko eta nazio anitzeko irudi kolektiboa eratzeko orduan.

Mugimendu indigenak eta nekazariak lurra eta lurraldea, elikaduraren subiranotasuna eta bizimodu ona jarri ditu mahai gainean, gaur egungo eraso-testuinguruan

erresistentzia-prozesuak trukatzeko eta indartzeko asmoz. Modu berean, eztabaida-esparruak jarri dira abian, gaur egun gizarte-mugimenduetan eragina duten tentsioen inguruko kritika konstruktiboa egiteko.

Dena dela, iragaitzako prozesu horretan, herrialdeko eremu ekonomiko, politiko eta soziala berrerratzen ari da. Konstituzio Berriak bide luzea zehaztu du, boliviarrak aberastasun gehiago sortu dezagun eta bere banaketan zuzenean parte hartu dezagun. Hartara, aukerak, sormena, gizarteratzea eta adimena sustatu ahal izango ditugu partaidetzazko demokraziaren eta elkarketa-gaitasun bateratuaren arloan, sozialismo komunitarioaren barruan kokatuko dugun gizarte¹² eta ekonomia eredu berria eratzeko.

7. Instituzioen eta arauen arkitektura berria

Nazio Anitzeko Estatuak arkitektura instituzional berria behar duenez, instrumentaltzatzeke eta abian jartzeko baliabideak eduki behar ditu.

Merkatua/Estatua harremanean, bi arlotako elementuak agertzen dira. Estatuak ekonomian agerpen handiagoa duenean, erregulazio-faktoreak ezartzen dira, monopoliorik edo oligopoliorik ez eratzeko. Horrez gain, ekoizpen-unitate txikiak sustatzen dira, eta, horretarako, behar besteko informazioa edo azpiegitura ematen zaie, lehiakorrakoak izan daitezten. Dena dela, unitate ekonomiko ertainak edo handiak ere badaude. Izan ere, itzalpean bizi izan dira, eta Estatu zurrupatu dute, dumpingerako neurrien bidez irabazien tasak bermatu ahal izateko. Azken horiek, hain zuzen ere, aldaketa-prozesuen aurka daude, enpresa transnazionalen ordezkariak dira eta Estatu berriari egiten diote xantaia, lekualdaketa eta langabeziaren mehatxuarekin prebendak eskatuta.

Aro neoliberallean, pribatizazioak ezaugarri nagusia izan ziren, Estatuaren instituzionalitatea murriztu egin zen, ahalmenak galdu zituen eta bere subiranotasuna globalizazioaren dinamiken eta kapital finantzarioaren esku utzi zuen.

Lehia (erlatiboa, eragiketa-baldintza monopolikoen sorreraren arabera mugitzen dire-lako) printzipio gidaria da, eta lan-eskubideak eta giza eskubideak sakrifikatzen ditu, baliabide naturalak ustiatzen dituzten transnazionalen interesaren arabera.

Arauzko zenbait eskumen lurraldez kanpo daude, eta eskumen ekonomiko eta finantzarioak eraginkortasun juridiko goreneko nazioarteko ordenamendu hertsatzaile eta aginduzkoetara birbidaltzen dira. Bien bitartean, gizarte zein lan arloko eskumenak eta gizarte-eskubideak desregularizazioaren erregulaziopean daude, Estatuaren eremuan geratzen dira eta berriro lurralderatzen dira (Hernández; 2009). Autore horrek baieztatu egiten du kapitalismoak esparru juridiko, politiko eta ekonomikoa diseinatzen duela. Bertan, hain zuzen ere, enpresa transnazionalak kontrapisu

¹² García Linera, Álvaro. El Socialismo Comunitario. Un aporte de Bolivia al mundo. Revista de Análisis. Reflexiones sobre la Coyuntura. Estatuoko Presidenteordetza. 3. urtea, 5. zk. La Paz, 2010.

nahikorik gabe mugitzen dira, eta nazioarteko zuzenbideak ez dauka horiek kontrolatzeko moduko sistema juridikorik. Globalizazio neoliberean, ez dago Estaturik, ondare erkidea babesteko araurik eta horren berme-emailea den Estaturik¹³.

Era berean, Hernándezek nabarmendu egiten du globalizazio ekonomikoaren edo kapitalaren transnacionalizazioaren prozesuen ondorioz monopolioak ere globalizatu egin direla eta lehiaren aurkako jardunak nekez antzeman eta erregulatzen den kapital-ugalketarako berezko fenomeno dira ia-ia, Estatuak ahulak direlako eta ezin dutelako horren gaineko inolako kontrol eraginkorrik garatu. Dena dela, fenomeno hori tokian tokiko kapitalen bidez lan egiten duten enpresari pribatuen ohiko jarduna ere bada.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da jardun monopolikoen aurkako arautegia lantzea. Bolivian, esaterako, merkatua edo ordenamendu ekonomikoa erregulatzeko araua prestatzen ari dira, jardun horiei aurre egin nahian, Konstituzio Berriak onetsitako antolaera ekonomiko pribatuaren moduaren edo ereduaren esparruan.

Ia-ia beti transnacionalen aldekoa den arauzko arbitrariotasunari edo asimetriari aurre egiteko, oso garrantzitsua da eskualde-integraziorako mekanismo berriak lantzea, herrialdeen arteko eta ekonomia estatal, kooperatibo edo bateratuekin bat datozen erakunde ekonomikoen arteko trukeetan elkarrekikotasunaren eta berdintasunaren esparruan ondasunen eta zerbitzuen esleipena lehenesteko. ALBA bera da ahalegin horren adierazgarri.

Boliviako prozesu konstituziogilean, eskuindarren eta enpresari pribatuen argudio nagusietakoa inbertsioetarako segurtasun juridikoarena zen. Boliviako aurreko konstituzioan, ekonomiaren bi antolaera baino ez ziren onartzen: pribatua eta estatala. Pribatua ez zen guztia estataltzat hartzen zen. Arau-esparruak ekonomia pribatua sustatzen zuen herrialdeko gainerako ekonomiaren kaltetan. Orain, ostera, Konstituzio Berriak ekonomia publikoa eta pribatua onesten ditu, baina, horrez gain, merkataritza-arlokoak izan behar ez diren ekoizpen-moduak eta antolaera ekonomikoak ere erreskatatzen ditu; sozial kooperatiboa eta bateratua, esate baterako.

Bolivian, adibidez, kontratuzko baldintzak aldatzeko ahalmena dauka Estatuak, eta Nazio Anitzeko Estatuak lehen mailako ekoizpenean sortutako soberakinak kontrolatzen direla ziurtatu dezake. Gainera, konstituzioaren arabera, Estatu berriaren eskumen pribatiboa da baliabide estrategikoak kudeatzea. Beraz, Estatuak eta bere enpresa estrategikoek ustiatuko dituzte baliabide naturalak. Estatuak eskubidea izango du baliabide naturalen ustiapenerako ekimen eta inbertsio guztietako akzio gehienak edukitzeko. Inbertsio pribatuen partaidetza ere onartuko da, betiere, Estatu gehien-godun bazkidea bada eta mugimendu zein erakunde sozialek aurretiazko baimena ematen badute eta ustiapen nahiz ekoizpenaren jarraipena eta kontrola egiten badute, ingurumenaren gaineko ondorioei edo sortutako soberakinaren jabetzari dagokienez.

¹³ Hernández Zubizarreta, Juan. Las empresas transnacionales frente a los derechos humanos: Historia de una asimetría normativa. La disputa entre el Derecho Internacional del Comercio y el Derecho Internacional de los Derechos Humanos. De la responsabilidad social corporativa a las redes contrahegemónicas transnacionales. Amerika Latinoko Multinazionalen Behatokia. HEGOA. Bilbao, 2009.

Baliabide naturalen gaineko kontrola berreskuratzea erabaki zenean, transnazionalekin sinatutako kontratuak kaltegarriak ziren Estatuaren interesei begira. Historiari begira, horixe izan zen antzinako Estatu kolonialaren eta kapital transnazionalaren arteko harreman-eredua. Nazioarteko arauen eta instituzioen egiturak kapitala metatzeko prozesuak bermatzea zuen helburu, baita "inbertsiogileen" alde egitea ere, nahiz eta euren azken xedea irabazi-tasak handitzea izan, Estatu nazional ahulen kalterako.

Konstituzioaren arabera eskumen eta aginte berriak dauzkanez, Estatua bera eta bere instituzioak sendotu behar dira. Baliabide naturalen gaineko subiranotasun nazionala Nazio Anitzeko Estatu berriaren printzipio gidarietakoa da. Historiari begira lehen mailako ekoizpenean sortutako soberakin ekonomikoagatiko liskarrekin lotutako gatazka sozialak konpondu egin dira.

Boliviako gobernu berria enpresa transnazionalen kontratuen jatorria eta betearazpena berrikusten ari da, askotan oraindik ere eratzen ari diren legeria nazionala kontuan hartuta. Dena dela, joera eta printzipio nagusienak ezarri dira Nazio Anitzeko Estatu-ko Konstituzioan.

Horrela, bada, Boliviako gobernuak CIADiren arbitrajea utzi du bertan behera, Estatuarentzako bermea barik inbertsiogileentzako zelako. Ikuspegi juridikotik, 1593. Berrespen Legearen arabera CIADirekin sinatutako kontraturako atxikipena (1994ko abuztuaren 12koa) eta Boliviako Konstituzioaren arteko gatazka agerikoa da. Konstituzioko 24. artikulua arabera, "atzerriko enpresek eta atzerritarrek Boliviako legeei men egin behar diete, inolako ezohiko egoerari heldu gabe eta erreklamazio diplomatikoetara jo gabe". Antzinako Konstituzioak Estatuarentzako babesak ezartzen zituen eta zehaztu egiten zuen herrialdean ustiapen, aprobetxamendu edo negozioetarako finkatutako enpresa guztiak nazionaltzat hartuko zirela eta Errepublikako subiranotasunari, legeei eta agintariei men egin beharko zirela (Hernández, 2009). Hori horrela izanik ere, hau da, nahiz eta CIADitik kanpo egon, petrolioaren sektoreko enpresa nazionalizatuek CIADira jo zuten, Boliviako Estatu berriarekin zituzten "arazoak" konpontzeko. Beste kasuetan, inbertsioen segurtasunerako aldebiko nazioarteko hitzarmenetara jo zuten (Petrobras edo Repsol), Boliviako neurrien "eraginpean" omen zeuden herrialdeen presio politikoak sustatzeko.

8. Gizarte-erantzukizun korporatiboaren erretorika

Badirudi gizarte-erantzukizun korporatiboaren erretorika arrakastaz ezarri dela enpresarien diskurtsoetan¹⁴. Arlo ideologikoan lortutako garaipen horrek zenbait galdera sorrarazten ditu GEKen kontzeptuaren mugari buruz, arauen arloan dituen inplikazioen eta irismenari buruz eta enpresek borondatez euren gain hartu beharreko betebeharrak etikoei buruz (Gutiérrez; 2010-07).

¹⁴ Gutiérrez Sobrao, David. La retórica de la Responsabilidad Social Corporativa: Análisis para diez multinacionales españolas. ALAI, Amerika Latinoa Mugimenduan. 2010-07-20.

Gizarte-erantzukizun korporatiboa leku edo errealitate zehatz batean egindako inbertsioen asmo "humanitario", karitatezko edo ongintzazkoaren inguruko "sentsibilizazio-estrategia" da, errentagarritasuna ziurtatzeko, arauen arloan kapitalerako arriskuak murrizteko eta enpresen eragiketekin edo kudeaketarekin lotutako gatazka soziala gutxitzeko orduan. Askotan, kontzientziak erosteko diseinatu dute, baita ingurumenean eragindako ondorioengatik edo desregulatutako edo babesik gabeko lanindarraren larregizko ustiapenagatik protesta sozialak saihesteko. Askotan, gizarte-erantzukizun korporatiboak osasun, hezkuntza edo kirol arloko azpiegituren oinarritzko premiei aurre egitea du helburu.

Komunikabideetan, oso ondo landutako propaganda moduan erabilitako karitatezko estrategia hedatu da, eta arautu edo erregulatu ere nahi izan dute. Printzipioa, ordea, berbera da, hau da, ahalik eta arrisku txikienaz kapitalaren ugalketa ziurtatzea. Inoiz ez da kuantifikatu zein den gizarte-erantzukizun korporatiboaren proportzioa, publizitate-kanpaina garestietan "karitate-espirtua" erakusten duten toki-kapitalistek edo transnazionalak lortutako irabazi-tasak kontuan hartuta. Arautegi nazionala eta Nazio Anitzeko Estatuaren interesak urratu gabe inbertsioak sustatzen dituzten kontratu argiak, arau argiak dira.

9. Nazionalizazioa, herri-agintea eta herrialde-proiektu berriaren oinarria

Azkenean, gure kontinenteko baliabide estrategikoen gaineko gatazka geopolitikoei esker, Estatuak transnazionalak kontrolatzeko baliabide horiek berreskuratu zituzten. Ameriketako Merkataritza Askerako Eremuaren (ALCA) aurkako borrokari esker, eskualdeko herrialde askok integrazio-mekanismo berriak landu ahal izan dituzte, herriak lehenesteko eta euren premia larrienak estaltzeko. Izan ere, transnazionalen kontrolpeko baliabide estrategikoen ustiapenetik berreskuratutako soberakinen bidez hornitu eta finantzatu daitezke¹⁵.

Liskar horren erdi-erdian, baliabide energetikoak daude (petrolioa, meategiak, gasa, ura, lurra eta biodibertsitatea), eta funtsezkoak dira kapitala ugaltzeko eta ekoizteko orduan. Funtsean, gure kontinentean gaur ezarritako menderakuntza-mekanismoak epealdi kolonialekoak bezalakoak dira, neurri batean euren oinarriak ezertxo ere aldatu ez direlako, baina, batez ere, lurraren monopolioa eta gure ekonomiak kanpoko eskariaren arabera antolatze joera. Hori dela eta, ez dago inolako kontraesanik antzinako latifundioen eta "modernizatutako" nekazaritza-transnazionalen artean. Dena dela, teknologia berrien inguruko ideologia fetixista sortu da, baita ekoizpen-bideak garatzeko ideia positibista edo funtzionalista ere. Ideologia hori bat dator diskurtso desarrollista kontserbadorearekin, "eraginkortasunaren" ideia neoliberalarekin eta nazioarteko kapitalaren interesekin (Mendonça; 2010).

¹⁵ Mendonça, María Luisa. Juanito y la semilla de frijol. Justizia eta Giza Eskubideen Sare sozialeko koordinatzailea. Paraguai.

Latifundioarentzat, honako hauxe da onuragarria: lurrak loditzea eta espekulatzea eta ingurumenari eta lanari buruzko legeria eta larregizko ustiapena edo nahitaezko lana malgutzea. Horrela, bada, monolaborantzak hedatzean, nekazaritza-muga etengabe hedatzen da, eta langileek gero eta enplegu ezegonkorragoak eta behin-behinekoagoak dituzte.

Amerika Latinoan, inperialismoaren aurkako erresistentzia-prozesuen ardatz nagusia baliabide estrategikoen defentsa da. Kasu sinbolikoena Boliviakoa da, bertako aldaketa politikorako prozesua Cochabambako "uraren gerran" hasi zelako eta gasaren nazionalizazioaren aldeko mobilizazio handiak gertatzean amaitu zelako.

"Ordena neoliberallean", Estatuak ekonomian zeukan agerpena kaltegarria zela zioten. Estatua, hain zuzen ere, arrotza zen, eta merkatuaren berezko erregulazioa zein askatasun ekonomikoa aldatzen zituen. Logika horren esparruan, Estatua desegin egiten zen, eta sektore pribatuek zein transnazionalak enpresa estatalak kontrolatzen zituzten, aberastasuna ekimen pribatuak bakarrik sortu zezakeelakoan eta ekonomia-aren hazkuntza ekimen horren esku zegoelakoan. Sektore neoliberalen ustetan, pribatuaren interesagatik izango ez balitz, ez litzateke lan egiteko, ekoizteko edo pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko motibaziorik egongo. Hori dela eta, Estatuaren itzultzeko premiak paradigma neoliberalak jartzen du kolokan.

Boliviako errealitatea aldatu egin da, eragile sozial eta politikoak beste batzuk dira. Emantzipazio sozial, politiko eta ekonomikorako prozesua dago abian, eta Estatua bertako elementu nagusia da. Boliviako aldaketa-prozesua Estatua itzultzeko premian dago oinarrituta. Estatu berriak herrialdea garatu eta industrializatu egingo du, edo ekonomiako arlo estrategikoetako funtsezko zutabea izango da, behintzat: hidrokarburoak, energia, meatzaritza eta basogintza.

Hala ere, Nazio Anitzeko Estatuko Konstituzio Berriak onartu egiten du ekonomia eta ekoizpena antolatzeko beste modu batzuk daudela eta lau ekonomia-mota daudela. Euren artean bereizteko, honako faktore hauek hartu behar dira kontuan: merkataritza-araubidearen arabera egituratuta dauden ala ez eta soberakinak ekoizteko, jabetu eta banatzen dituzten ala ez. Ekonomia-mota horiek ekonomia anitzaren adierazgarri dira: estatala, pribatua, sozial kooperatiboa eta bateratua.

Edonola ere, Nazio Anitzeko Estatuko Konstituzio Berriak ere kolokan jartzen ditu garapen-baldintzat hartutako hazkuntza ekonomikoaren paradigma eta ekoizpen zein metaketarako sistema kapitalistaren arrazionaltasuna, bizimodu ona ezarri beharreko printzipio eta balio moduan sustatzen duenean. Orain berriaz onartuta dagoen ekonomia estatalaren esparruan, Gobernu Planak gure garapenari begira beharrezkoak eta funtzionalak diren enpresa estatalak berreskuratu nahi ditu.

20tik gora urteko neoliberalismoan, herrialdeko errealitatea eta baldintza historikoak aldatu egin dira. Orain, herri-eskaera da baliabide naturalak berreskuratzea eta enpresa estatalak izandakoak nazionalizatzea, eta baliabide naturalen zein lehen mailako ekoizpen-jardueretan sortutako errenten berreskurapena sustatu zuten gizarte-mugimenduen agenda politikoan ere agertzen da.

Herri-eskaera da eta gizarte-mugimenduen agendan agertzen da Estatuak ekonomian berriro parte hartzea, baina, horrez gain, Nazio Anitzeko Estatuako Konstituzio Berrian eskubide moduan bermatutako ondasunak eta zerbitzuak erkidegoari hornituko zaizkiola ziurtatzen da horrela. Nazio Anitzeko Estatuak ekonomian esku hartzen duenean, monopolioak ezeztatuko dira, prezioak erregulatuko dira, lehen mailako ekoizpenean sortutako errentak birbanatuko dira, kalitateko ondasunak eta zerbitzuak eskainiko zaizkie boliviarrari, barne-merkatua sustatu eta garatu egingo da, garapen zein berrikuntza teknologikorako prozesuak bultzatuko dira, nekazaritzako zein abeltzaintzako produktuak industrializatuko dira, intsumoen ekoizpena suspertu eta sustatu egingo da, ekonomiako bigarren sektorea are gehiago garatuko da, barne-merkatutako elikagaigintza sustatuko da... Gobernu-programak ekonomiako bigarren mailako jarduerak indartu nahi ditu bete-betean, berreskuratutako baliabide naturale-tako errentetan oinarritutako industrializazioaren bitartez.

2006ko maiatzaren 1ean baliabide naturalak nazionalizatzeko hasitako prozesua gizarte-mugimenduen agindua da. Boliviako herriaren borroka historikoak baliabide naturalen alde eta transnazionalen aurka garatu zirenez, nazionalizazioek osagai sinboliko handi-handia dute gizarte-maila herritarretako boliviarren pentsamolderako. Estatuak birjabetzeko eta "izaera boliviarra" eratzeko edo, Zabaletaren esanetan, kontzientzia nazionala garatzeko mekanismoa da. Teknikaren aldetik, nazionalizazioen arrakastan eta enpresa estrategikoen administrazio estatalean eragin handia izango du Estatuak eraginkortasunez kudeatzeko daukan gaitasunak. Izan ere, gainditu egin beharko du Estatuak administratzaile txarra dela dioten ustea edo aurreiritzia eta ezin izango du gainditu 1952ko Iraultza Nazionalaren ondorioz sortutako eredu nazionalaren porrotaren trauma gainditu gabe.

Agerikoa denez, herrialdeko enpresarien ordezkariak diren erakundeek estatalak izandako enpresen nazionalizazioa kritikatzeko dute, bertan esku hartzeko egintzetan "indar publikoaren erabilera larregizkoa edo hutsala" delakoan (enpresa elektrikoak edo petrolio-enpresak). Ziurtatu egiten dute "irudi" horrek nazioko eta atzerriko inbertsio pribatua uxatzen duela (militarrak eta bandera boliviarrak agertzen dira honako hauxe dioten kartel erraldioen aurrean: "Nazionalizatua: boliviarr guztientzat berreskuratua"). Ez dute nazionalizazioa bera kolokan jartzen, nola egin zen baizik. Ez dakit onartzen duten enpresa elektrikoek, esaterako, elektrizitatearen sorrera eta banaketa handitzeko inbertsiorik egin ez zutela eta herrialdean arrisku energetikoa sortu zutela adieraztea. "Modua", nola egin zen baino ez dute kolokan jartzen.

Bestetik, "inbertsionisten" fede txarraren adierazgarri ere bada aire-garraioko enpresa nagusia: Lloyd Aéreo Boliviano. Izan ere, enpresa hori faltsukeriaz esleipenean hartu zuten enpresariak eurek pribatizatu eta porrotera eraman zuten. Gauza bera gertatu zen Telekomunikazioetako Enpresa Nazionalan, Estatuako Trenbideen Enpresan... Enpresa estatalak pribatizatzean, ez ziren gas-erreserbak handitzeko edo zehatz-mehatz kuantifikatzeko inbertsioak egin, ezta ekonomiaren arlo horretako enpresetako zerbitzuen estaldura handitzeko ere. Hidrokarburoak nazionalizatzean, Estatuarentzako onurak gehitu ziren. ENTEL nazionalizatzean, komunikazioen estaldura handitu zen,

baita erabiltzaileentzako zerbitzuaren kalitatea ere. Elektrizitatea sortzeko eta banatzeko enpresak nazionalizatzean, erabiltzaileentzako tarifak %20raino jaitsi ahal izango dira, eta herrialdeko diru-sarrerak birbanatzeko egitura ere hobetu ahal izango da.

Joseph Stiglitz Ekonomiako Nobelak ere baieztatu egin zuen Boliviako privatizazioak enpresa transnazionalen onurarakoak baino ez zirela izan, eta gure herrialdeak ez zuela benetan merezitakoa jasotzen. Baldintza horien arabera, bere baliabide naturalako kuota "bidegabea" esleitzen zioten, eta herrialde industrializatu handiek zein multinazionalak jokoaren arauak zehazten zituzten euren interesen arabera. Beraz, merkatuen eta Estatuaren arteko oreka lortu behar zen, hau da, Estatuak agerpen handiagoa eduki behar zuen ekonomian.

10. Ondorioak

Baliabide natural ez-berriztagarrien ustiapenak eta esportazioak herrialdeko hedapen ekonomikoak zehaztu zituzten bere historia osoan zehar. Inportazioen ordez industrializazio-eredua ezartzeko epealdian ere, meatzaritza eta petrolioaren erabakigarriak izan ziren ekonomia nazionalerako. Lehen mailako ekoizpen-eredu esportatzailea ez zen funtsean aldatu, eta Boliviako ekonomia ekoizpen-eredu horren menpe zegoen artean. Modernotasuna Errepublikako ideietan ezartzen ahalegindu ziren, baina alferrik. Estatu kolonialaren harreman sozial eta ekonomikoek bizirik iraun zuten, eta Errepublika garaian sendotu ziren. Bertako ekoizpen-prozesu guztiak lehengaien ustiapenaren arabera zeuden egituratuta, eta lotura ahula zuten baliabide horien esportaziorako merkatuekin.

Iraultza demokratiko eta kulturalak funtsezko ezaugarria du, Estatuak ekonomian parte hartzea, alegia. Nolanahi ere, Nazio Anitzeko Estatu berriko ekonomia anitzak ez du inolaz ere baztertzeko enpresa pribatuak bere irabazi-asmodun logikaren esparruan ekonomian parte hartzeko aukera eduki dezan. Dena dela, argi eta garbi zehaztuta dago ekonomia bateratua eta bizimodu ona sozialismo bateratua lortzeko printzipioak eta antolaerak izango direla.

Gobernuak eta Boliviako gaur egungo aldaketa-prozesu sozial eta politikoak badute erronkarik, egiaztatu egin beharko dutelako Estatu berria enpresa estrategikoak eraginkortasunez kudeatzeko gai dela, kudeaketako arriskuak alde batera utzita.

Iragaitza-prozesu horretan, Boliviako Estatuak bera sortzeko aukera kolokan jartzen duen zalantza existentziala ebatzi da, lehen mailako ustiapeneko soberakinen sorrerari eta jabetzari dagokienez. Orain, ordea, soberakin horiengatik borroka historikoa konpondu da. Nazio Anitzeko Estatuak soberakin gehienez jabetu da, eta Garapen Plan Nazionalen zehaztutako garapen nazionalerako erabiltzen ditu.

Konstituzio Berrian adierazten denez, Nazio Anitzeko Estatuak pizgarriak sortu behar ditu, ekonomia bateratua sustatzeko. Aurreko Konstituzioaren arabera, ordea, merkatu-ekonomia liberala bultzatzen zen, eta ekonomia pribatuan zegoen oinarrituta. Izan ere, Estatuak berak suspertzen zuen, posiblekin handituta eta kostuak gutxituta

gizakiek irabaziak, mozkinak edo onurak lortzeko zeukaten interes partikularrak eta berezko gogoak ekonomia abian jarriko zuelakoan.

Konstituzio berrian onartu egiten da merkataritza-eredu kapitalista ez beste ekonomia-antolaera batzuk daudela, balioa eta aberastasuna sortzeko beste aukera batzuk aldarrikatzeko. Euren logikaren arabera, biziraupenaren premia materialak estaltzea da helburua, jabetza pribatuarekin dauzkaten loturak alde batera utzi gabe eta bizi-esparruarekin lotzeko beste errealitate kultural, sozial eta emankor batzuk kontuan hartuta. Errealitate heterogeneoa eta konplexua onartzea printzipio gidaria da, eta homogeneizazio liberal modernoaren aurretik dago.

"Erauzketan" oinarritutako garapen-ereduari eta estrategiari eta bizimodu onaren diskurtsoari eusteko gaitasunari dagokionez, gaur egungo gobernu zalantzapean jartzen dutenez, gobernu iraultzailearen benetako politikaren eta utopiaren arteko oreka tinkoa bezain konplexua ezarri beharra dago. Duela 4 urtera arte, Bolivia eskualdeko herrialde txiroena zen, eta Haitiren aurretik zegoen. Sare soziala desegituratzean, neoliberalismoak bizikidetzaren soziala eta Estatu errepublikarraren subiranotasuna bera jarri zituen arriskupean. Borroka sozial odoltsuak garatu ziren, eta herri-mobilizazioen oroimen historikoaren adierazgarri ziren. Hain zuzen ere, langileak, indigenak eta nekazariak emantzipatzea zuten helburu, egitura kolonialetan oinarritutako errepublikar liberala ez bezalako herrialde-proiektuaren eraketaren bidez benetako independentzia lortzeko proiektu politikoan. Horren ostean, prozesu konstituziogilea proposatu zen, eta, bertan, Estatu berria sortu zen. Gizarteak Estatu sortu zuen eta ez alderantziz. Estatu horretan, gainera, bizilagun guztiak onetsi zituzten, euren mundu-ikuskerak, ugalketa sozialerako mekanismoak eta antolaera politiko eta ekonomikoak kontuan hartuta. Horrexegatik sortu zen Nazio Anitzeko Estatu.

Edonola ere, herrialdeko menpeko gizarte-mailek osatutako gizarte-mugimenduen emantzipazio-proposamena den Estatu berria kudeatzeko, *iragaitza-prozesuan* pragmatismo zorrotzez jokatu beharra dago, gizarte-maila herritar horiek euren proiektu hegemonikoa heredadutako garapen-ereduaren arabera mantentzeko eta sendotzeko gai izan daitezen. Horrexegatik, erauzketa-bokazioari eutsi behar zaio aldi batean. Dena dela, bizimodu onaren paradigma dugu horren aldean, eta apurka-apurka ezarri eta onartu beharra dago. Boliviako gizarte-mugimenduek ere zibilizazio-ordena berri hori proposatzen dute. Hori guztiori dela eta, nire ustez batzuetan bidegabea da Boliviako gobernu kritikatzeko, bertako aldaketa-prozesua nolako testuinguru politikoan garatzen den kontuan hartu gabe. Uraren gerra hastean, gasaren gerra sortzean eta Amerika Latinoko lehen presidente indigena gobernura iristean, 2000. urteaz geroztik Boliviak bizi izan zuen gatazka sozialaren adiskidantza-aktaren adierazgarri izan da Konstituzio Berria.

Sozialismo bateratuko *iragaitza-prozesuko* lehen fase horretan, lehentasuneko da herri-gobernu indigenaren zuzendaritzapeko Nazio Anitzeko Estatu sendoa dela ziurtatzea. Lehentasunak daude.

11. Bibliografía

- Arce Aguirre, René. Breve Historia de Bolivia. Ed. Universidad Andina Simón Bolívar. Sucre-Bolivia. 1996.
- De Castro Sánchez, Sergio. Socialismo e indigenismo en Bolivia: Aculturación, Estado y Modernidad frente a la propuesta del Buen Vivir. ALAI, 2010.
- García Linera, Álvaro. El Socialismo Comunitario. Un aporte de Bolivia al mundo. Revista de Análisis. Reflexiones sobre la Coyuntura. Vicepresidencia del Estado. 3. urtea, 5. zk., La Paz, 2010.
- García Linera, Álvaro. La Condición Obrera. Estructuras materiales y simbólicas del proletariado de la Minería Mediana (1950-1999). IDIS-UMSA. Comuna. La Paz, 2001.
- Gosálvez, Gonzalo. Estructura y organización económica del Estado, Análisis y crítica en la NCPE in "Miradas: Nuevo texto constitucional", Ed. IDEA. La Paz, 2010.
- Gutiérrez Sobrao, David. La retórica de la Responsabilidad Social Corporativa: Análisis para diez multinacionales españolas. ALAI, 2010.
- Hernández Zubizarreta, Juan. Las empresas transnacionales frente a los derechos humanos: Historia de una asimetría normativa. La disputa entre el Derecho Internacional del Comercio y el Derecho Internacional de los Derechos Humanos. De la responsabilidad social corporativa a las redes contrahegemónicas transnacionales. Amerika Latinoko Multinazionalen Behatokia. HEGOA. Bilbao, 2009.
- Klein, Herbert. Historia General de Bolivia. 2. edizioa. Librería Editorial "Juventud", La Paz, 1987.
- Mendonça, Maria Luisa. Juanito y la semilla de frijol. Justizia eta Giza Eskubideen Sare Sozialeko koordinatzailea. Paraguai. ALAI, 2010.
- Muñoz Elsner, Diego. Políticas públicas y agricultura campesina. Encuentros y desencuentros. International Institute for environment and development-IIED. Plural editores. La Paz, Bolivia. 2004.
- Platt, Tristan. Estado Boliviano y Ayllu Andino: tierra y tributo en el Norte de Potosí. Peruko Ikaskuntzen Institutua, Peru. 1982.
- Prada A., Raúl. Las Armas de la Utopía. Marxismo: Provocaciones heréticas. Las Armas de la Crítica en la Ontología de la Praxis. CIDES-UMSA. Ed. Punto Cero. La Paz. 1996.
- Unceta, Koldo. Desarrollo, subdesarrollo, maldesarrollo y postdesarrollo. Una mirada transdisciplinar sobre el debate y sus implicaciones in Carta Latinoamericana. Uru-guaiko Amerika Latinoko Ekologia Sozialeko Zentroaren (CLAES) argitalpena, D3E Programaren esparruan (Garapena, Ekonomia, Berdintasuna eta Ekologia). 2010.
- Vargas, John. Problema agrario y desarrollo nacional. Umbrales. Garapen Zientzietako Graduatu Ondoko Aldizkaria. 13. zk. CIDES-UMSA. La Paz. 2005eko abendua. La Pazen, 2010eko urrian.

Erauzketaren pragmatismoa, boluntarismo patxamamista eta Boliviako aldaketa-prozesuko beste dilema batzuk

Marco A. Gandarillas Gonzáles¹

Hidrokarburoen nazionalizazioa herri-borrokaren lelo bateratzailea izan zen, eta, alderdi neoliberalak lurperatu egin zituzenez, transnazionalen eta euren toki-aliatuen aurkako indarren koerlazio berria sortu zen. Borroka horretan, proiektu neoliberalaren matrize klasista (aberats, enpresari, oligarka eta latifundisten aldekoa) eta nazioaren kontrakoa (AEBen eta transnazionalen atzerriko inbertsioaren menpekoa) geratu zen agerian. Hori dela eta, aldaketa-prozesua sortu zen, eta, Bolivia duela ia-ia 200 urtetik independentea zen arren, bertan nagusi zen Estatu kolonialaren (indigenen aurkako) zimenduak jarri zituen kolokan. Horri esker, erreforma instituzional juridiko zabala egin ahal izan zen prozesu konstituziogilean. Zenbait urte igaro ondoren, eragileen jarduna eta euren ekintzak ebaluatu behar dira. Izan ere, euren hegemonia sendotu dute, eta hauteskunde-terminoetan, behintzat, badirudi ukaezina dela, baina termino ekonomiko eta politikoen, ordea, ziurgabetasun handia sortzen du oraindik.

I. Erauzketaren pragmatismoa

Presidentetzak 2010eko abuztuaren 6an egindako txostenean adierazten denez, esportazioek gora egin dute azken urteotan, Evo Morales presidentetzara heldu zenetik. Epealdi neoliberallean (1985-2005), 1.000 milioi inguru dolarrekoak ziren batez beste, eta, azken lau urteotan (2006-2009) bost aldiz handiagoak dira. Faktore nabarienen artean, hidrokarburoak eta meategiak erauzteko industrien hedapena dago.

Txosten horren arabera, hidrokarburoen ekoizpena handitu egin bada ere, ez da ezoizpena eta ez luke berez esportazioen balioaren gehikuntza azkarra azalduko². Bertan, ordea, eragin handia izan du petrolioaren nazioarteko prezioaren igoerak,

¹ Marco A. Gandarillas Gonzáles Boliviako Dokumentazio eta Informazio Zentroko zuzendaria da (CEDIB).

² Hidrokarburoen ekoizpenaren gehikuntza milaka metro kubikokoa baino ez zen izan gas naturalari dagokionez: 2009ko 33,81 Mmcpd, 2005eko 33,04 Mmcpd-en aldean.

Boliviako gas naturalaren esportazio-prezioa erregaien otzararen nazioarteko prezioaren arabera zehazten delako.

Meatzaritzak ere gora egin zuen, nazioarteko testuinguruarekin (prezioen gehikuntzak) eta ekimen pribatu berriekin³ zerikusia duten zenbait faktoreren ondorioz. Beraz, prezio ezin garestiagoak kontuan hartuta, goranzko meatzaritzaziklo berri-rantz abiatu zen herrialdea⁴. Ziklo horren ondorioz, esportazioen balioa ikaragarri handitu zen, 2009an 2.055,7 milioi dolarrekoak izan zirelako 2005eko 644,9 milioi dolarrekoen aldean. Izan ere, lehen adierazi dugunez, prezioek gora egin zuten, eta ekoizpena handitu egin zen, aurrekaririk gabeko gorakada gertatzean, gehienetan aurreko epealdikoa baino %100 handiagoa izan zelako. Ziklo honetako beste adierazle bat egindako inbertsioak dira. Aurreko epealdi neoliberaleran, enpresa estatalek atzera egin zuten, ekoizpenaren arloko inbertsio publikoak ere atzera egin zuen. Epealdi berrian (2006-2009), ordea, inbertsio publikoek gora egin zuten, nazionalizatutako meatzaritzako sektoreen euskarri moduan. Hori dela eta, 2005ean meatzaritzan egindako inbertsio publikoak 6,1 milioi dolarrekoak izan baziren ere, biderkatu egin ziren, harik eta 2009an 48,2 milioira iritsi arte. Nolanahi ere, are garrantzitsuagoa izan zen inbertsio pribatuaren gehikuntza, 2002-2005eko epealdiko 387,3 milioi dolarreko metatutik, 1.158,7 milioira heldu zelako 2006-2009ko epealdian⁵.

Boliviako ekonomiako lehen mailako esportazio-eredua ez da aldatu. Lehen azaldu-tako datuak kontuan hartuta, sendotu egin dela baieztatu daiteke? Gobernuak hidrokarburoak nazionalizatzeko herri-eskaria bere egin duen arren eta, horren ondorioz, euren industrializazio-eskari implizitua⁶ gauzatu arren, onartu egin du ezer gutxi egin duela alde horretatik bere lehen agintaldian. Beraz, 2010eko urtarrilean hasitako bigarren agintaldian egingo duela agindu du.

2010-2015eko⁷ gobernu-programaren arabera, bigarren etapa horretan (hidrokarburoen nazionalizazioaren ostean), gas naturala lehengai moduan esportatu beharrean, industrializatu egin beharko litzateke. Alde horretatik, programak zenbait ekintza-lerro lehenesten ditu, eta 1. taulan egingo dugu euren laburpena.

³ Eztainuaren meatzaritzaz izan ezik, 2006an Huanuni Meatzaritzaz Enpresa nazionalizatzean, sektore estatalak sektore pribatu handia (meatzaritzaz ertaina) gainditu zuelako, nahiz eta sektore pribatu txikiak gainditu (meatzaritzaz txikia eta kooperatibizata). Kobrearen arloan, antzeko zerbait gertatu zen, baina neurri txikiagoan, Coro Coro proiektuko operazioak hasitakoan (Comibol enpresa estatalaren eta Korena KORES enpresaren arteko enpresa mistoa) 2009an 250 tona metriko fin hasi zelako ekoizten, hau da, pribatu handiek ekoiztitakoa baino apur bat gutxiago, 298 TMF, urte horretan bertan.

⁴ Aurreko epealdian (2002-2005), zinkaren libra finaren (LF) batez besteko prezioa 0,45 dolarrekoa izan zen. 2006-2009ko epealdian, ostera, libra finaren batez besteko prezioa 1,12 dolarrekoa izan zen. Eztainuaren libra finaren batez besteko prezioa 2,87 dolarrekoa izan zen 2002-2005ean, eta, gora egin zuenez, libra fina 6,27 dolarreko batez besteko preziora iritsi zen 2006-2009an. Urreari dagokionez, Troy ontzaren (OT) batez besteko prezioa 378,02 dolarrekoa zen, eta OT 787,29 dolarreko batez besteko preziora iritsi zen. Zilarren OTren prezioa 5,83 dolarrekoa zen, eta OT 13,59 dolarreko preziora iritsi zen. Gehikuntza berbera izan zen beste mineral batzuetan: beruna, wolframa eta kobrea.

⁵ Presidentetzak 2010eko abuztuaren 6an egindako txostena.

⁶ Eskari hori 2005eko maiatzean eta ekainean herri-mobilizazioari buruz egindako jardunaldietan azaldu zen.

⁷ MASEko kide nabari baten esanetan, programa honek funtsezko aldeak izan zituen aurrekoarekin (Evo Morales lehen aldiz presidente izendatu zutenean zeukan gobernu-programa): lehenengo gizarte-mugimenduetatik eratu zen eta herriaren eraldaketa-asmok hartu zituen kontuan; eta bigarrena ministerioetan egin zen, abian zeuden politikak publikoetako eranskin moduan, koherentzia handirik gabe eta bere gauzapenerako gizarte-mobilizazioa sortzeko gaitasunik gabe.

1. taula: Boliviako hidrokarburuak industrializatzeke ekintza-lerroak				
Lerro lehenetsia	Helburuak	Bitartekoak	Ballabideak	Epea
Hidrokarburuen erreserbak gehitzea	Hidrokarburuen erreserbak %50 igotzea, YPFren alde erreserbatuak guneetan egindako araketa intensiboaren bidez	<ul style="list-style-type: none"> YPFBren eta bazkide estrategikoen artean ekonomia mistoko sozietateak eratzea Petrolio-enpresen operazio-kontratupean dauden guneetako araketa bizilagotzea. 	DG	2010-2015
Hidrokarburuak ustiatzea	Gas naturalaren ekoizpena 41 metro kubikotik 70 metro kubikora igotzea	Lehendik dauden eremuak garatzea eta, horretarako, garapen-putzuak uzlatzea eta tratamendutiagaitz handitzea.	DG	DG
Petrolio gordina ekoiztea	Petrolio gordinaren ekoizpena handitzea	Sakonera txikiago erreserbak dituzten eremuak berrinterpretatzea eta ustiatzea (azaleko putzuak).	DG	DG
GLP ekoiztea	GLP ekoizteko ahalmena handitzea	Lantegi kriogeniko berriak jarzea.	DG	DG
Garraio-ahalmena garatzea	Hidrokarburuak garraiatzeko ahalmena garatzea, bame-merkatuko eskaria, industrializazioa eta esportazioa estaltzeko	Hedapen-proiektuak beteazatzea: <ul style="list-style-type: none"> • BARNÉ MERKATUA: 10 proiektu, guztira⁸ • ESPORTAZIORAKO MERKATUA: 2 proiektu, guztira⁹. 	861,8 milioi dolar	DG
Matrize energetikoa aldatzea eta gas naturalaren erabilera masifikatzea	Eguneko 73 tona metrikoko ordezkatzea GLPn, hau da, 10 kiloko 7.300 txanbil eguneko. Gutxi gorabehera, urteko 14 milioi dolarreko aurrezkia (kopuru hori inportatu behar izanez gero).	Gas Naturala Sareen bidez Hornitzeko Plan Nazionala beteazatzea, eta, bertan, etxeko 100.000tik gora urteko lotune egingo dira 2010. urtetik aurrera.	124 milioi dolarreko urteko inbertsioa	DG
Ibilgailuak Bihurtzeko Plan Nazionala	Eguneko 31 tona metrikoko ordezkatzea GLPn, eguneko 525 kupel gasolinetan eta eguneko 128 kupel diesel olietan. Hona hemen aurrezkia: urteko 6 inguru milioi dolar, 14,7 milioi dolar eta 3,5 milioi dolar, hurrenez hurren (produktua inportatu behar izanez gero).	Erregai likidoak eta GLP erabiltzen dituzten ibilgailuak bihurtzea eta gas naturala hedatzea erabiltzea (GNV): sektore publiko eta pribatuko 30.000 ibilgailu urtean.	DG	DG
Bitartegiak eta logistika	Bitartegitza ahalmena handitzea, segurtasun energetikoa hiruakozteko asmoz.	Diesel olietan, 70.697 m ³ -tik 214.152 m ³ -ra; gasolinetan, 36.545 m ³ -tik 122.061 m ³ -ra; eta, GLPn, 8.283 m ³ -tik 13.618 m ³ -ra. Izan ere, herrialdeko erdiguenerako ardatza eta beste udalerrri mugakide batzuk lehenetsia.	57 milioi dolarreko inbertsioa, gutxi gorabehera	2010-2015
Finketa	YPFB Refinación S.A. konpainiak eguneko 43.400 kupeleko finketa-ahalmena gehituko du 95.800 kupelela.	Eguneko 30.000-40.000 kupeleko ahalmena duen Topping Unitate berria handitzea, egokitzea eta abian jartzea.	338 milioi dolarreko inbertsioa	2010-2015

⁸ Honako hauek izango lirateke proiektuak: Carrasco-Cochabamba gasbidea hedatzea (GCC), Altiplanoko gasbidea hedatzea (GAA), Ende-Andina-Carrasco lotunea egitea, Taquiperenda-Cochabamba gasbidea hedatzea (GTC), Altiplanoko gasbiderako erreserba egitea (GAA), Sucre-Potosi gasbidea hedatzea (GSP), Villamontes-Iarija gasbideko III. fasea hedatzea (GVF), Santa Cruz hobetzea, Gasa iparralderantz hedatzea, Trinidad gasbidea hegoaldeko erdiguenerantz hedatzea, Hegoaldeko erdiguenerantz hedatzea.

⁹ Argentinako ipar-ekialdeko gasbidea (GNEA) eta beste proiektu txiki batzuk.

Lerro lehena	Helburuak	Biltarreak	Balibideak	Epea
La Pazko departamentuko findegia		La Pazko Iparraldeko araketa-lanetako emaitzen arabera eta nazio-mailan findutako hidrokarburoen arloan dagoen eskaeraren arabera.		
Gas naturala industrializatzea	Herraldearentzako mozkin gehiago lortzea. Honako hauxe sortzen du gasaren industrializazioak: balio erantsia, enplegu-iturria gehigarriak, teknologiaran transferentzia, diru-sarrera fiskal gehiago, azpiegitura industrialaren garapena.	<ul style="list-style-type: none"> • Diesel Ekologikoa Industrializatzeako Proiektua (GITL). Lantegiak eguneko 15.000 kupel ekoiztiko ditu, eta Tarjako Gran Chacoko eskualdean egongo da kokatuta. • Amoniakoa eta Urea Ekoizteko Lantegi Petrokimika, urteko 700 mila tona ongarrri mineral ekoiztiko (600, esportaziorako); eta, batez ere, amoniakoa eta urea. Proiektuaren ekoizpen-kostua tonako 130-180 dolarrekoa izango da urean, eta barne-merkatuan salduko omen da tonako 250-290 dolarren truke. • Gune Petrokimika, polietilenoa ekoizteko. Zerbait lantegi egongo dira: etano, etileno eta polietilenoaren eruzkeia eta euren zerbiztu-unitateak. Etanolan oinarrituta, bi polietileno-mota ekoiztiko dira: behe-dentitateko polietilenoa (PEBD) eta goi-dentitateko polietilenoa (PEAD). • "Petrocasas" Ekoizpen Lantegia. Industria petrokimikoaren instalazioa. Ekoizpen-ahalmena eguneko 20 etxekoa izango da eta inbertsioa 80 milioi dolarrekoa izango da, gutxi gora-behera. Ekoizpena 2010. urtearen erdialdean hasi da, eta, horretarako, YPEB Korporatiboaren eta Venezuelako Petrokimikoaren (PECUVEN) arteko sozietate anonimo mistoa sortu da. • Hidrokarburoetako Ikerketa eta Bertikuntza Teknologikorako Zentroa (CITIH), hidrokarburoen industriari beharrezkoak diren zerbiztu teknikoak emateko. Ikerketak egiteko eta teknologia garatzeko. 		
Gasas Bete-beitean Hornitzeko Plana	<ul style="list-style-type: none"> • Mendebaldeko departamentuetan, eskala handi eta ertaineko industrializazio-prozesu guztiei behar beste energia hornitzea. • Litoaren eta zementuaren industrializazio-prozesuek, elikagaitzako agroindustriak eta beste batzuek energia-fluxu iraunkor bezain egokia izango dute bermatuta, instalatzeko eta abian jartzeko orduan. 			

DG: Daturik gabeko iturria: MAS - IPSP Sozialismorako Mugimendua. Ondo Bizitzeko Bolivia. 2010-2015eko Gobernu Programa. Bertan egina.

Azken batean, nahiz eta programan hidrokarburoen industrializatorako jarduketa es-tatalen katea edo sekuentzia azaldu (1. taulan daude laburtuta), arlo honetako proiektuak lau baino ez dira¹⁰. Proiektuok Morales presidentearen lehen agintaldian dis-einatu eta eraiki arren, oso atzerapen larriak dituzte ezartzeko orduan, Presidentetzak 2010eko abuztuan egindako txostenean adierazten denez. Horren arabera, GTL Lante-giak ezarpenerako duen finantziarioko 3.535 mila milioi bolivianoetatik (505 milioi inguru dolar), oraindik ez da boliviano bakar bat ere egikaritu. Gauza bera gertatzen da ongarrien ekoizpenerako Lantegi Petrokimikoarekin, programaren aurrekontua 8.837 mila milioi bolivianoekoa bada ere (1.262 mila milioi dolar, gutxi gorabehera), 5.656 boliviano baino ez dira egikaritu (808 dolar). Ezarpenerako kronogramarik ez dagoenez eta beste industria eta ekoizpen-sektore batzuekin lotunerik ez duenez, agerikoa da industrializatorako berezko estrategiarik ez dagoela.

Zergatik? Hainbat urteren ostean, Brasilekin eta Argentinarekin gas naturalaren arloko esportazio-betebeharrak betetzea da lehentasunezkoa, eta, batez ere, atzerriko enpre-sak dira negozio horren onuradunak. Beraz, Bolivian hidrokarburoak industrializatuko balira, eragina handia izango litzateke eurentzat, gaur egun mugaz bestaldean eral-datzen den lehengaiari ateratzen diotelako onura¹¹. Dena dela, industrializazio-proze-su horiek abian jartzen badira, herrialde horietako enpresak negozioan parte hartu nahi izango lukete¹². Hain zuzen ere, orain dela gutxi horrelaxe iragarri zuen Brasilek Bolivian daukan enbaxadore berriak: "Inbertsiorako beste proiektu handi bat petrokimikaren esparrukoa da. Braskem enpresa negoziatzen ari da, eta oso ona izan-go litzateke Bolivian 2.500 milioi dolarreko lantegi petrokimikoa eraikitzea¹³".

2010-2015eko gobernu-programari eutsita, honako hauxe adierazten da bertan: "Koloniarren garaitik, Bolivia herrialde meatzaria izan zen. Edonola ere, jarduera hori erazketara mugatu zen. Meategietan lan egiten zuten, eta mea hori lehengai modu-an esportatzen zen kanpoko merkatuetara, balio erantsidun inolako garapen industri-alik sortu gabe." (79. or.). Nabaritasun horren aurrean, "Estatuak" meatzaritza-kate osoan "zuzenean esku hartzea" proposatzen da¹⁴. Horretarako, programak zenbait ekintza antolatu ditu, eta 2. taulan azaltzen da euren laburpena.

¹⁰ Prozesu honetako emaitza barik, CITH betekizuna edo baldintza dela kontuan hartuta.

¹¹ Lehengai hori ez da osagai gaseosoak eta likidoak banatzeko oinarritzko prozesutik igarotzen ere, esportatua izan baino lehen. Hori dela eta, gordinean esportatutako baliabidea da. Evo Moralesen lehen agintaldian, YPFB enpresarentzat ez-inbestekoa zen esportaziorako gas naturalaren osagai likidoak berreskuratzea. Horretarako, Rio Granden Likidoak Ba-natzeko Lantegia eraikitzeko agindua eman zuen. Hala ere, garai hartan estataleko presidentea zenaren ustelkeria-eskan-daluaren aitzakiapean (presidentearen konfiantzako gizona zen), orain dela urtebetetik gora geldiarazi zuten. Horren ondorioz, Boliviaren proiektu hori berriro atzeratu behar izan dute. Inolako zalantzarik gabe, Brasilen eta Argentinan gasa erosten duten enpresak izan dira erabaki horren onuradun nagusiak, hau da, PETROBRAS eta REPSOL.

¹² Evo Morales presidentea denetik, zenbait herrialdek egin dizkiote eskaintzak (hamabik baino gehiagok. Eskaintza horiek, ordea, ez dira zehaztu, beharbada enpresa horiek bilatzen duten bideragarritasuna lortzeko, Boliviako estatuak ekimene-tako hasierako eta oinarritzko baliabideak utzi beharko lituzke alde batera. Horrela, inbertsioaren arriskua murriztuko litzateke. Hipotesia baino ez da.

¹³ Brasilgo Braskem negoziatzen ari da, Bolivian lantegi petrokimikoa jartzeko: Plataforma Energetikoa (La Paz, 10/09/08).

¹⁴ Alde horretatik, 2006. urtetik, gobernuak zenbait neurri ezarri ditu: Huanuni, Vinto meatzaritza-enpresak nazional-izatzea, meatzaritzako erreserba fiskala ezartzea eta Meatzaritzako Zerga Osagarriaren orde (1992tik zegoen indarrean, eta, horren arabera, mineralak erazteagatik zergak ordaindu behar ziren: ekoiztiko balioaren %1-%3) %1 eta %10 arteko kanona ezartzen duen Meatzaritza Erregalia ezartzea.

2. Taula: Meataritza eredu berriko ekintza lerroak				
I. Meataritza biziberritzea eta sustatzea				
Proiektua	Helburuak	Bitartekoak	Ballabideak	Epea
Meategien kolak eta lur-erazketak era antolatuan ustiatzea COMIBOLen kontrolpean (Catavi, Siglo XX eta beste batzuk)				
Huanuni Meataritza Enpresarako Meataritzako Asmakizun Berria (Oruro)	Asmakizun berria jartzea, eguneko 3.000 tona tratatzeko.		52,5 milioi dolarreko inbertsioa, gutxi gorabehera	
Kooperatibei laguntzea, Meataritza FI-nantzatzeko Fondoaren bidez (FOFIM)		Meataritza Ministerioak FOFIM sortu eta administratu egingo du.	20 milioi dolarreko fondoa, meataritzako kooperatibei kredituak emateko eta euren inbertsio zein operazioetarako erabiltzeko.	
Prezioei eustea	Behar den moduko tresna edukitzea, mineralen prezioen jaitsierei aurre egiteko eta ekoizleei konpentsazio ekonomikoa emateko.	Mimeralen Prezioak Egonkortzeko Kontua sendotzea (CEPREM).	Hasiera batean, 6 milioi dolar daude fondoan.	
Karachipampako metalgintzako gunea biziberritzea (Potosi)	Karachipampako metalgintzako guneren eskakizuna estaltzea, urtebetean berun-zilar kontzentratuen arloan 51 mila tona ekoizteko.	COMIBOLEk eta Atlas Precious Metals enpresak partekatutako arrisku-kontratupean inbertitzea. Zink-findegia jartzea eta azido sulfurikoa ekoiztea.	140 milioi dolarreko inbertsioa	
Herralde osoan araketa eta prospekzioak egitea	Estatuak meataritzan abian jarritako eragiketei eustea	Hasiera batean, meataritzako araketa eta prospekzioa egitea hemen: La Paz (La Pazko iparraldea, Charazani, Pelechuco eta beste batzuk); Oruro (Elba Arizona, San Francisco); Potosi (Yarvicoya, Chilco, Avaroa, El Asiento, Cobrizos eta beste batzuk); Santa Cruz (Guarayosko probintzia).		
II. Industrializazio proiektuak				
Mutungo burdingintzako gunea eraikitzea (Puerto Suárez, Santa Cruz)	Jindallekin sinatutako kontratua betetzea, 2.100 milioi dolar inbertitzeko, Estatuarentzako 200 milioi dolar diru-sarrerara sortzeko eta 4.000 lanpostu zuzen sortzeko.	Apurka-apurka industrializazio-prozesuan aurrera egitea, burdin kontzentratuak, burdin belakia, briketatua, plantxoieta altzairua, totxoak eta laminatuak lortzeko.		
Estatuaren kontrolpeko eremu-tako burdina-hobiak industrializatzea	Mutungo burdingintza era estrategikoan garatzea, burdinaren tratamendu industrialerako prozesuan aurrera egiteko.			

Kooperatiben ekoizpena industrializatzekeo prozesuak sustatzea	Meataritza-ekoizpen kooperatiboa industrializatzea.	Meataritzako zama prozesatzeko asmakizunak erostea eta eraikitzea.	
Cororoko gune hidrometalurgikoa instalatzea eta abian jartzea (La Paz)	CoroCoroko kobrea industrializatzea. Industrializazioaren aroan sartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • 2013an, COMIBOLEk urteko 50 mila inguru tona metrikoko fin ekoiztiko dituen kobreaken arloan. Ekoizpen hori kabletarako metalezko kobrea egiteko erabiliko da. • Xafletako eta laminetako kobrea elektrolitikoaren industria garatzea, energia elektrikoa garratatzeko. 	210 milioi dolarreko inbertsioa.
Litioaren industria garatzea, Salar de Uyuni (Potosi)		<ul style="list-style-type: none"> • Industrializazio-prozesuaren lehen fasean, litio karbonatoa, azido borikoa eta potasio sulfatoa lortuko da. • Bigarren fasean, ordea, litiozko bateriak eta beste gailu batzuk ekoiztiko dira, industriei energia emateko: esate baterako, automotrizari. <p>Litioa Ustiatu eta Industrializatzekeo Plana. Honako fase haueetan egongo da banatuta:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Litio karbonatorako lantegi eredu-garriaren instalazioa Potosin, litioaren industrializazioarako prozesuaren malla, kalitatea eta bideragarritasun ekonomikoa zehazteko. Fase eredu-garri honetan, 40 Tm litio karbonato ekoiztiko dira hilean. 2. Honako hauek eskala handiko ekoizpena: litio karbonatoa (20.000-30.000 TM urteko), kloruroa eta potasio sulfatoa (400.000 TM urteko), azido borikoa (20.000 TM urteko) eta magnesio kloruroa. Bigarren fasean, ostera, litio kloruroa, litio hidroxidoa eta metalezko litioa ekoiztiko dira. 3. Metalezko litioaren bidez, goi-teknologiako baterien ekoizpena industrialia, kontsumo handiko industria elektronikoaren munduko merkatua hornitzeke. 4. Estatuaren kontrolpeko enpresa arloko proiektuak eta ekimenak garatzea, litiozko toi-baterien bidez dabilizan motor elektrikoetan oinarritutako industria automotrizatza jartzeko. 	Lantegi bakoitzerako inbertsioa: 250 milioi dolar.
Zink-lantegi hidrometalurgikoa bi eraikitzea (Oruro eta Potosi)	Oinarritzeak dira, meataritza ar industriallean sartzeko.		
Ausmelt gaidaketa-labea jartzea (Vinto metalgintzako enpresa, Oruro)	<ul style="list-style-type: none"> • Galdatzeko ahalmena bikoiztu da, harik eta urteko 17.000 tona metrikoko finera iritsi arte. • Kontzentratuen osagai ballotsuenak lortu ahal izango dira. 		25 milioi dolar.

DG: Daturik gabe

Iturria: MAS - IPSP Sozialismorako Mugimendua. Ondo Bizitzeko Bolivia. 2010-2015eko Gobernu Programa. Berton egina.

Lehenengo eta behin, 2. taulan laburtutako industrializazio-proiektuak kontuan hartuta, nabarmendu egin behar da euretako bi, Mutungo metalgintzako gunea eta CoroCoroko gunea hidrometalurgikoa, Boliviako Estatuaren eta transnazionalen arteko (Jindall eta Kores) ekimen mistoak direla. Beste bat meatzaritzako kooperatiben sektore pribatu txikiari dagokio¹⁵, eta gainerako laurak Estatuaren ekimenak dira.

Bestetik, programan proposatutako industrializazioaren ezaugarriak zehaztu behar dira, hau da, industrializazio-proiektuetan amaitutako produktuen lorpena kontuan hartu den ala ez. Alde horretatik, hiru proiektuk baino ez dute hori kontuan hartzen (euren bigarren faseetan, gainera): Mutungo burdingintzako proiektua eta plantxoi, totxo eta laminatuetako altzairuaren ekoizpena; CoroCoroko proiektu hidrometalurgikoa eta kabletarako metalezko kobreaken eta energia elektrikoaren garraiorako kobrezko produktuen ekoizpena; eta litioaren industrializazioa eta litiozko baterien ekoizpena. Berrito ere, ez dago argi programan proposatutako proiektuak industrializazio-prozesuetan hartu daitezkeen ala ez. Agerikoa da proiektuak direla¹⁶, baina ez da industrializazio-prozesu sistematikoa azaltzen, herrialdeko ekonomiak edo plan ekonomikoek lehen mailako esportazio-eredua gainditu dezaten.

Ekonomia eta Herri Finantzarako Ministerioak egindako "The bolivian economic performance and investment program 2010-2015" programaren arabera, bost urteko epealdi horretan Boliviako Estatuak 7.294 mila milioi dolar inbertituko ditu meatzaritzan¹⁷, hau da, epealdi horretako inbertsio publiko guztien %22,2¹⁸. Proiektu guztien 3. taulan ikustenenez, industrializatorako proiektuek aurrekontu handiagoa izango lukete, litioaren industrializatorako proiektuak eta Mutungo proiektuak zenbaterako osoaren %84,3 hartzen dutelako.

Prozesua denez, hau da, urratsez urrats garatu beharreko etapak direnez, Presidentetzaren txosteneko datuen arabera agerikoa da zein den orain arteko aurrerapen-maila, inbertsioen oinarritzako adierazlea erabilita. Txostenean adierazten denez, meatzaritzaren sektorerako inbertsio publikoak 3,6 milioi dolarrekoak izan dira 2006an; 11,4, 2007an; 38,3, 2008an; eta 48,2, 2009an. Guztira, 101,5 milioi izan dira azken lau urteotan (egia esan, errekorra da, aurreko epealdiaren aldean, bertan 10 milioi inguru baino ez zirelako inbertitu). Datu horiek meatzaritzako sektore pribatuko datuekin erkatuz gero, azken hori nagusi da, aipatutako epealdian 1.158,7 milioi dolarrekoa

¹⁵ Meatzaritzako kooperatiben azalpen zabala: "Cooperativas Mineras en Bolivia", Joselyn Michard, 2008 CEDIB. www.cedib.org

¹⁶ Estatuaren kontrolpeko eremueta burdin hobiak industrializatzeko proiektuei dagokienez, programan ez dira bitartekoak, baliabideak eta epeak zehazten. Beraz, elementu horiek ez badaude, badirudi horretarako estrategiarik ez dagoela edo oraindik prestatzen ari direla. Modu berean, litioa industrializatzeko proiektuaren adibide bat hartuta, litiozko ioi-baterien bidez dabilizan motor elektrikoetan oinarritutako industria automotrizat jartzeko proiektuan ere ez da eperik, bitartekorik eta baliabiderik zehazten, nahiz eta funtsezkoak izan, ekimenaren bideragarritasunari buruz hitz egitean. Izan ere, oso kontuan hartu behar da metalezko litioaren ekoizpena abian jartzeko 20 urte ere behar izango liratekeela.

¹⁷ Horrez gain, 300 milioi dolar daude aurreikusita, litiozko baterien ekoizpenerako lantegiak jartzeko.

¹⁸ Taulan adierazten denez, Kores enpresak egin beharreko atzerriko inbertsioa azaltzen da proiektuan.

izan delako guztira¹⁹. Dena dela, meatzaritza industrializatzeko programa asmo handi-koia dela kontuan hartuta (horretarako erabiliko diren baliabide publikoei erreparatuz gero), kezka garria da hainbat atzerapen egotea. Izan ere, porrot egin lezakete edo bideraezinak izan litezke, 2015aren ostean gobernu aldaketak balitz, esate baterako.

Hala ere, Moralesen gobernuaren aurretiko urteetan atzerriko inbertsio zuzenaren fluxuak nolabait gelditu diren bitartean barruko krisiaren ondorioz, antza), berarekin nolabait suspertu dira, 2006an 278 milioi dolarrekoak izan zirelako; 2007an, 362; 2008an, 508; eta, 2009an, 426 (batez beste, 393 milioi urtean). Edonola ere, oraindik 1995. eta 2002. urteen artean gertatutakoaren azpitik daude, batez beste urteko 600 milioi dolarretik gorakoa izan zelako²⁰.

Epealdi neoliberallean, inbertsio publikoa atzerriko inbertsioa baino askoz handiagoa izan zela kontuan hartuta eta azken horri "(...) atzerriko eta nazioekiko ekimen pribatuari lehiakortasun handiagoa eman eta ekimen hori sustatuko zuen azpiegitura hura" eskaini ziola kontuan hartuta (CEDIB - OMAL. PAZ CON DIGNIDAD. 2010. 166. or.), ebaluatu egin behar dugu aldaketa-prozesua neoliberalismoko inbertsio publikoaren eredu aldatzen ari den. Horri dagokionez, honako hauxe dio Pablo Villegasek (2010): "2000. urtean, nazioekiko aurrekontu orokorraren %35 azpiegiturretan inbertitu zen; eta, 2009an, %47%. Beraz, agerikoa da (...) neoliberalismoko inbertsioen egitura aldatu ez dela (...) "²¹.

"The bolivian economic performance and investment program 2010-2015" programaren azterketari berriro eutsita, argi eta garbi dago programatutako 32.837 mila milioi dolarretatik 26.524 mila milioi (%80,8) lau sektoretara joango direla: meatzaritza, hidrokarburoak, energia elektrikoa eta garraioa. Lehen hidrokarburoen eta meatzaritzaren sektoreetan aipatutako proiektuetatik haratago, garraiorako inbertsio berrietan Hego Amerikako Eskualdeko Azpiegitura Integratzeko Ekimenekoak (IIRSA) dira nagusi²².

¹⁹ Meatzaritzarako inbertsio pribatuak 327,8 milioi dolarrekoak izan dira 2006an; 399,8, 2007an; 303,7, 2008an; eta 127,4, 2009an. Zenbaki horiek Evo Moralesen gobernuaren aurretiko epealdikoekin erkatuz gero, agerikoa da ia-ia %200 hazi direla. Hain zuzen ere, 2002-2005eko epealdian, meatzaritzarako inbertsio pribatuak 387,3 milioi dolarrekoak izan ziren guztira.

²⁰ Liburu honetan, Moralesen gobernuaren aurretiko epealdiko atzerriko inbertsioaren ezaugarri buruzko azterketa zabala eskaintzen da: Las multinacionales españolas en Bolivia: de la desnacionalización al proceso de cambio. Zenbait autoreren artean. CEDIB - OMAL PAZ CON DIGNIDAD. 2010.

²¹ Petropress aldizkarian, 18. zk. 2010eko urtarrila. CEDIB. Era berean, nabarmendu egin behar da neoliberalismotik aurrera ekoizpeneko inbertsioa erabat jaitsi dela.

²² Honako hauek daude IIRSA-n sartuta: garraioak, energia, telekomunikazioak eta legeria egokia.

3. Taula: Meatzaritzako proiektuetako inbertsioa	
Proiektuak	Inbertsioak
Litioaren industrializazioa - Salar de Uyuni (Potosi) - Oinarritzako produktu kimikoak	2.500
Zink-lantegi hidrometalurgiko bi (Oruro - Potosi)	500
Azido sulfurikorako lantegien instalazioa	120
Galdaketa-labeen instalazioa (Vinto Oruro)	20
Karachipampako metalen berreskurapena (Potosi)	140
Mapa geologikoen sorrera	40
Estatuko meatzaritzaren mekanikazioa	115
Mutungo ustiatagia (%50, ez da esleitua)	3.645
CoroCoro (atzerriko inbertsio zuzena)	214
Inbertsioak guztira	7.294

Iturria: Berton egina, The bolivian economic performance and investment program 2010-2015 programaren arabera. Ekonomia eta Herri Finantzetako Ministerioa.

Hain zuzen ere, bide-azpiegituretarako inbertsioak oso-oso garrantzitsuak dira IIRSA-ko estrategiaren barruan. Villegasek dioenez (2010), "2005-2010erako IIRSAren Agenda betez gero, Boliviak \$USD 690 milioi edukiko ditu inbertituta Ozeano arteko Ardatz Nagusian (...)". Beraz, orain arte Boliviak batez ere Txilerentzat eta Brasilentzat onuragarria izango den ardatzerako \$USD 1143,7 milioien %60 baino gehiago ordaindu du" (Petropress, 18. zk.). Alde horretatik, gobernua hurrengo bosturtekorako egindako inbertsio-programaren arabera, 1.637 mila milioi dolar inbertituko dira errepide eta zubi-etan; eta 2.680, trenetan. Guzti-guztiak IIRSAko proiektuak dira.

Ildo beretik, sei proiektu hidroelektriko daude (hiru esportaziorako dira; eta beste hiru, barne-merkatuarako), eta euren inbertsioa 6.585 mila milioi dolarrekoa izango da. Eurretatik, %84,1 (5.540 mila milioi) esportaziorako energia elektrikoa sortzeko erabiliko dira. Euretako bat, garestiena, 2.500 mila milioi dolarreko Cachuela Esperanza hidroelektrika, IIRSAko funtsezko osagaia da²³.


IIRSAk Boliviako subiranotasunean nolako eraginak dituen kontuan hartuta, Evo Moralesek gaitzetsi egin zuen presidenteen 2006ko goi-bileran (2006): obren eraginpeko herriak, Amazonasko ingurumena, baliabide naturalen arpilaketa, lehen mailako ereduaren finkapena eta herrialdearen menpetasuna²⁴.

²³ Horrez gain, presa horrek Brasillgo presen bizitza luzatuko du, lokatza (jalkina) geldiaraziko duelako, hau da, presen bizitza tekniko murrizten duen faktorea.

²⁴ "Gure herrirentzako integrazio fisikoa eta ez bakarrik esportatzeko. Bide-azpiegitura, hidrobideak eta barnebidetarako garatu behar ditugu, mundura gehiago esportatzeko eta, batez ere, Hego Amerikako herrien artean komunikatzeko, ingurumena errespetatuta eta asimetriki murriztuta. Esparru horretan, Hego Amerikako Eskualdeko Azpiegitura Integratzeko Ekimena (IIRSA) berrikusi behar dugu, jendearen kezak kontuan hartzeko, garapen-poloen esparruan errepideak ikusi nahi dituelako eta ez miseriarne barnebidetan zehar esportaziorako edukiontzien gurutzatzen dituzten autopistak eta kanpo-zorpeketaren gehikuntza". Geure herriekin eratu dezagun "Ondo Bizitzeko" Hego Amerikako Nazioen benetako Erkidegoa. Evo Morales Ayma presidentearen proposamena. Boliviako Errepublikako presidentea. La Paz, 2006ko urriaren 2an.

Zergatik inbertitzen du gehien proiektu horren inguruko ohartarazpena egin zuen lehen gobernua? Inbertsioen plan aipatuak horri buruzko informazio baliotsua eskaintzen du, proiektu hidroelektrikoek guztira urteko 1.124 mila milioi dolar sortuko lituzketela adieraztean²⁵. Hau da, nazioko ustezko diru-sarrerara berri eta nagusiak izango lirateke, 2009an 1.168 mila milioi sortu zituzten hidrokarburoekin eta urte berean 103,58 milioi dolar sortu zituen meatzaritzarekin batera²⁶.

Hasieratik, Estatuko enpresa estrategikoak pribatizatu osteko eredu fiskalaren ondorioz, herritarrek zerga gehiago ordaindu behar zituzten. Eredu neoliberalaren ondorioz sortutako lan-ezegonkortasuna kontuan hartuta, zerga horiengatik oso zaila zen diru-sarrerarako edo ondarerako errentak zehaztea. Beraz, NDFko teknokratentzat, askoz egokiagoa zen ondasun eta zerbitzuen kontsumoa kargatzeko zeharkako zergak ezartzea. Hori dela eta, Villegasek dioenez, diru-sarrera handiagoen premietara egokitzeko, zerga-legeria izan da neoliberalismoan gehien eraldatu zen legeria²⁷. Horregatik, ez da harritzeko azken 20 urteotako zerga-karga antzinako enpresa estataletatik kontsumitzaile eta langileengana pasatzea. Evo Moralesekin, erauzketa-sektoreetako eta, batez ere, hidrokarburoetako diru-sarrerak birsortu dira, oraindik ere zeharkako zergen ondorioz lortutako diru-sarrerak ere garrantzitsuak izan arren. 1. grafikoan, Boliviako diru-sarrera publikoek herritarren zergetan duten menpetasunaren joera azaltzen da.



Iturria: Berton egina, 2009ko Txosten Fiskaleko datuen arabera. Boliviako Ekonomia eta Herri Finantzetako Ministerioa.

²⁵ Zenbatespenen arabera, Cachueta Esperanza hidroelektrikari esker, 359 milioi dolar sortuko dira; Rositasen, 146; eta El Balan, 619, hurrenez hurren.

²⁶ Meatzaritzako zerga-sistema aldatzean, zerga eta erregaliengatik diru-sarrera estatalak handitu egin dira, 2002-2005eko epealdian lortutako 56,37 milioi dolarretatik 2006-2010eko epealdiko 439,15 Milioi dolarretara igo direlako (%247ko gehikuntza).

²⁷ "Hasiera batean, neoliberalismoak ezin zituen enpresa publikoak alde batera utzi. Esan gabe doa ereduaren euskarri ekonomiko nagusia, diru-sarreraren %85, YPFB petrolio-konpainia estatalekoak zirela. Diru-sarrera hori ordezkatzeko, ekonomia atzerriko inbertsioaren ondorioz biziberritzean biztanleentzako nahikoa lanpostu eta diru-sarrera sortuko zirela uste zuten. Horrela, bada, egoera horren ondorioz sortutako diru-sarrerak estatuaren eta bere betebeharren euskarria izango lirateke: eta, euren artean, kanpoko zorra ordaindu beharra zegoen." (16. or.) Multinacionales Españolas en Bolivia. CEDIB - OMAL. PAZ CON DIGNIDAD. 2010.

Hain zuzen ere, 2000. urtean zeharkako zergak aurrekontu publikoaren %70 baino gehiago baziren ere, 2008an %50 baino gutxiago ziren. Bestetik, erauzketa-industriek sortutako diru-sarrerak (hidrokarburoetakoe, batez ere) partaidetza handiagoa dute nazioko diru-sarreretan, 2000ko %10etik 2008ko %30era igo dira-eta. Gobernuko maila azpinazionalak egoera berri horretako irabazle handiak izan dira, baliabide naturaletatik datozen diru-sarreraren %66 jasotzen dituztelako²⁸.

Epe laburrerako logika pragmatikoari eutsita, gobernua diru-sarreraren beste iturri bat ziurtatu nahi du "senak" lehengaien prezioen gorakadari onura ateratzea gomendatzen duen garaian²⁹. Neoliberalismoan, Bolivian eta eskualdeko herrialde guztietan agerikoa da baliabide natural eta lehengaietatik datozen diru-sarrera publikoen menpe daudela. "Gaur egun, Amerika Latinoko herrialdeetako diru-sarrera fiskalen %24 lehengaien esportazioaren menpe dago (...). 2004tik 2008ra, lehengaien esportazioak diru-sarrera fiskalen %10-%49koak izan ziren Argentinan (nekazaritzako lehengaiak), Txilen (kobrea), Kolonbian (petrolio), Mexiko (hidrokarburoak), Perun (meatarritza) eta Venezuelen (hidrokarburoak)³⁰".

Hori dela eta, gobernu nazionala eta, batez ere, erauzketa-industria oparoak zituzten eskualdeetako gobernu azpinazionala, euren pragmatismoa justifikatzeko nolabaiteko dekalogoak sortu da. Pragmatismo horren arabera, hain zuzen ere, baldintza abantailatsuak eskaintzen dizkiete atzerriko enpresei, euren diru-sarrera publikoen iturria diren erauzketa eta esportazioaren arduradunak direlako. Presidentetzaren txostenean, nabarmendu egiten da 2000-2005ean prefekturak, udalerriak eta unibertsitateak edukitako 18.729 mila milioi bolivianoen aldean, hurrengo epealdian (2006-2009), gobernu berria iristean, gobernu azpinazionalen eta unibertsitate publikoen diru-sarrerak 46.749 mila milioi boliviano baino gehiago izatera irazteko zereginak izango direla.

Evo Moralesen gobernu egoera horri eustera behartu dute, zerga-baldintza neoliberalak inposatu zizkiotako edo bere administrazioaren aurretikoak zirelako. Gainera, oso kontuan hartu behar da gas natural gehiena ustiatzen duen eskualdeko eskuineko oposizioaren bandera handienetakoa izan dela³¹. Hala ere, egia ere bada horretara behartu dutela, finantza-publikoak eta sektore nazionalizatuak nola kudeatu dituen eta eskualdeetako oligarkiekin eta transnazionalekin sortutako gatazkei nola aurre egin dien kontuan hartuta, zerga-eredu hori egin duelako zilegi. Horrela, bada,

²⁸ Erauzketa-jardueretatik datorren errenta fiskalaren kudeaketa. La Pazen, 2010eko abuztuaren 26an. CEDLA.

²⁹ Neoliberalismoak bere zentzua ezarri zuen. Bere kontsignak egitate guztiei aurka egiten dieten egia eztabaidaekin dira. Harveyk dioenez, "epe laburrean, neoliberalismoak hegemonikoa izatea lortu du, diskurtso-modua da eta nonahiko ondorioak ditu pentsaera eta jardun politiko eta ekonomikoetan. Hori dela eta, mundua interpretatzeko, bizitzeko eta ulertzeko erabiltzen dugun zentzuaren osagaia da gaur egun." Neoliberalismoa, suntsipen sortzailea. David Harvey. *The ANNALS of the American Academy of Political and Social Science* 2007. Germán Leyensek ingelesetik *Rebelión-entzatzituzia*.

³⁰ SENA FOBOMADE. Nueva receta del "desarrollo" del Banco Mundial: Explotar recursos naturales, exportar materias primas y acumular renta. 2010eko irailaren 17a.

³¹ Marco Gandarillas González. En torno a la distribución de los ingresos hidrocarburíferos: El regionalismo favorece a las transnacionales. *Petropress aldizkaria*, 7. zk., 2007ko urria. Era berean, ikus *El dialogo sobre el IDH*. *Petropress aldizkaria*, 12. zk. 2008ko urria; eta *La falsa disputa de las prefecturas por los recursos del IDH*. *Petropress aldizkaria*, 8. zk., 2008ko martxoa.

zehatz-mehatz bete beharrean dago. Horrez gain, Konstituzioko testu berrian (368. artikuluan), hidrokarburoak nazionalizatzeko 28701. dekretuan bertan eta petrolio-konpainia transnasionalekin sinatutako kontratu berrietan.

Horretan zerikusi handia dute Munduko Bankuak eta antzeko alderdi anitzeko erakundeek, Moralesen gobernuaren aholkulari bihurtuta, lehengaien esportazio handiagoetan oinarritutako zerga-politiken jarraipena sustatzen dutelako³², besteak beste, eta, horiekin batera, txirotasunaren aurkako politikak bultzatzen dituztelakoaldi berean, presidentearen irudia hobetzeko asmoz³³. Izan ere, gobernu azpinazonelek euren ezohiko baliabideen zati handiena azpiegituretan eta euren burokrazien zabalakuntzan inbertitu duten bitartean³⁴, gobernu nazionala Diru Transferentzia Baldintzatuen politikaz jabetu da, eta, horretarako, txiroen aldeko programak sortu edo birsortu egin ditu: Errenta Duina, Juancito Pinto Bonua eta Juana Azurduy de Padilla Bonua³⁵.

Antonio Rodríguez ustez (konp. 2008), Evo Moralesen lehen agintaldian, "inolako zalantzarik gabe, politika guztiek eragin onuragarria zuten txirotasun "bigunean", baina zailagoa zen txirotasunaren osagai gogorrenei aurre egitea: bazterketa politikoa eta ekonomikoa". Txiroen aldeko politiketan, Boliviako biztanleen %28,3 hartzen dituzte kontuan (2.914.195 onuradun): Errenta Duina, biztanleen %7,7 (804.746 adineko); Juana Azurduy Bonua, %3,7 (380.698 emakume); Juancito Pinto Bonua, %16,9 (1.728.751 ume eta nerabe)³⁶. Neoliberalismoko politika sozial horren atzean, "txirotasun gorriaren" kontzeptua dago, eta, horren arabera, txirotasuna ez da egiturazko arazoan adierazpidea. Hori dela eta, ez dago politikoko ekonomiko subiranoaren bidez gaindizterik, horretarako desberdintasunak gutxitu behar direlako, txiroentzako edo gutxien dutentzako bonuen eta dohaintzen bitartez.

Berri ere, ez da Boliviako egoera eskusiboa. Izan ere, alderdi anitzeko erakundeek erauzketa-errentak txiroen alde birbanatzeko mekanismoak bideratzen dituztenez, Alberto Acostaren esanetan, "bonukrazia klientelarra" sortuko litzateke eskualdean. Rocío Moreno mexikarrak dioenez, "gure herrialdeetan ez dago petrolioaren errentaz

³² Villegasek berregituraketa sakona iragarri du YPFbn. ABI, 2009ko martxoaren 23a.

³³ Ikus Recursos naturales en América Latina y el Caribe: ¿más allá del ciclo de auge y caída? Munduko Bankua edo América Latina puede evitar la maldición de los recursos naturales: cronista.com

³⁴ Amerika Latinoko Erauzketa Industrien Sarearen 2. Foro Latinoamerikarrean aurkeztutako agiria araberako, "2008ko udal-gastu handiena (%42,10 baino gehiago) gastu arruntera eta oinarriko azpiegituretara bideratu zen. Modu berean, urte berean prefektoretako gastua %47koa izan zen kontu-sail berberetan". Erauzketa-jardueretatik datorren zerga-errentaren kudeaketa. La Pazen, 2010eko abuztuaren 26an. CEDLA.

³⁵ "Diru Transferentzia Baldintzatuen programen bidez (TMC), familia txiroei transferitzen zaie eskudirua, familia horiek aurretiaz zehaztutako inbertsioak egin ditzaten euren umeen giza kapitalean. Oro har, osasun eta nutrizio arloko baldintzei dagokienez, aldiari aldiko kontrolak egin behar dituzte, 5 urtetik beherako umeen hazkuntzaren eta txertaketan jarraipena egin behar da, jaiotza inguruko atentzioa eman behar zaie amei eta amak euren osasunari buruzko informazioa eskaintzen duten aldiari aldiko hitzaldietara joan behar dira. Honako hauek dira hezkuntzaren arloko baldintzak: eskolako matrikula, %80 eta %85 arteko asistentzia eta, lantzean behin, jardunaren adierazleren bat. TMCKo programa gehienek familiako amari transferitzen diote dirua: edo, batzuetan, ikasleari." Ariel Fiszbein eta Norbert Schady. Transferencias monetarias condicionadas reduciendo la pobreza actual y futura. Munduko Bankua. 2009.

³⁶ ¿Responsabilidad Corporativa o Derechos Sociales? CEDIB - ACSUR. 2008. Liburu horretan, Moralesen gobernuak ezarritako politika sozialen taula dago ikusgai. Ikus 73 -74. orr.

zer egin nahi dugun hausnartzeko eztabaida serio eta sakonik... Azken urteotan, dirua ez zen erabili garapen-hausturak ixteko edo berdintasuna hobetzeko, gastu arrunta eta burokrazia ordaintzeko baizik³⁷.

Funtsean, lehengaiak ekoizten dituzten herrialdeek ez dute irmotasunez aurrera egiten txirotasunaren egiturazko irtenbidean. Horrez gain, babes-oinarri soziala azaldu da erregionalismoen eta lokalismoen estalpean, eta, bertan, baliabide naturalak ekoizten dituzten eskualdeetako agintariak transnazional arpilatzaileen aliatuak dira.

Rodríguezen esanetan (Ibid), "petrolioaren errentak eztanda egitean, beste ondorio kaltegarri batzuk ere sortu dira; esate baterako, Boliviako zerga-erreformari ekiteko premia atzeratu da. Egia esan, gasaren *boomaren* atzean zerga-sistema gutxikorra ezkututzen da, eta larregizko menpetasuna du zeharkako zergekin (kontsumoa kargatzen dutenekin). Gainera, ez dago hain oinarrituta zerga zuzenetan (pertsonek errenta eta ondarea kargatzen duten zergetan)" (81. or.).

Erauzketaren pragmatismoaren ondorioz, oso egoera gatazkatsu bi sortzen dira, eta eztabaidagai izan dituzte gobernuan bertan zein kanpoan eta MASen bertan ere bai. Lehenengoak baliabide nazionalen benetako kontrolarekin du zerikusia (naturalak eta finantzarioak). Argitu egin behar da transnazionalen eta pribatuen esku jarraitzen duten edo, oraindik ere, ustiapeneko onuradun nagusiak diren. Esate baterako, industrializazio-prozesuak nola atzeratu diren kontuan hartuta, badirudi transnazionalek lehengaiak erauzten eta esportatzen jarraituko dutela. Bestetik, inbertsio publikoa nora doan aztertu beharra dago, oinarri moduan erabili litekeelako, metaketa-ziklo kapitalista berria birsortzeko, bere helburu nagusia IIRSA sustatzea delako. Aldi berean, erauzketa-mugak handiagotu beharko lirateke, herri indigenen erakundeen esanetan norberaren biziraupenerako nekazaritza-ekonomien kalterako dira-eta. Hau da, ekonomia bateratuak jartzen dituzte arriskuan, meatzaritzako, hidroelektriketako, bideetako... ekimen berriak euren lurraldeetan garatuko liratekeelako. Beraz, proiektu horiek berez oso-oso larriak direnez, proiektu berriek grazia-tiroa emango liekete. Subiranotasunaren jardunari begira (politika eta lurralde arlokoa), erauzketa-proiektu gehienek enpresa transnazionalen agerpena hedatzen dute mugetan (soia eta hidroelektrikoak, Brasilgo mugan; eta meatzaritza, Peru eta Txile aldetik), historiari begira bertan Boliviako Estatuaren agerpen instituzional ahula egon delako.

Bigarrenak, ordea, Boliviako barne-merkatuaren garapena edo boliviarren premien atentzioa barik esportaziorako lehengaien eta baliabide naturalen ekoizpena lehenesten duen logika ekonomiko neoliberalarekin dauka zerikusia. Alde horretatik, desindustrializazioa eta azpigarapen induzitua gainditzea da erronka, gehiengodun txiroyen eskubideak atzeratzen dituztelako. Horri dagokionez, egoera oso kezagarria

³⁷ "Badirudi Amerika Latinoko gobernuak baliabide naturalen ustiapeneko diru-sarrerak erabiltzen dituztela jendea distraitezko. Horrela, bada, ekonomiako funtsezko sektoreetan egin beharreko erreforma handiak atzeratu eta saihestu egiten dituzte", azaltzen da Plataforma Energetikoaren txostenean: Despilfarran la renta petrolera y minera en una "bonocracia" clientelar. 2010eko irailaren 1a.

da, gas naturalaren esportaziorako kontratuak luzatzeko ahaleginak egin diren bitartean eta gobernuak ekoizpen-eremuak garatzeko inbertsiogile atzeritarrak bilatu dituen bitartean, herrialdean erabilera ugaria duten likidoen hornikuntza delako benetako arazoa (petrolioaren gas likidotua (GLP), gasolina eta diesela), nahiz eta defizit horri Txiletik eta Venezuelatik egindako inportazioen bidez aurre egiten saiatu. Berrito ere, dilema, "gizarte-mugimenduen eskaerapean, "gasaren industrializazioaren" banderak iraganeko logika alderantzikatu nahi du: lehenengo eta behin, boliviarentzako gasa eta erregaiak; eta soberakinak, kanpokoei saltzeko. Hartara, barnermerkatua hornitzea eta lanpostuak sortzea da xedea³⁸". Ikusi dugunez, arlo horretan ez dago benetako aurrerapausorik.

II. Boluntarismo patxamamista

"Bazkide bila gabiltza, ez ugazaba bila" lelopean, Morales presidenteak transnazionalekin negoziatzeko prozesuari eman zion hasiera. Horren ondorioz, 2007ko apirilean, petrolio-kontratu berriak protokolatatu ziren, hau da, herrialdeko gobernura iritsi eta bere doktrina berria probapean jarri zuenetik urtebete igaro zenean.

Historiak irakatsi digunez, nazionalizatzea ez da berez helburua, ezta ekonomiako sektore estrategikoek zuzentzen dituzten enpresa estatalak eratzea eta indartzea ere. Hori dela eta, 2003ko urriko eta 2005eko ekaineko jardunaldietan eskatutako hidrokarburoen nazionalizazioa ez zen mugatzen errenta berreskuratzera eta antzinako egoerara itzultzerantz: %50, Boliviarentzat; eta %50, transnazionalentzat. Askapen nazionalerako prozesu erradikala mugatuko bagenu, agerikoa izango litzateke iraganeko nazionalizazioen historia zein den ez dakigula³⁹. Transnazionalen eta euren sorterrien boterearen aurrean, independentzia eta subiranotasuna lortzea da helburua, hau da, funtsezko oinarriak zehaztea, eurak barik Boliviak ezin izango dituelako honako arlo hauetako egiturazko arazoak konpondu: ustiapen ekonomikoa, bazterketa soziala eta bereizkeria kulturala.

Batetik, gobernuaren boluntarismoaren ustetan, defendatutako aldatetako gauzatu egin daitezke, nahiz eta alderdi interesdunek edo herrialdean interes sortuak dituzten alderdiek amore emango ez dutela adierazi. Edozein nabaritasunetatik haratago, nahi izandakoaren inguruko tema horren ondorioz, bide neketsuenak jorratzen dira behin eta berrito, erabaki estrategikoak alde batera utzita.

4. taulan, sektore estrategikoak transnazionalen eskuetatik berreskuratzeko neurri nagusiak azaltzen dira.

³⁸ ¿Responsabilidad Corporativa o Derechos Sociales? CEDIB - ACSUR. 2008.

³⁹ Hidrokarburoen sektorean baino ez, Boliviak Evo Moralesen gobernuaren aurretiko bi prozesu eduki ditu. 1936an, Standard Oil nazionalizatu zuen; eta, 1969an, Gula Oil Company.

4. Taula: Estatuak berreskuratutako sektore estrategikoak

Sektorea	Neurriak	Laburpena	Ondorioak
HIDROKARBURUA K - Araketa eta ustapena. Kapitalizatzea.	28/701 Dekretu Gorena	<p>YPFren AKZIOEN GEHIENGOA ENPRESA KAPITALIZATUETAN</p> <ul style="list-style-type: none"> Reposol YPFk eman zion Arndina kapitalizatutako akzioen gehiengo, administrazioak bere eskuetan jarraitzen duen arren, Garai hartan Chaco kapitalizatutaren jabea zen Pan American Energyk negoziaketa onartu ez zuenez, transnaziionalak zituen akzio guztiak nazionalizatu behar izan zituen. 	<p>Enpresa horiek erreserben eta ekolizpenaren %16-%18 baino ez dute kontrolpean. Gainerakoa enpresa transnaziionalen kontrolpean eta administraziopean dago oraindik, operazio-kontratuen bitartez. Honako megarrenu hauek dade modalitate horretan: Sabalo, San Alberto, Margarita eta Itau. Lehengo biak Brasilerako esportatutako gas naturalaren baxea dira, eta azken biak Argentinarako esportazioak bermatuko dute.</p> <p>Ekolizpen-katearen zati homeian, atzerriko kapitala lekualdatu da, baina modu partzialean, Estatuak nagusitasuna berreskuratzen duen bitartean.</p>
HIDROKARBURUA K - Finketa, gasbide bidezko garraltoa eta biltze-egitaketa. Kapitalizatzea eta pribatizatzea.	28/701 Dekretu Gorena.	<p>YPFren AKZIOEN GEHIENGOA ENPRESA KAPITALIZATU ETA PRIVATIZATUETAN.</p> <p>Estrategia bera ezarri zen (akzioen erosketa), baina negoziaketek ere ez zuten aurrera egin. Berraz, Petrobras Refinacion enpresako akzio guztiak erosi eta dekretu bidez nazionalizatu behar izan zituen Transredes kompaniako eta Boliviako Hidrokarburoen Kompania Logistikoko akzioak.</p>	<p>Neurri horien ondorioz, finketaren eta biltze-egitaketen kontrol osoa du, eta herrialdeko gasbide gehienak kontrolatzen ditu. Brasilerako gasbidearen jabetzaren %50 baino ez daukalako, katearen zati homeian, antolatutakoaren aldean, atzerriko kapitala ia-ia erabat lekualdatu da.</p>
MEATZARITZA	2006ko urriaren 31ko 28901 Dekretu Gorena eta 2007ko uztailearen 31ko 3719 Legea.	HUANUNI MEATZARITZAKO ENPRESAREN NAZIONALIZAZIOA. Huanuni meatzaritza-gunean kokatutako Poskoni mendikako meatzaritza-baliabideak nazionalizatzea eta Boliviako Meatzaritza Korporazioak Huanuni meatzaritza-enpresa administrazioa.	<p>Hain zuzen ere, nazionalizazio horren ondorioz, ez zen atzerriko kapitala lekualdatu, hobi horiek meatzaritzako kooperatibek ustiatzen zituztelako batez ere, nahiz kapital transnaziionalarekin oso lotuta funtzionalizatuta egon.</p>
MEATZARITZA	2007ko otsailaren 7ko 29026 Dekretu Gorena.	VINTOREN NAZIONALIZAZIOA Sulfitzko Glencore multinazionalaren jabetzakoa zen Vinto metalgintzako enpresa nazionalizatzea.	<p>Bi neurri horien ondorioz, meatzaritzaren sektoreko inbertsioegile atzerriarrak lekualdatu dira: batetik, operazioa esku pribatuetatik kentzen delako, eta, bestetik, meatzaritzako emakidien merkatu beltza eragozten duelako, baita enpresa transnaziional batzuek emakida horietan egindako espekulazio-jokoak ere.</p> <p>Gainerantzean, transnaziionalek meatzaritzaren sektorean dituzten interesak ez dira urkitu. San Cristobal eta San Bartolomeko meatzaritza-proiektuak ez dituzte kolokan jarri, ezta ingurumenean dituzten ondorioak ere. Alizirik, batezartu egin daiteke gobernuu gehiengo ahalegindu dela meatzaritzaren sektoreko transnaziional berrak erakartzeko. Horra hor, Muturngo proiektua garrantzeko Jindal Steel kompania eta Corocooro meatzaritza-enpresarekin lanean hasteko Kores enpresa.</p>
MEATZARITZA	2007ko maiatzaren 1eko 29117 Dekretu Gorena.	MEATZARITZAKO ERRESERBA FISKALA Lurralde nazional osoa meatzaritzako erreserba fiskala zela adierazi zen.	
ELEKTRIZITATEA	2010eko maiatzaren 1eko 493 Dekretu Gorena.	Elektrizitatea sortzen duten honako enpresa hauek nazionalizatu dira: Rurelec Transnaziionalaren kontrolpeko Guaracachi; GDF Suez-en eskuetan daogon Corani enpresa; eta Bolivian Generating Group-en kontrolpeko Valle Hermoso enpresa.	<p>ENDEternak izandako eta kapitalizatutako enpresak nazionalizatzen hasi ziren. Hala ere, Transportadora de Electricidad (TDE) izan zen salbupea, gaur arte Red Electrica de España kompaniaren eta Kolonbiako ISA multinazionalaren eskuetan dago-eia.</p> <p>Nazionalizazio horren ondorioz, sorkuntzaren zati handiena ENDE estalailaren esku dago gaur egun. Horako hauek geratu dira kanpoan: kapital kanadarreko COBE, bigarrena da sorkuntza-ahalmenean, eta zenbait sortzaile txiki, kapital pribatu nazionalaren inbertsioak dira-eia.</p>
TELEKOMU- NIKAZIOAK	2008ko maiatzaren 1eko 29544 Dekretu Gorena.	ETI multinazionalaren esku zegoien Telekomunikazioetako Enpresa Nazionalerako (ENTELEKO) akzio guztiak nazionalizatzea.	

Iurria: Bertion egina. Gustavo Rodriguez Caceresen testuan oinarrituta: La Inversion Extranjera Directa. "Proceso de cambio". CEDIB - OMA. PAZ CON DIGNIDAD. 2010eko iraila.

4. taulan, argi eta garbi adierazten da petrolioko transnazional gehienek Boliviako Estatuarekin sozietaterik sortu nahi ez dutela. Hori dela eta, auzi-prozesuak sortu dira, eta negoziaketak apurtu dira. Estatuak akzioen gehiengoduna lortzeko negoziaketa-pean zeuden bost enpresetatik, bakarrak, REPSOLEk, ANDINA S.A. enpresa kapitalizatutako gehiengodun akziodunak, onartu zuen, eta, ordainetan, administrazioari eustea negoziatu zuen. Beste lau kasuetan, Estatuak transnazionalen akzioak konfiskatu behar izan zituen, eta kalte-ordainen zenbatekoa negoziatu zen.

Hidrokarburoen arloan, industrializaziorako arazoak aipatu ditugu, eta, atzeratuz gero, onuradunak transnazionalak izango direla esan dugu. Hala ere, are konplexuagoak diren beste arazo batzuk daude, eta sektorearen kudeaketa eta petrolio-enpresetikiko kontu-doikuntza modu boluntaristan egiteagatik sortu dira. Rodríguez Cáceresen esanetan (Petropress, 19. zk., 2010eko apirila), "nazionalizazioa segurtasun energetikoaren iragaitza ere bada. Herrialdean, hain zuzen ere, ezegonkorra eta zergakutxen zein subiranotasun energetikoaren aurkakoa da". Beraz, hidrokarburoak nazionalizatzean, barruko premia energetikoei lehentasuna ematea zen helburua eta industriaren kudeaketa esportaziora hainbeste ez bideratzea. Arlo horretan, gobernuak inbertsio harrapariaren aldeko irizpide arduragabea ezarri du, hau da, neoliberalismotik Bolivian nagusi izan den inbertsio-mota⁴⁰.

Agerikoa denez, irizpide horiek ezartzean sortutako ondorio nagusiak sektore txiroek hartu behar dituzte euren gain, hornikuntzarik ez dagoelako eta prezioek gora egiten dutelako⁴¹. Horrez gain, oro har, herrialdeak bere premiak atzeratzen ditu berriro. Termino historikoetan, argi dago joan den mendeko 50eko hamarkadara egin dugula atzera, 1936an YPFB estatala sortu eta Standard Oil nazionalizatu ondoren 1954an petrolioaren produktu eratorrien autohornikuntza lortu genuenean, hau da, subiranotasun energetikoa zeukan herrialdea izatea lortu genuen. Gaur egun, petrolio-erreserben agorpen birtuala jasaten ari garenez, krisi energetikoa egongo da laster, eta, egoeraren arabera arazoa inportazioen bidez konpondu beharrean, kezka eta prezioak biderkatu egingo dira, egin beharreko inbertsioek 7 eta 10 urte arteko epea beharko dutelako emaitzak emateko.

Boluntarismo honen txanponaren beste aurkia den pragmatismoaren ondorioz, gobernuak ingurumen eta gizarte arloko eragin handiko proiektuak bultzatzen ditu ezohiko eremuetan⁴², batez ere transnazionalen mesederako den esportazio-joeraren ondorioz sortutako defizit energetikoa konpondu nahian. Hori dela eta, presaka dabilta, PETROANDINA partzuergo publiko boliviarrak eta venezuelarrak egingo dituen petrolio-araketa berriak bultzatu nahian. Horren ondorioz, gainera, tentsioak sortu dira eragin-pean egongo liratekeen herri indigenen erakundeen eta gobernuaren artean.

⁴⁰ Gustavo Rodríguez. Plan de Inversiones de YPFB. La Negación de la Soberanía Energética de Bolivia. Petropress aldizkaria, 19. zk., 2010eko apirila.

⁴¹ "Otra vez la escasez de diesel en Santa Cruz". El Deber, 2008ko irailaren 3a. "Escasez de GLP: bloquean calles y YPFB se defiende". Los Tiempos, 2010eko urtarrilaren 29a.

⁴² 2010-2015eko Inbertsioen Planaren arabera, araketa-gune berriak egongo dira iparraldean (La Paz eta Beni), Madidin, Chepiten, Chispanin, herrialdeko hegoaldeko beste gune hauskor batzuetan, Aguaraquëko Parke Nazionalan, Camatindiko iparraldean zein hegoaldean eta San Telmon.

Lehenengoek Moralesen gobernu indigena demandatu dute, Nazio Batuek Herri Indigenen Eskubideei buruz egindako Adierazpena bete dezan⁴³.

Zentzukoena izango litzateke lehendik jarritako ahalmena erabiltzea, hau da, ekoizten ari diren petrolio-eremuak erabiltzea, petrolioaren lorpena hobetzeko; esate baterako, Cochabambako eskualdean. Hain zuzen ere, petrolio ekoizten zuen gune nagusia zen, kapitalizazioaren aurretiko epealdira arte. Era berean, petrolioaren araketa zabaldu behar da ohiko eremu horietan, edo esportaziorako gas naturalaren osagai aberatsak lortu behar dira, Rio Grandeko likidoak banatzeko lantegiaren bitartez. Azkenik, zenbait petrolio-eremu nazionalizatu behar dira, bertan egiaztatu egin delako inbertsiorik egin ez dela, hau da, operadoreek kontratu-baldintzak behin eta berriro bete ez dituztela⁴⁴.

Orain arte esandakoagatik, hidrokarburoen industriaren adibidea kontuan hartuta, badirudi gobernuak "Bazkideak, ez ugazabak" lelopean adierazitako boluntarismoak erabaki estrategikoak atzeratzen dituela. Hori dela eta, gupil zoroa sortzen da, atentzioa herrialdearen premietatik urruntzen da eta oso-oso egokia da transnazionalentzat.

Bestetik, Garapen Ekonomikorako Plan berriaren zirriborro-agiriaren proiektua aztertuz gero, Estatuak honako zeregin hau du ekonomian: "ekonomia soziala eta bateratua den ekonomia anitza zuzentzea, bideratzea eta liderizatzea. Hori dela eta, ekonomia estatalaren epe luze eta ertainerako helburua da ekonomia pribatua, sozial kooperatiboa eta ekonomia estatal bera egituratzea, ekonomia bateratua sustatzeko, baita interes indibidual eta pribatua ongizate kolektiboarekin osatzea ere, CPEko 306. artikulua araberan." (74. or.)⁴⁵.

Asmo handiko helburu horiek epe ertain eta luzerakoak badira ere, argi eta garbi dago baliabide naturalak eta lurralde nazionala pribatizatzean neoliberalismoak inposatutako errealitatearen ondorioz transnazionalen eta enpresari handien aldeko desoreka sortu dela. Hain zuzen ere, ekonomiako eragile hegemonikoak dira, eta, gainerako ekonomiak menderatu eta arpilatu egiten dituztenez, gure ekonomia transnazionalizatuta dagoela esan daiteke⁴⁶.

⁴³ "Indígenas denuncian exploración petrolífera ilegal en Bolivia". La Razón, 2009ko ekainaren 30a. "Guananies advierten con paralización proyecto gasífero boliviano-argentino". El País. 2010eko abuztuaren 30a.

⁴⁴ "Inbertsio kronogramak bete"; esan zien Morales presidentek petrolio-konpainiei, Boliviako Hidrokarburoen Ganberak gasari eta energiari buruz antolatutako hirugarren biltzarrean. EFE eta El Deber, 2010eko abuztuaren 20a.

⁴⁵ Ondo Bizitzeko Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Plana. Garapenaren Plangintzarako Ministerioa. 2010eko abuztua. Zirriborroa.

⁴⁶ "Meatzaritzaren gaur egungo testuinguruaren beste ezaugarri nabari bati dagokionez, enpresa transnazionalak partaidetza nabaria dute mineralen araketan, ustiapenean eta merkaturaketan. Nolanahi ere, meatzaritzaren transnazionalizazioak fenomeno hori gainditzen du. Izan ere, meatzaritzaren sektorea ekonomia globalean sartzen da, finantziario eta tertziarizaziorako prozesuen bidez: - Nazioarteko finantza-merkatuetako transakzioen nagusitasuna meatzaritzako eskala handiko operazioen funtsezko ezaugarria da. - Meatzaritzaren sektorea tertziarioa egitean, azpikontrataziorako kateak sustatzen dira, eta lan-eskubideak urratzen dituzte etengabe. Kooperatibisten eta artisauen sektoreak ekoizpen-kateko azken kate-mailan daude. (...) Azken batean, herrialdeak eta hemisferioak gurutzatzen dituzten sareak eta eragileak biderkatzean, enpresa transnazionalak ekoizpen-katearen kontrola daukate. Hona hemen zenbait menderakuntza-ekintza: - Meatzaritzako korporazio handiek herrialdeetako erreserben bidez espekulatzeko, finantziario lortzeko eta baliabideei eusteko. - Dibidenduak aberriratzeko, kapitalen ihesa etengabea da, eta toki-garapenerako aukerak zapuzten ditu. Azken batean, meatzaritzaren transnazionalizatzean, subiranotasun nazionala galtzen da. Meatzaritzako baliabideei buruzko erabakiak (esate baterako, ustiapen-moduak edo soberakinaren helmuga) transnazionalak egoitzetan hartzen dira, ustiapen-lurraldeetatik urrun." La Minería en Perú y Bolivia: Un Diagnóstico estratégico desde un enfoque de derechos. Antonio Rodríguez Carmona (koord). 2010eko uztaila.

Lau ekonomia-moduak egituratzea proposatzen denean, badirudi orekatuta daudela -edo Estatuaren jarduketaren helburua horixe izango litzatekeela, behintzat-. Beraz, ahaztu egiten da ekonomia bateratua eta kooperatiboa (salbuespenak albavespen) aurriratu dagoela. Batez ere, autobiziraupenerako jarduerak dira, eta hazkuntzaren zein iraunkortasunaren arloko muga handiak dituzte, transnazionalak eta enpresari handiak nagusi direlako⁴⁷ soberakin gehien sortzen duten sektoreetan, lurralde-azalera handiak okupatzen dituztelako (lurraldeari begira ere, jatorrizko auzo-lurrekin edo eremu babestuekin daude gainjarrita) eta ingurumenaren gaineko eragin larriak sortzen dituztelako (epe laburrerakoa denez, pasibo guztiak gizartera, herri indigenetara eta Estatura bertara kanporatzen dira). Hori dela eta, beste ekonomiak jartzen dituzte arrisku larripean.

Badago tentsiorik, baina politika publiko berriek nahiago dute euren ebazpena ekidin, "ekonomia anitzaren" izenean edo ekonomia-mota desberdinen arteko bizikidetzaren izenean. Izan ere, ezin izango da garatu, transnazionalak eta enpresari handiek nagusi den zeregin hori galtzen ez duten bitartean (monopolikoa ere bada). Hartara, Estatuak bere zeregin aktibo eta protagonista berrezarri ahal izango du gehiengo txiroen interesen alde.

Garapen ekonomikorako Plan berria (Ibid) aipatzen da arazo hori, honako hauxe esatean: "behin eta berriro aipatu behar da askotan erabat kontrajarria den tentsio sorra dagoela bizimodu onaren eta garapenaren artean: batetik, Konstituzioa bizimodu onaren (VB) izenean garatutako etika ekologistan dago oinarrituta, baina, bestetik, xede desarrollista eta industrializatzailea xedatzen da Konstituzioan bertan, Estatuaren funtsezko zeregina da-eta. Kontraesan hori sor dago, eta ez da zabaltasunez eztabaidatu." (26. or.).

Berri ere, eztabaida hori kontinenteko gizarte-mugimenduen agendan azaltzen da, eredu neoliberalaren ondorioz herrialde guztiak egoera berean daudelako, euren ezaugarriak edonolakoak direla ere. Horrez gain, transnazionalak eskualdeko benetakako monopolioa ehundu dute, eta Boliviako muga nazionaletatik haratago dihardute. Alberto Acostak honako hauxe dio bizimodu ona helburu daukan Ekuadorko Konstituzioaren ezarpenari buruz: "ez da erraza izango eraldaketa horiek kristalizatzea, batez ere, botere-zirkulu nazional eta transnazionalen pribilegioetan dute-lako eragina. Hori dela eta, ahal duten guztia egingo dute, aldaketa-prozesu hori geldiarazteko"⁴⁸.

⁴⁷ Enrique Ormaechearen azterketak baieztatzen duenez, "nekazarien ekoizpenaren balioa jaitzi egiten da, enpresarien ekoizpenaren balioa handitu egiten den bitartean. (...) 1961-1963an, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenaren balio osoak, nekazarien ekoizpena %82,20koa zen; eta enpresarien ekoizpena, %17,80. 1985-1987an, nekazarien ekoizpenaren balioa %59,80ra jaitzi zen, eta, 2000-2002an, %39,70 baino ez zen. (...) Aitzitik, 2002an-edo, enpresarien sektoreak herrialdeko nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenaren balio osoaren %60,30 zeukan." "Bolivian, nekazaritzak ekonomian duen ekarpena murriztu da". Opinión egunkaria, 2010eko uztailaren 29a.

⁴⁸ Beste mundu batzuk irudikatu behar dira, hauxe aldatzeko. Alberto Acosta. 2010.

III. Ondorioak

- Boliviako ekonomiaren gaur egungo egoera ona da, esportaziorako lehengaiak ekoizteko dinamikari esker.
- Boliviako lehen mailako esportazio-eredua ez da aldatu. Herri-mugimenduak eskatutako industrializazioari dagokionez, gobernuak berak azaldu zuen ezer gutxi egin duela eta bigarren etapan egingo duela.
- Gobernuko industrializazio-programak gabeziak ditu, eta atzeratutako proiektuak daude. Ez dirudi industrializazio-prozesu sistematikoa dagoenik, herrialdeko ekonomiak edo plan ekonomikoek lehen mailako esportazio-eredua gainditu dezaten.
- Inbertsio publikorako eredua ez da neoliberalismotik aldatu, eta, oraindik ere, hidrokarburoen esportazioa lehenesten da, barne-merkatuaren premien gainetik. Industrializatu beharrean, gobernuak lehengaien iturri gehiago ustiatzen ditu, Estatuko diru-sarrerak gehitu nahi dituelako.
- Herritarrentzako zeharkako zergengatiko diru-sarrerak oso garrantzitsuak izan ziren neoliberalismoan, eta gaur egungo gobernuan ere gauza bera gertatzen da. Lehenengo osagarri diren diru-sarrera berriak erauzketa-industrietatik datoz.
- Gobernuak zerga-eredu hori egin du zilegi, eta zehatz-mehatz bete beharrean dago. Beraz, Munduko Bankuak eta antzeko alderdi anitzeko erakundeek, Moralesen gobernuaren aholkulari bihurtuta, lehengaien esportazio handiagoetan oinarritutako zerga-politiken jarraipena sustatzen dute, besteak beste, eta, horiekin batera, txirotasunaren aurkako politikak bultzatzen dituzte aldi berean.
- Politika guztiek eragin onuragarria dute txirotasun "bigunean", baina zailagoa da txirotasunaren osagai gogorrenei aurre egitea: bazterketa politikoa eta ekonomikoa.
- 2003ko urriko eta 2005eko ekaineko jardunaldietan eskatutako hidrokarburoen nazionalizazioa ez zen mugatzen errenta berreskuratzea eta antzinako egoerara itzultzea: %50, Boliviarentzat; eta %50, transnazionalentzat. Transnazionalen eta euren sorterrien boterearen aurrean, independentzia eta subiranotasuna lortzea da helburua, hau da, funtsezko oinarriak zehaztea, eurak barik Boliviak ezin izango dituelako honako arlo hauetako egiturazko arazoak konpondu: ustiapen ekonomikoa, bazterketa soziala eta bereizkeria kulturala.
- Gobernuaren boluntarismoaren ustetan, defendatutako aldaketak gauzatu egin daitezke, nahiz eta transnazionalak amore emango ez dutela adierazi. Edozein nabaritasunetatik haratago, nahi izandakoaren inguruko tema horren ondorioz, bide neketsuenak jorratzen dira behin eta berriro, erabaki estrategikoak alde batera utzita.
- Hidrokarburoak nazionalizatzean, barruko premia energetikoei lehentasuna ematea zen helburua eta industriaren kudeaketa esportaziora hainbeste ez bideratzea. Arlo horretan, gobernuak inbertsio harrapariaren aldeko irizpide arduragabea ezarri du.

- Termino historikoetan, argi dago joan den mendeko 50eko hamarkadara egin dugula atzera, 1936an YPFB estatuala sortu eta Standard Oil nazionalizatu ondoren 1954an petrolioaren produktu eratorrien autohornikuntza lortu genuenean, hau da, subiranotasun energetikoa zeukan herrialdea izatea lortu genuen. Gaur egun, petrolio-erreserben agorpen birtuala jasaten ari garenez, krisi energetikoa egongo da laster, eta, egoeraren arabera arazoa inportazioen bidez konpondu beharrean, kezka eta prezioak biderkatu egingo dira, egin beharreko inbertsioek 7 eta 10 urte arteko epea beharko dutelako emaitzak emateko.
- Zentzuzkoena izango litzateke lehendik jarritako ahalmena erabiltzea, hau da, ekoizten ari diren petrolio-eremuak erabiltzea, petrolioaren lorpena hobetzeko (esate baterako, Cochabambako eskualdean. Hain zuzen ere, petrolio ekoizten zuen gunen nagusia zen, kapitalizazioaren aurretiko epealdira arte). Era berean, petrolioaren araketa zabaldu behar da ohiko eremu horietan, edo esportaziorako gas naturalaren osagai aberatsak lortu behar dira, Rio Grandeko likidoak banatzeko lantegiaren bitartez. Azkenik, zenbait petrolio-eremu nazionalizatu behar dira, bertan egiaztatu egin delako inbertsiorik egin ez dela, hau da, operadoreek kontratu-baldintzak behin eta berriro bete ez dituztela.
- Badirudi gobernuak “Bazkideak, ez ugazabak” lelopean adierazitako boluntarismoak erabaki estrategikoak atzeratzen dituela. Hori dela eta, gurpil zoroa sortzen da, atentzioa herrialdearen premietatik urruntzen da eta oso-oso egokia da transnazionalentzat.
- Baliabide naturalak eta lurralde nazionala pribatizatzean neoliberalismoak inposatutako errealtatearen ondorioz transnazionalen eta enpresari handien aldeko desoreka sortu da. Hain zuzen ere, ekonomiako eragile hegemonikoak dira, eta, gainerako ekonomiak menderatu eta arpilatu egiten dituztenez, gure ekonomia transnazionalizatuta dagoela esan daiteke.

Bibliografia

- Acosta Alberto. Sólo imaginando otros mundos, se cambiará éste. Hegoaldeko Petrolio Behatokia. Berripapera. 2010eko irailaren 9a.
- Boliviako Errepublika. Boliviako Errepublikako presidentea, Evo Morales Ayma. Geure herriekin eratu dezagun “Ondo Bizitzeko” Hego Amerikako Nazioen benetako Erkidegoa. Proposamena. La Pazen, 2006ko urriaren 2an.
- Boliviako Nazio Anitzeko Estatuak. Evo Morales Ayma. Gobernuaren kudeaketari buruzko txostena. 6. 2010. 2006ko ekainaren 4ko aurkezpena. de 2010. Presentación de 4 junio 2006.
- Boliviako Nazio Anitzeko Estatuak. Ekonomia eta Herri Finantzetako Ministerioa. 2009ko Memoria Fiskala.

- Boliviako Nazio Anitzeko Estatua. Ekonomia eta Herri Finantzetako Ministerioa. Luis Alberto Arce Catacora ministroa. The bolivian economic performance and investment program 2010-2015. Aurkezpena.
- Boliviako Nazio Anitzeko Estatua. Garapenaren Plangintzarako Ministerioa. Ondo Bizitzeko Garapen Ekonomiko eta Sozialerako Plana. 2010eko abuztua. Zirriborro-agiria. CEDIB. El dialogo sobre el IDH. Petropress aldizkaria, 12. zk.. CEDIB. 2008ko urria.
- CEDIB. La falsa disputa de las prefecturas por los recursos del IDH. Petropress aldizkaria, 8. zk.. CEDIB. 2008ko martxoa.
- CEDIB - OMAL. PAZ CON DIGNIDAD. Zenbait autoreren artean. Las multinacionales españolas en Bolivia: de la desnacionalización al proceso de cambio. 2010eko iraila. Bolivia.
- CEDLA. Gestión de la renta fiscal proveniente de las actividades extractivas. La Pazen, 2006ko abuztuaren 26an.
- Fiszbein Ariel eta Schady Norbert. Transferencias monetarias condicionadas reduciendo la pobreza actual y futura. Munduko Bankua. 2009.
- Gandarillas González Marco. En torno a la distribución de los ingresos hidrocarburíferos: El regionalismo favorece a las transnacionales. Petropress aldizkaria, 7. zk. CEDIB. 2007ko urria.
- MAS - IPSP Sozialismorako Mugimendua. 2010-2015eko Gobernu Programa. Ondo Bizitzeko Bolivia.
- Pablo Villegas. El Rol Central de la IIRSA en el modelo de desarrollo vigente en Bolivia. Petropress aldizkaria, 18. zk. CEDIB. 2010eko urtarrila.
- Rodríguez Cáceres Gustavo. Plan de inversiones de YPFB. La negación de la Soberanía Energética de Bolivia. Petropress aldizkaria, 19. zk. CEDIB. 2010eko apirila.
- Rodríguez Carmona Antonio (konp.), Gandarillas González Marco eta Ferreyra Christian. ¿Responsabilidad Corporativa o Derechos Sociales? CEDIB - ACSUR Las Segovias. 2008.
- Rodríguez Carmona Antonio (koord.). La Minería en Perú y Bolivia: Un Diagnóstico estratégico desde un enfoque de derechos. ACSUR LAS SEGOVIAS. 2010eko uztaila.
- SENA FOBOMADE. Nueva receta del "desarrollo" del Banco Mundial: Explotar recursos naturales, exportar materias primas y acumular renta. 2010eko irailaren 17a.

Emakumeak eta feministak: guztientzako bizimodu onaren eraketarako subjektu politikoak

Martha Godínez¹

Ponentzia honetan, emakumeon lanaren berri emango dugu, konspiraziotik gure hartzeakoak, zereginak eta jakitateak bateratzen ditugulako, jakintza kolektiboa eratzeko eta gaur egun bizi dugunari irakurketa historikoa emateko. Erresistentziarako, defentsarako eta geure lurraldearen berreskurapenerako ekintza politikoak sendotu nahi dugu: gorputza eta lurra. Geure ametsak zehazten jarraitu nahi dugu, egunerokotasunetik utopia hori eratzen, geure herrietan askeak, autonomoak izateko eta ondo bizitzeko.

Krisia dimentsio anitzekoa: finantzarioa, klimarena, elikadurarena, ekonomikoa eta balioena. Era berean, globala ere bada, baita neoliberala ere. Hori dela eta, merkantziak dira nagusi, eta, oraindik ere, kapitala metatzea du helburu nagusi. Bertan, gainera, emakumeok ez gaituzte subjektu ekonomiko eta politikotzat hartzen. Krisi hau zibilizazioaren krisia dela esan daiteke.

Gaur egun, intentsitate handiagoaz bizi dugu geure gorputz eta bizitzetan aukera-faltaren, txirotasunaren eta txirotasun gorriaren eragina. Eredu ekonomikoak gure garapena murrizten du, merkatuak are gehiago mugatzen dituelako gure eskubideak: elikadura, lana, hezkuntza, osasuna, etxebizitza, segurtasuna, aisialdia, afektua eta onespena...

Familia eta erkidego gehienetan, gaur egungo krisiak bizi-kalitatea higitzen du, eta erantzukizun handiagoak ematen dizkie emakumeei, oinarrizko zerbitzuen kostu

¹ Martha Godínez Emakumeen Sektoreko Itun Politikoko kidea da.

garestiaren, ingurumenaren gainerako eraginaren eta biziraupen-moduen ondorioei aurre egiteko.

Hori dela eta, gure eguneroko bizimodua lotzen dugu ekonomiarekin zerikusia duten arazoekin. Hori dela eta, eskubide politikoez hitz egitean, Guatemalako maien, garifunen, xinken eta mestizoen lurralde guztietan bizi dugun egoera ekonomiko zailarekin lotzen dugu. alde horretatik, oso garrantzitsua da emakumeen eskubideen agendaz hitz egitea, modu integralean ikustea estrategikoa dela konturatzea eta guzti-guztia estu-estu lotuta dagoela antzematea. Hemendik aurrera, ezin dugu agenda zatika eta modu partzialean ikusi. Beraz, meatzaritzaren, uraren eta hidroelektrikoen aurkako borroka, aberastasunaren pilaketa eta lurra ere lotu behar dira sexu eta ugalketa eskubideen borrokarekin, gorputzaren autonomiarekin eta emakumeengana-ko indarkeriaren aurkako borrokarekin. Horregatik, gaur argi eta garbi diogu gure Estatuak inoiz ongizatearen begirada hori eduki ez duela, Estatu patriarkala, kapitalista, arrazista, lesbofobikoa eta zapaltzailea delako eta aberastasuna esku gutxitan pilotzea eta kapitala metatzea sustatzen duelako. Bien bitartean, gehienak –emakume indigenak, herri indigenak, gazteak eta nekazariak- txirotasunean eta txirotasun gorrian bizi dira lurralde guztietan.

Hausnarketa horiek kontuan hartuta, oso garrantzitsua da subjektu politikoak eratzeko eta sendotzeko, jabekuntzarako eta herritartasunaren erabateko erabilerrarako ekintza iraunkor moduan, garapenaren inguruko kontrakultura edo paradigma berrietarako giltzarri moduan eta herriok zein emakumek lurralde-mailan bizi ditugun egiturazko arazoetarako proposamen moduan. Era berean, funtsezkoa da agenda estrategikoa bateratzailea eratzeko eta egituratzea, gure lurraldeetan indar sozial eta politikoa metatzeko, herrietatik erresistentzia egin eta alternatibak proposatzeko eta emakumeen zein feministen proposamen politikoak kontuan hartzeko.

Transnazionalak gaur egungo testuinguruan

Harreman ekonomiko eta politikoen esparruan, transnazionalak dira kapital-metaketa sendotzeko eta merkataritza-irekiera abian jartzeko funtsezko eragileetakoa. Maila orokorrean daude, eta agerpen adierazgarria dute lurralde-mailan. Hortxe, hain zuzen ere, lurraldeetan, bere ekintzak zehazten dira: meatzaritzako araketa eta ustiapena, telefonia-enpresak, energia-enpresak eta makilak.

Gaur egun, transnazionalak garapen-eragileak ez direla diogu, harreman komertzial asimetrikoak indartzen dituztelako, proposamen kapitalista neoliberalaren esparruan daudelako eta, funtsean, edozein proposamen kapitala metatzeko ikuspegi merkantilistaren ondorioa delako. Alde horretatik, gaur egun transnazionalak eragile hegemonikoa dira harreman eta transakzio komertzialetan. Bertan, Estatuak interes horiei erantzuten diete euren mekanismo eta legeen bitartez. Hori dela eta, gaur egun enpresa transnazionalak jarri behar dira kolokan, lurraldeetako ekintzak lehenesten jarraitzeko asmoz kapital nazionalarekin eta gobernuekin egindako aliantzen, ekintzen eta politiken ondorioei dagokienez.

Emakumeok zer ekarpen egiten diogu ekonomiari eta zer egiten ari garen

Historiari begira, emakumeok ugalketaren esparruan lekuratzen gaituzte eta ez ekoizpen-prozesuetan. Gizarteetan, ez gaituzte subjektu politiko eta ekonomikotzat hartzen, nahiz eta jarduera ekonomiko guztietan gauden eta arlo pribatuan besteen lanindarra bermatzeko baldintzak prestatzen ditugun, ekonomian eta arlo publikoan sartu daitezten.

Aurrekoa kontuan hartuta, ekonomia integrala dela esan dezakegu, arlo pertsonalarekin lotuta dagoela eta, era berean, politikoa ere badela, emakume guztion artean duelako eragina. Hori dela eta, geure autonomia ekonomikoaren alde borrokatzen gara.

Apustu politiko hori lan kolektiboa izan da Emakumeen Sektorean, 2001. urteaz geroztik. Feminismoak lagundu egin digu munduari buruz dugun ikuspegi politikoa atzeraelikatzen. Alde horretatik, zenbait ekintza sortu ditugu, sistema zapaltzailea nola dabilen ulertzeko. Hona hemen bere ezaugarriak: patriarkala, kapitalista-neoliberalak, arrazista eta lesbofobikoa.

Feminismoetatik, eredu ekonomikoa jartzen dugu zalantzan, emakumeen biziaren aurkakoa delako eta kontsumitzaile edo lagundu beharreko pertsona ahultzat baino ez gaituelako hartzen. Gure kritikan ere, kontuan hartzen dugu emakumeek biziaren iraunkortasunean duten zeregina lanaren banaketa sexualaren bidez esleituta dagoela. Emakumeen ekarpenak bere balioa galtzen du arlo ekonomikoan, agerian uzten ez dutelako eta onesten ez dutelako. Horregatik, arlo ekonomikoa sartzan dugu geure borrokan.

Gure agenda estrategikoaren bidez, ekarpenak egiten ditugu eredu alternatiboaren eraketan, merkatuaren zehaztapenei jaramonik ez egiteko eta kapital-metaketa lehenesten ez duen garapenaren ikuspegia defendatzeko. Gure ekonomia-ikuskerak berrietan, honako hauxe proposatzen dugu: aberastasuna deskontzentratzea, lurra nekazaritzaren eraldaketa integralaren bitartez birbanatzea eta emakumeei lurraren titularitatea ematea. Era berean, emakumeen garapen ekonomikorako oinarritzko premia estrategikoei erantzuten dieten politikak sustatzen ditugu geure lurraldeetatik: gorpuzta, lurra eta biodibertsitatea. Alde horretatik, emakumeek zainketaren ekonomiatik egin dituzte ekarpenak. Bertan, hain zuzen ere, funtsezkoa izan da emakumeek elikagaien ekoizpenarekin eta auzo-lanarekin lotutako gauza guztietan parte hartzea.

Emakumeok ere funtsezko zeregina eduki du lurralde-galdekettan, "Meatzaritzarik ez" esanda eta lurraldeen errespetua aldarrikatuta. Nolanahi ere, ez dira erauzketa-enpresei ez diete araketa eta ustiapenerako lizentziak kendu, galdeketa horien bidez erkidegoek euren oposizioa berretsi badute ere.

Guatemalan, txirotasuna eta txirotasun gorria islatzen dira emakumeetan eta, batez ere, biztanle indigena analfabetoetan. Hori dela eta, etxaldekettan, agrosportatzaileetan

eta/edo makila-enpresetan lan egin behar dute; bizirauteko oinarrizko otzara estaltzen ez duten gutxieneko soldatak jasotzen dituzte; eta funtsezko elikagai eta zerbitzuen kostu garestiak ordaindu behar dituzte, egunez egun gehiago igotzen dira-eta: gasa, garrarioa, ogia, tortillak, energia eta ura.

Enpresa transnazionalen eragina emakumeen bizimoduan

Enpresa transnazionalen eredu ekonomiko honek biziaren sarea jarri du hankaz gora, merkantziak helburu nagusi dituelako eta kapitalaren metaketa gure bizitzako arlo guztietako harreman guztien printzipio gidaria delako. Emakumeok eta feministok eredu horren ondorioz eta transnazionalen mesederako sortutako kontsumismoaren eta indibidualismoaren kultura eratzten eta deseratzen ari gara.

Sistema neoliberalak inposatutako arrazakeriaren eta bereizkeriaren kulturak indarkeria eta heriotza sorrarazten ditu, eta milaka urte dituen gure mundu-ikuskeraren zein nortasunaren aurkakoa da. Hori dela eta, boterea harmonian, errespetuz eta bizimodu onaren ikuspegitik eratzeko konpromisoa hartzen dugu. Transnazionaleri dagokienez, ereduaren ezarpenak eta agerpenak erkidegoak banatu dituzte, eta protesta, proposamena zein erresistentzia kriminalizatu dituzte.

Kontsumoan, nortasun kulturala zapuztu da, eta honako arlo hauek guztiak aldatu dira: elikadura, ekoizpen, zenbait produkturen menpetasuna, merkaturaketa lorpena.

Horren ondorioz, desberdintasunak sortu dira, emakumeek ez dutelako biziraupenerako oinarrizko premiak estaltzeko moduko baliabideak eskuratzetik eta kontrolatzerik. Izan ere, eragin handia izan du emakumeen zereginetan, familia mantentzeko erantzukizunei eta ekoitzi, kontsumitu eta merkaturatzen dutenari dagokienez.

Euren ekoizpenari erreparatuta, lehiakortasunari begira hobetzeko ikuspegia sortu da. Hori dela eta, nekazaritzaren egitura aldatu da, kimikoak erabiltzen dira ekoizpenean eta emakumeen betiko eginkizuna sendotzen da ekoizpenaren zein familien iraunkortasunaren arloan.

Enpresa transnazionalen mesederako diren politika neoliberalak, gainera, eragin handia dute oinarrizko otzaran, eta egoera hori are larriagoa da, gobernuek eta estatuek prezioen gaineko kontrolrik ez dutelako. Horren ondorioz, abusuak sortzen dira. Deorsa - Deocsa enpresaren kasua dugu (Unión Fenosa), Guatemalako energia elektrikoaren zerbitzuaren kobrantzan, baita urarekin lotutako beste kasu batzuk ere. Horrela, bada, politika neoliberal horiek neurri itogarria eta estugarria dira emakume langileentzat eta ez-langileentzat, ekonomiari dagokionez. Izan ere, emakumeek eurek aurrera eraman behar dute etxeko ekonomia, eta diru-sarrerara urriei edo diru-sarrerarik ezari aurre egin behar diote.

Makiletan lan egiten duten emakumeen egoerak euren eskubideak urratzen ditu, zenbait salaketa-eremutan adierazi denez. Beraz, hona iritsita, aipatu egin behar da

nolako egoeran bizi diren makilako enpresak bat-batean ixtean lanik gabe geratzen diren emakume langileak. Gobernuak zergak salbuesten dizkie atzerriko makila-enpresei, baina, faboritismo hori amaitzen denean, makila-enpresa itxi eta beste leku edo herrialde batean birkokatzen du beste izen batez, 25 edo 50 urterako beste salbuespen bat lortzeko. Bien bitartean, etxez etxeko makiletako emakume langileen egoera makiletan bertan zuzenean lan egiten dutenena baino larriagoa da, honako prestazio hauek ez dituztelako: gizarte-asegurua, gutxieneko soldata, prestazioen ordainketa, kalte-ordainen ordainketa, istripu-asegurua, zurtasun-asegurua, zahartzapen-asegurua, lanerako erreminta eta tresna zuzenak...

Transnazional batzuek gure herrialdeetan lortzen dituzten zerga-pribilegioek Estatuko diru-sarreraren bilketa gutxitzen dutenez, emakumeen onurarako programa, plan eta proiektuetarako gastu sozialetako inbertsioa mugatzen da. Atzerriko makila-enpresariei, gainera, beherapenak egiten dizkiete energia elektrikoaren ordainketan eta/edo eskulan merkea erabiltzen dute.

Aldi berean, gobernu kapitalistek beharrezko baldintzak prestatu dituzte herrialdean. Hain zuzen ere, azpiegiturak egokitu eta eraiki egin dituzte (aireportuak, errepideak edo portuak), enpresa transnazionalen operazioak errazten dituzten bide errazak bezain onargarriak sortzeko. Neurri handi batean, herritarrentzako zergen bidez lortutako diruaz finantzatu dira azpiegitura horiek, eta, enpresa transnazionalen onurarako, lehentasuna eman diete, oinarritzko zorroen kaltetan: osasuna, hezkuntza edo herritarren segurtasuna.

Beraz, eredu horrek egunerokotasunean, bizimoduetan eta harremanetan du eragina. Horrez gain, honako egoera hauek guztiak ere sorrarazten ditu: gaixotasunak, indarkeria, segurtasunik eza, desnutrizioa, lurraldeen zaugarritasuna, edateko ura eskuratzeko zailtasunak, gizarte-gatazkak eta protestaren kriminalizazioa.

Estatuarentzako, herritarrentzako eta emakumeentzako erronkak

- Honako hauxe egituratzen duen garapen-eredu bateratzailea eratzeko eztabaidatzea: Estatuaren eta bere instituzioen zereginei buruzko proposamenak, herritartasunaren erabateko erabilera eta desberdintasunak murrizteko estrategiak, emakumeek ondorio gehienak jasan behar ditugu-eta.
- “Emakumeak” subjektu politikoa ikuspegi feministatik eratzea, gizon eta emakumeen arteko botere-harreman desberdinak deseratzen laguntzeko; emakume-izaerari buruzko irudi berria edukitzeko; ekoizpen, kontsumo zein merkaturaketaren arloko harreman horiek aldatzeko; eta emakumeek lanaren banaketa sexualaren ondorioz sortutako botere-harremanak apurtzeko.
- Lurralde-mailan subjektu politiko berriekiko aliantzak indartzea: herri indigenak, gazteak eta emakume indigenak, baita agintari indigenak eta bateratuak. Era berean, antolaera bateratu berriak sendotzea, lurraldeen zein herrien autonomia eta subiranotasuna defendatzeko.

- Bake-hitzarmenen agenda estrategikoari berriro eustea eta behar den moduko sormena edukitzea, estrategiak eta berehalakotasuna lotzeko, euren izpirituaren betearazpenaren esparruan. Honako hauxe baieztatzen da Nekazaritzaren Egoerari eta Alderdi Sozio-ekonomikoei buruzko Hitzarmenean: “Estatuak herrialdeko garapen ekonomikoa sustatu, bideratu eta erregulatu egin behar du, gizarte osoaren ahaleginaz modu integratuan eraginkortasun ekonomikoa, gizarte-zerbitzuen gehikuntza eta justizia soziala ziurtatzeko. Hazkuntzaren bila, politika ekonomikoak bazterketa ekonomikoaren agerpena eragotzi behar du: langabezia eta txirotasuna, esaterako. Aitzitik, hazkuntza ekonomikoaren onurak handitu behar dira guatemalar guztientzat. Guatemalar guztien ongizatearen bila, politika sozialak garapen ekonomikoa sustatu behar du, eta, horretarako, ekoizpenean nahiz eraginkortasunean eduki behar du eragina”.
- Estrategia horren bidez, Estatu eta gizarte ahaltsuen aldeko apustu eraginkorra egiten da, berdintasunezko eta bidezko garapen-eredua bideratzen dutelako eta interes korporatibo zein sektorialak erregulatu dituztelako.
- Estatu eraldatzeko ekintzak sustatzea, harreman ekonomikoak erregulatzeko eginkizuna berreskuratu dezan; esate baterako, honako arlo hauei dagokienez: nekazaritzaren erreforma integrala, erreforma fiskala eta instituzionala. Horrela, herrien subiranotasuna eta lurraldeen autonomia bermatzen dira.
- Aurrekontua berbideratzea; epe labur, ertain eta luzerako helburuak egituratzea; eta gizartearen eta, batez ere, emakumeen bizimodu ona sustatzen duten irizpideak ezartzea. Enplegua babestea eta, batik bat, emakumeen aldeko ekintzak bultzatzea. Ekonomia biziberritzea eta konpentsatzaile sozialei lehentasuna ematea eta ez enpresa pribatuei.
- Doako oinarrizko zerbitzuak bermatzea eta gastu sozialaren inbertsioa babestea. Genero-ikuspegia politika publikoetan eta baliabideen plangintza, kudeaketa eta kontrolerako prozesu guztietan kontuan hartzea, programetako helburuak betetzen direla bermatzeko, genero-desberdintasunak murrizteko eta emakumeen giza eskubideak betetzeko.
- Gizarte-programen ahalmen tekniko eta administratiboak sendotzea, zerbitzuen zabalkundea nahiz kalitatea eta genero-ikuspegia kontuan hartzen duen aurrekontu-lesleipena indartzeko. Emakumeen aldeko legegintza-agendari berriro heltzea: Etxe Partikularreko Lana eta Nekazaritzako Emakume Langileak.
- Emakume maia eta xinka moduan ditugun eskubideen aldarrikapenari tinko eustea eta politika neoliberaleri zein kapital kreol, transnazional eta inperialistaren goseari indarrez aurre egitea, gure lurrez nahiz lurraldeez jabetzen delako eta gure ondare naturala arpilatu eta suntsitu egiten duelako.
- Zapalkuntza-aparatu estatalek eta neoliberalismoari men egiten dioten gobernuek herri maien eta xinken zilegizko borroketan garatutako jazarpena eta kriminalizazioa

gaitzesten ditugu. Erkidegoetako bermilitarizazioa ere gaitzesten dugu, bertako biztanleak lurraldetik bota nahi dituztelako, enpresa transnazionalen zerbitzura dauden megaproiektuetarako kapital pribatuak sartu daitezzen. Instituzio publiko eta pribatuetan nagusi den matxismoa desagerrarazi behar da, erkidegoan, udalean, eskualdean eta nazioan emakumeen biziaren aurkakoa delako. Femizidio-egintza sistematikoari aurre egin behar zaie, eta indarreko nazioko eta nazioarteko legezko tresnak ezarri behar dira.

- Guatemalako gobernuak berretsitako nazioarteko hitzarmenak eta bake-hitzarmenak ez betetzea. Merkataritzako itunak gure lurraldean ezartzen direnean, eragin handia dute gure garapen-ereduetan, gure ekoizpen-moduak aldatzen dira eta, jatorrizko hazien ordez, transgenikoak, kimikoak zein monolaborantzak erabiltzen dira. Aurrekontu publikoa desbideratu behar da, emakumeen garapen integralaren aldeko politikak eta proiektuak ezartzeko. Pertsonen eta, batez ere, neskatila eta gazte indigenen salerosketari aurre egiteko arduragabekeria eta axolagabekeria saihestu behar dira. Gobernuen politika asistentzialistak baztertu behar dira, herriak engainatu, manipulatu eta banatu egiten dituztelako.
- Autonomiarako eskubidea, determinazio askerako eskubidea eta herrien aurretiazko galdeketa informatua sendotzea. Era berean, auzo-galdeketen izaera loteslea lortzea. Emakumeen duintasuna eta osotasuna errespetatzea, baita gure Ama Natura bera ere.

